

kantujira



AZPEITIA

AZPEITIKO
KANTUJIRA

AZPEITIKO KANTUJIRA

IZEN-ABIZENAK.....

HITZAURREA

Azpeitiko Kantujira taldearen sorrera, duela zortzi urteko Saninazioetan bota zen txupinazoan dagoela esan daiteke. Izan ere, urte hartako erabakia izan zen Gaztetxeak eta Azpeitiko Baigerak elkarrekin botatzea txupina udaletxeko balkoitik. Baina bi taldeek elkarrekin egingo zuten ekintza bakarra hori izatea gutxitxo iruditu zitzairen nonbait eta horren ondorioz, pentsatu zuten kaleetan zehar elkarrekin kantatzen irtetzea, ideia polita izan zitekeela.

Eta duela zortzi urte eta erdi emandako hasera haren ondoren talde txiki batek elkartzen jarraitu zuen urtean zehar beste saio batzuek antolatzeko.

Pixkanaka taldea sendotzen joan da kantari kopurua handituz, musika tresnak gehituz, abesti berriak erreperitorioari erantsiz, abesteko leku berriak zapalduz...

Gaur egun, berrogeiren bat emakume eta gizonek- hauek gutxi- osatzen dugu taldea.

Hilean behin, ohikoena azken ostegunean, egiten dugu saioa kalean. San Martin egoitzan izan ohi gara urtean zehar hiruzpalautan; beste hainbestetan Eguneke Zentruan. Herrian antolatu diren bestelako kultur ekintzetan ere herriko beste kultur taldeekin ere hartu dugu parte: Santa Zezili egunean,... Auzoak ere bixitatu ohi ditugu festa giroan: Sanjuandegin, Nuarben edo Loiolan adibidez.

Beste herri/hirietako Kantujirakoekin ere izan gara partaide: Donostian Aste Nagusian, Iruñean San Fermin larunbatean besteak beste.

Gaur egun Hazparne-Azpeitia arteko senidetasuren ardatz nagusienetakoa esan genezake Kantujiraren baitan dagoela.

Azken urtean, eskuartean duzun kantutegi liburuska osatzen aritu gara eta orain arte orri sueltotak ziren kantuei beste berrehun bat erantsi dizkiogu, hirurehuneko multzoa osatu arte. Oinarri oinarrian tradiziozko eta egungo kantuen bilduma da. Gutxi batzuk erderazko ezagun-ezagunak sartu ditugu. Horietaz baliatzen gara San Martinera eta Eguneke Zentora joaten garenean. Izan ere, bertako hainbat adineko egoiliarrek hizkuntza erdera dute eta bai benetan estimatzen dutela. A! baita ere galizieraz agertzen da kantu bat: "A RIANXEIRA", edo "AGURE ZAHARRA" kantuan katalandarrei keinutxo bat egiten diegu, hainbat estrofetan euren hizkuntza erabiliz. Halaber, Aragoiko "AQUERAS MONTAÑAS" ta Occitaniako "DE CAP TÀ L'IMMORTELA" (ELURLORERUNTZ), bi kanta, lurralde hauetako herrikoienetakoa, txerta ditugu.

Garbi daukagu gure helburua zein den: euskal kanta lau haizetara barreiatzea, euskal nortasuna aldarrikatzea, bai norbanakoak eta bai taldeak gozatuz.

Kantutegia osatzeko, kantutegi desberdinetaz baliatu gara. Hainbat kantutan aldaera desberdinekin topatu gara eta aukeratu behar izan dugu bata edo bestea. Gutako inor ez da testugintzan edo edizio lanetan aditua. Borondate eskergaz aritu da jendea, ahalik eta txukunen eta zuzenen osatzen kantetako testuak. Horregatik, akatsak barkagarriak izan daitezela, jakinez bat edo beste -edo dexente- azaldu daitezkeelako.

Bukatzeko, gure esker ona Azpeitiko udalari, laguntza eskean joan gatzazkionean, atepak zabalik izan ditugulako eta batik bat kantutegi honen argitalpena erraztu digulako.

Mila esker

Azpeitian, 2019ko Azaroa

AURKIBIDEA

A, a, a, ardo gorri naparra	13	Ahets, ahets	31
A Rianxeira	14	Amonatxo	31
Aberriaren mugak	15	Amor de mis amores	32
Adelita	15	Anttoni eta Antton	33
Adios con el corazon	16	Aqueras montañas	34
Agur eta ohore euskal herriari	16	Araba	34
Agur Euskal Herriari	16	Arbola	35
Agur Jaunak	16	Ardo xuria	36
Agur Xiberoa	17	Ardoa edanda	36
Agur, agur, agur ilargira noa	19	Ari naizela	37
Agure zaharra	19	Arrainak ejer begiak	37
Ai zer plazerra	20	Arratsa moskun	38
Ainhua	21	Arratsalde honetan	38
Aita eta ama	21	Arren ez bedi galdu euskera	39
Aita Jainkoak egin banindu	22	Arrosako zolan	40
Aita San Antoniyo	23	Asto gaixua	40
Aita semeak	23	Astoa ikusi nuen	41
Aitak eman zerautan	24	Athenryko zelaiak	41
Aitorren hizkuntza zaharra	25	Atzo, atzo, atzo.	42
Aldapeko sagarraren	26	Auresku	42
Alferraren astea	26	Azken dantza	43
Alma corazon y vida	27	Azkoitiko Martirietan	43
Ama begirazazu	27	Azpeiti(A)	44
Amak ezkondu ninduen	28	Azpeiti-Hazparne-01	45
Amaren besoetan	29	Azpeiti-Hazparne-02	45
Amerikar euskaldunei	29	Azpeiti-Hazparne-03	46
Ameriketako panpetan	30	Badira hiru aste	46
Ameriketara joan nintzan	31	Bagare bagera	47

Bai euskarari	47	Bizkaiko txerriari	68
Baionatik Bilbora	48	Boga boga	70
Bakemina	48	Boneta ta txapela	70
Baldorba	49	Canciones bonitas	71
Bale ihizi	49	casita de papel	71
Baliaren bertsoak	50	Cielito lindo	72
Baratze bat	51	Compostelako erromesa	72
Barku xingle batian... ..	52	Corazon corazon	73
Basatxoritxu	53	Dama gazte xarmant bat	73
Baserritarrak gara gu	54	DecaptÀl'immortela	74
Batasuna	54	De colores	75
Batelera	55	De Trevillen azken hitzak	76
Batetikan korrozka	56	Din Don Din Don	76
Bautista Basterretxe	57	Donostiako hiru damatxo	77
Bedatsian	58	Dotzena bat bertso berri	78
Begiak parrez parrez	58	Egun batez	80
Begitara begira	59	Egun da Santimamiña	81
Behin batean Loiolan	59	Egun on	81
Behin betiko	60	Egun sentí hura... ..	82
Bermiokoportuan.....	60	Egun sentia	83
Bertsuak jarri dizkat	61	EIHA EIHA	83
Bide luzea Ternuarat	62	Eki eder	84
Bihotz eritua	63	Ekiaren dantza	85
Bihotza	64	El rey	85
Biok ezagutzean	64	Elizkaleko martxa	86
Bizi zaitetz bizi	65	Ene izar maitea.....	86
Bizitza kantu bat da	65	Entzun haizetan	87
Bizkai Gipuzkoa ta Xübero	66	Eperra	87
Bizkaia maite	67	Errealeko ereserkia	88

Errefuxiatuarena	88	Goiz eresia	108
Erreguetan	89	Goizian argi hastian	108
Erribera	90	Goizean goiz jeikirik	109
Errota zaharra	90	Gora pilota maitea	110
Eskutxoek jo dute	91	Gora ta gora beti	110
Esperantzarik gabeko amodioa	92	Greziakoitsasontzia	111
Espus espusari topa	93	Guadalajara en un llano	112
Etxaun Iruri	94	Guk euskaraz	113
Euskal herri nerea	95	Gure aitag amari	113
Euskal Herria korrika	95	Gure baserrikogauzak	114
Euskal Herrian euskaraz	96	Gure eliz dorreko	114
Euskal selekzioa	96	Gure kuadrillan	115
Euskaldunek munduan	97	Guretzat berdindira	115
Euskara plazara	98	Habanera	116
Eutsi lagun	98	Haika mutil	116
Ez dut bilatzen aberatsen	99	Haizea dator ipar aldetik	117
Ez ez dut nahi	99	Haizea	118
Ez nau izutzen negu hurbilak	100	Haurrak ikas zazue	118
Ez nazazu utzi	100	Herriko festak	119
Frantsez euskaldun bat	101	Hiltzaile bat bezela	119
Furra-furra	102	Iduzki denean	120
Galdua naiz	102	Ikusi mendizaleak	120
Gazte gera gazte	103	Ikusi nuenian	121
Gaztedi berria	104	Ikusten duzu goizean	122
Gaztelugatxe	104	Ilargia	123
Gernikako arbola	105	Iluntzean	123
Geroa esperantzaz beterik	106	Insumisoarena	124
Gitarra zahartxo bat det	106	Iñondik iñoare	125
Gogoaren baitan	107	Iparragirre abila dela	125

Ireki bihotzak	126	L'Estaca-Agure zaharra	149
Irrintzina	126	La bella Lola	150
Iruñeko ferietan	127	La caña dulce	150
Isil isilik	127	La enterradora	151
Itsasoa laino dago	128	Lagun etor gurekin	152
Itsasoan urak haundi	128	Lagundurikan denoi	153
Itsasoari begira	129	Lau teilatu	154
Itsasontzi baten	130	Lepoan hartu	154
Ituringo arotza	130	Lili bat ikusi dut	155
Itziarren semea	131	Lore polit bat badut nik.....	155
Ixil Ixilik dago	132	Limako arratsak bai eder	156
Izarren hautsa	133	Lolita	156
Izotz ondoko eguzki	135	Lore gorrien balada	156
Jardin bat zuretzat	136	Lore polit baten bila	157
Jaun baruak	137	Loretxea	157
Jon Zaharra	138	Loriak udan	158
Joseba Elozegi	138	Madalenara	159
Joxemigel	139	Madarixatik itsasora	159
Kalanbreak	140	Maddalen	160
Kanta aberria	141	Maitasun hitzak	160
Kantatuaz kantatuaz	141	Maitatzen zaitudalako	161
Kantuz sortu naiz	142	Maite zaitut	162
Katalintxu	143	Maiteaz galdezka	162
Kattalin	143	Maitetxu itxasoan dago	163
Katuen testamentua	144	Maitia nahi badezu	164
Konplize ditut eta	144	Maitia nun zira	165
Kontrapas.....	145	Maitiakgaldeeginzautan.....	165
Kontsesiri	146	MariaSolttaKastero.....	166
Kupela, kupela	148	Maritxu nora zoaz	166

Markesaren alaba	167	Nun da nekazaria.....	186
Markoxen txerrixe	168	OiamaEuskalHerria.....	187
Martxa baten lehen notak	169	Oi gu hemen	187
Matalaz	169	Oi kanta berri	188
Mendian gora haritza	170	Oi Pello Pello	189
Mendirik mendi	170	Oihanianzeindeneder.....	189
Monjetako ontzari	171	Ojos verdes	190
Muga gainetik	172	Oriko txoria	190
Mundurat eman ninduzun	172	Ostatuko neskaten koplak	191
Muñagorriren bertsoak	173	Pello Joxepe	192
Mutil koxkor bat	174	Pilota euskal jokoa	192
Mutil zaharraren despeira	175	Pilotarien biltzarra	193
Nafarroa arragoa	176	Pottoka	193
Nafarroa ereserkia	177	Prima eijerra	194
Nafarroajota (Bedaxagar)	177	Primaderako liliak	194
Nafarroak kateak ditu	177	Primaderaren edertasuna	195
Nafarroari	178	Ran Rober Ran	196
Navarratienecadenas.....	179	Sagardotegian	196
Nere herriko neskata maite.....	179	San Simon eta San Juda	197
Nere maitia jeiki ta jeiki	180	Saran dantzariak	197
Nere sentimentua	180	Sarralle	198
Nigarra begian	181	Si canta Tafalla	198
Nigarrez sortu nintzen	182	Solferinoko itsua	199
Nirekin (musutxue)	183	Teologia ideologia	200
No señor yo no me casare	183	Topa dagigun	201
Nola bizi hala kanta	184	Trapu Zaharrak	201
Nor nori nork	184	Txakurraren partia	202
Nuarbeko Trini	185	Txalaparta	202
Nuarbeko xestogilea	186	Txamargarria zira	203

Txantxibiri	204
Txatxamalatxinatxu	205
Txikia	205
Txoriak txori	206
Udaberrian	206
Udako eguna	207
Ume eder bat	207
Umetxo baten ametsak	208
Urruti nere menditik	208
Urte batez	209
Urte oroz bezela	210
Uso txuria	210
Volver volver	211
Xalbadorren heriotzean	212
Xorieri mintzo zen	213
Xoxuak galdu burua	214
Yo no se yo no se	214
Yo vendo unos ojos negros	215
Zazpiak ohial batetik	215
Ze politak diran	216
Zergatik utzi kantatzeari	216
Zergatik	217
Zorionak	218
Zugana Manuela	219
Zure begiek	220

GABON KANTAK

Birjina maite	222
Campana sobre campana	222
Elurra Mara Mara	223
Elurra Mara-Mara-Txof-Txof	223
Etxe honetan	224
Gabeko Izar	224
Gau erdian soñua	225
Hator hator	225
Haur eder baten bila	226
Haurtxo maite	226
Haurtxoari kantatzen	227
Horra Mari Domingi	228
Kanta dezagun danok	228
Mendi aldetik datoz	229
Olentzero	229

A A A ARDO GORRI NAPARRA

A, a, a, ardo gorri naparra,
eliku ona da,
edan al baldin bada.
A, a, a, ardo gorri naparra.

E, e, e, ni ardoaren alde,
edan ardura gabe,
baldin bada debalde.
E, e, e, ni ardoaren alde.

I, i, i, ardoak gaitu bizi,
noizik behin ongi busti,
edan gabe ez utzi.
I, i, i, ardoak gaitu bizi.

O, o, o, hau biontzako dago,
edan dezagun oro,
zuk orain ta nik gero.
O, o, o, hau biontzako dago.

U, u, u, ardoak gaitu galdu,
gehiegi edan dugu,
lurra irago digu.
U, u, u, ardoak gaitu galdu.

A RIANXEIRA

Letra: Xesus Fireiro Dourado "Pinciñas"/// Musica:
Anxo Romero Loxo (Buenos Aires 1947)

**ONDIÑAS VEÑEN, ONDIÑAS VEÑEN,
ONDIÑAS VEÑEN E VAN,
NON TE EMBARQUES, RIANXEIRA
QUE TE VAS A MAREAR. (2)**

A VIRXE DE GUADALUPE
CANDO VEU PARA RIANXO (2)
O BARQUIÑO QUE A TROUXO
ERA DE PAU DE LARANXO (2)


**ONDIÑAS VEÑEN, ONDIÑAS VEÑEN,
ONDIÑAS VEÑEN E VAN,
NON TE EMBARQUES, RIANXEIRA
QUE TE VAS A MAREAR. (2)**

A VIRXE DE GUADALUPE
CANDO VAI POLA RIBEIRA (2)
DESCALCIÑA POLA AREA
PARECE UNHA RIANXEIRA. (2)

**ONDIÑAS VEÑEN, ONDIÑAS VEÑEN,
ONDIÑAS VEÑEN E VAN,
NON TE EMBARQUES, RIANXEIRA
QUE TE VAS A MAREAR. (2)**

Á VIRXE DE GUADALUPE
QUEN A PUXO MORENIÑA (2)
FOI A RAÍÑA DE SOL
QUE ENTROU POLA VENTANIÑA (2)

**ONDIÑAS VEÑEN, ONDIÑAS VEÑEN,
ONDIÑAS VEÑEN E VAN,
NON TE EMBARQUES, RIANXEIRA
QUE TE VAS A MAREAR. (2)**



ABERRIAREN MUGAK

Hitzak: Joxerra Garzia /// Doinua: Txomin Artola

Nire aberria lurra bezain zaharra da
baina ez da lurra bakarrik
haizeak bezala inguratzen nau eta
lotzen, askatzen naularik.

Nire aberria suaren antzekoa da
beti bera, berria beti
epeltzen nau kanpoan hotz
dagoenean
ta erretzen ere badaki

**Aberriaren mugak; euskararenak
gure baitan daude gehienak
euskara zabalduaz lau haizetara
zabalago egiten gara.**

Nire aberria harrizko herria da
hitzekoa eta hitzekoa
altzairuzko txakolin, ardo zurezkoa
eta hondar anonimoa.

Nire aberria burdin bihurria da
oroimenean arindua
itsaslaminen baten herdoilezko
kantu
etorkizunez fosildua.

**Aberriaren mugak; euskararenak
gure baitan daude gehienak
euskara zabalduaz lau haizetara
zabalago egiten gara (3)**

ADELITA

En lo alto de una abrupta serranía
acampado se encontraba un regimiento
y unas mozas que valiente lo seguían
locamente enamorada del sargento.

Popular entre la tropa era Adelita,
la mujer que el sargento idolatraba
que además de ser valiente era bonita
que hasta el mismo coronel la respetaba.

Y se oía que decía
aquel que tanto la quería

**Y si Adelita se fuera con otro
la seguiría por tierra y por mar,
si por mar en un buque de guerra
si por tierra en un tren militar.**

**Y si Adelita quisiera ser mi novia
y si Adelita ya fuera mi mujer,
le compraría un vestido de seda
para llevarla a bailar al cuartel.**

Y después que terminó la cruel batalla
y la tropa regresó a su campamento
por la vez de una mujer que sollozaba
la plegaria se escuchó en el campamento.

Y al oírla el sargento temeroso
de perder para siempre a su adorada
escondiendo su dolor bajo el esbozo
a su amada le cantó de esta manera

Y se oía que decía
aquel que en tanto se moría

Y si acaso yo muero en campaña
y mi cadáver lo van a sepultar,
Adelita, por Dios te lo ruego,
que con tus ojos me vayas a llorar.

ADIOS CON EL CORAZON

Adiós con el corazón
que con el alma no puedo
al despedirme de ti
de sentimiento me muero

“ Tú serás el bien de mi vida
Tú serás el bien de mi alma
Tú serás el pájaro pinto
que alegre canta
por la mañana “ (2)

Adiós con el corazón...

“ Tú serás el bien de mi...” (2)

AGUR EUSKAL HERRIARI

JM Iparragirre

Gazte gaztetandikan
herritik kanpora,
estrajeria aldean
pasa det denbora.
“Herrialde guztietan
toki onak badira,
baina bihotzak dio:
zoaz Euskal Herrira”. (2)

Lur maitea uztea
da negargarria.
Hemen gelditzen dira
ama ta herria.
“Urez noa ikustera,
bai, mundu berria;
Oraintxe bai naizela,
errukigarria. “ (2)

Agur nere bihotzeko
amatxo maitea!
laster etorriko naiz
kontsola zaitea.
“Jaungoikoak nahi badu
ni urez joatea;
ama zertarako da
negar egitea?”(2)

AGUR JAUNAK

Hitzak: Manuel Lekuona Rezola “Urtxalle”

“ Agur Jaunak
eta andreak,
agur t’erdi “ (2)

“Danak Jainkoak
eiñak gire
zuek eta
bai gu ere.

Agur Jaunak,
agur,
agur t’erdi,
hemen gire” (2)

Agur Jaunak.

AGUR XIBEROA

Hitzak eta Doinua: Pierre Bordazarre “Etxahun-Iruri”

**Agur, Xiberoa,
bazter guzietako txokorik ederrena.
Agur, sorlekua,
zuri ditut ene ametsik gozoenak.
Bihotzan erditik
bortzetan elki deitadazut hasperena.
Zu utzi geroztik
bizi naiz tristerik,
abandonaturik,
ez baita herririk
Paris ez bertzerik
zu bezalakorik.**

Sor lekua utzirik gazte nintzalarik,
Parisen sartu nintzen korajez beterik,
Plazerez gose eta buruan harturik
behar nuela alegera bizi.
Bortzetan geroztik
nigar egiten dit
Xiberua zuri.

Agur, Xiberoa,

Palazio ederretan gira alojatzen
Eta segur goratik aire freska hartzen.
Gain behera so eginik baitzait iruditzen

Orhin gainean nizala agitzen.


Baina ez dira hemen
bazterrak berdatzen,
txoriak kantatzen !

Agur, Xiberoa,

Ametsa, lagun nazak ni Atharratzera
ene azken egunen han igaraitera,
Orhiko txoriaren kantuz behatzera
barka ditzan nik egin negarrak.

Hots, xiberutarrak,
aintzinean gora
euskaldun bandera !.

Agur, Xiberoa,



AGUR, AGUR, AGUR, ILARGIRA NOA

Hitzak eta Doinua: Julen Lekuona

**“Agur agur agur
ilargira noa” (2)**

Nerekin damazkit pentsakisuak
neronekin ezin ikusiak
neronekin gose ta gorrotoak
neronekin inbidi guztiak

“Agur agur agur...” (2)

Hemen uzten ditut nahirik onenak
hemen pakea ta osasuna
hemen gizonaren eskubideak
hemen danontzat askatasuna

Agur agur agur...” (2)

Amets ola bart gabea egin dut
amets honek jarri nau poztuta
bainan Almeriako bonba horrek
utzi dit ametsa zapuztuta
“eta orain ezin ilargira Joan” (2)

Agur agur agur...” (2)

AGURE ZAHARRA

Hitzak eta Doinua :

Lluís Llach /// Xabier Letek euskaratua

Agure zahar batek zion, bere etxe ondoan,
goizean goiz, lantokira irtetzen nintzanean :
Ez al dek, gazte, ikusten, gure hesola zein dan
Desegiten ez badugu, bertan galduko gera.

**Baina, guztiok batera,
saiatu hura botatzera!
Usteltzen hasia dago ta,
laister eroriko da.
Hik bultza gogor hortikan,
ta bultza nik hemendikan !
Ikusiko dek nola Nola
laister eroriko dan.**

Bainan denbora badoa, nekea zaigu hasi.
Eskuak apurtu zaizkit eta indarrak utzi.
Usteltzen badago ere, karga badu oraindik
Berriz arnasa hartzeko esaigun alkarrekin :

Baina, guztiok batera...

Aittona zaharra falta da bere etxe ondotik
haize txar batek hartuta eraman du
hemendik.

Haur batzuk ikusten ditut, eta inguraturik,
aittona zaharraren kanta nahi diet erakutsi :

Baina, guztiok batera...

AI ZER PLAZERRA

Hitza eta /Doinua:

Pierre Bordazarre "Etxahun-Iruri"

Ai zer plazerra, bost urten bürüan
sor lekilat itzültzia.
Ene herria etsitü nian,
zure berriz ikustia.
Aski sofrituz nik hanitxetan,
desir nükian hiltzia.
Ez bazüntüdan hain maite üken,
o Ama Eskual Herria!
Tralara...

Hanitxen gisa partitü nintzan,
etsarien güdükatzera.
Gogua bero, bihotza laxü,
eta kasik alagera.
Ez bainakian, orano ordian,
zer zen amaren beharra.
Hari pentsa eta biga bostetan,
aiher zitazün nigarra.
Tralara...

Erresiñula kantari eijer
libertatian denian
Bena trixtüran hingatzen dua
kaiola baten barnian
Gü ere ama hala güntüzün,
tirano haien artian
Zure ametsa kontsolagarri,
trixtüra handirenian.
Tralara...

Sortü berriak, bere kuñatik,
lehen elhia du "ama"
Bere ilusione ederrian,
ez dezazüla abandona.
Zure amodiuan egar itotzü
bititze huntako penak
Begira dezan azken hatsetan,
azken hitza zure "AMA".

Tralara...



AINHOA

Hitzak eta Doinua: M. Azpiazu / L.Iriondo ///

Interp: Xabier Madina

Noiz sortu zidan, bihotz ondoan ,
maitasun sentíberoa.
Sotila zinan oso osoa,
behin betikoa neretzat.
Eta ordutik ez det pakerik
zu nerekin ez bazera,
gaurtik aurrera izango gera
senar eta emaztea.

Ainhoa, Ainhoa,
zaitu nahi det zure loa,
Ainhoa, Ainhoa,
azken gabe maite
goizaldean zure alboan,
Ainhoa, Ainhoa.
Atzo eztaiak, nere Ainhoak,
gaur hilobian gaixoa,
baina gu biok, maitasun mina,
ez da oraindik agortua.
Ez degu izan zalantza ordurik,
bion arteko bizitzan,
orain zeruan nere zain zera,
aurki naiz zure bila.

Ainhoa, Ainhoa, ...

AITA ETA AMA

“Gazte niz eta lorius”

“Aita eta ama etzaten dira
khanbara baten barnian” (2)
ez dira nitaz hanitx ohartzten
berak untsa direnien
jeloskeriarik ez izateko
ni maitenoaren aldian

“Gazte niz eta lorius
espiritua kürius” (2)
bat ez agrada bestia jelos
mutil gaztekin gai oroz
mutil gaztekin gai oroz eta
nüla naiteke malerus

“Ate xokhuan makila eta
leiho azpian zürübik” (2)
“ene maitia hantik sartzen da
segeretian prüdenki
segeretian prüdenki eta
amak oraino ez daki” (2)

AITA JAINKOAK EGIN BANINDU

“Txiki txikitik”

Gazte gaztetik aitag eta amak
fraile ninduten nonbratu
bai eta ere Salamankara
estudiante bialdu.
Salamankara nindoalarik
bidean nuen pentsatu
estudiante tunante baino
hobe nuela ezkondu.

Ostatu xume polit batean
gosez gelditu bainintzen
,neska xarmant bat ari zitzaidan
mahainean zerbitzatzen.
Begiak gartsu, ezpainak lore,
enekin aise mintzatzen
aingeru hori ordu berean
ene bihotzean sartu zen.

Hitz erdi batez maite nuela
erran nion belarrira
baina, gaixoa, herabetua
ihes joan zen kanpora.
Ez ahal nauzu, izar ederra,
kondenatzen infernura!
Ez da sekulan ene gogotik
ahaztuko zure itxura

Ezkondu nintzan, bai ni ezkondu,
baita ere ondo damutu
praka beltzean hari txuririk
ez zait sekula faltatu.
Praka beltzean hari txuria
txamarra beso gabea,
horregatik deitzen didate
arrote miserablea.

Jainko maitiak egin banindu
zeruetako giltzari
azken orduan jakingo nuen
atea nori ireki.
“Lehenengo aitari, gero amari,
gero anai-arrebari,
ta azken orduan isil-isilik
ene maite politari.”(2)



AITA SAN ANTONIO

Imuntzo ta Beloki

Aita San Antonio Urkiolakoa
Aita San Antonio Urkiolakoa
Euskal Herriko jende guztien santu debotoa, ai! ai!
Euskal Herriko jende guztien santu debotoa.

Aupa San Antonio Urkiolakoa
Aupa San Antonio Urkiolakoa
bere denporan hamaika neska ezkonduakoa, ai! ai!
bere denporan hamaika mutil ezkonduakoa.

Euskalduna izatia pekatua bada,
euskalduna izatia pekatua bada
hori aitortu baino le'enago hiltia hoba da, ai! ai!
hori aitortu baino le'enago hiltia hoba da.

Ene aita ta amak euskaldunak dira
ene aita ta amak euskaldunak dira
beren semeak, beren alabak zer izango dira? ai! ai!
beren semeak, beren alabak zer izango dira?

AITA SEMEAK

Hitzak:Mikel Zarate /// Interp:OSKORRI

**“Aita-semeak tabernan daude,
Ama-alabak jokoan”.(2)**

Berriz ikusi beharko dugu
Behi gizena auzoan,
Berrirori ere ez da faltako
Trapu zaharrik kakoan.

“Aita semeak...”(2)

Eta lapurrek ohostu dute
Guk gendukana etxean,
Eta gu gaude erdi biluzik
Beti inoren menpean.

“Aita semeak...”(2)

Geurea dugu erru guztia
Geurea dugu osoa,
Ez inori ba errua bota
Euskal Herria hiltzean.

“Aita semeak...”(2)

Baina gaztea naiz eta daukat
Etorkizuna eskuan,
Ez zaigu hilko Euskal Herria
Ni bizi naizen artean.

“Aita semeak...”(2)



AITAK EMAN ZERAUTAN

Hitzak eta Doinua: Piarres Dibarrart

Aitak eman zerautan
zerurat juaitian
Enetzat mahastia
hartzeko lanean;
“Artha nezala,
Aitak bezala,
Haitzur eta jorra,
Laguntzat hor nuela,
sotoko ophorra.” (2)

Etxe xuri ttipi bat,
badut mahastian,
Sagar, udare, piko,
mertxiken artean,
“Etx’aitzinean,
Loren erdian,
Baratze alhorra,
Dutxuluaren pean,
sotoko ophorra.” (2)

Mahastian xoriek
goiz dute kantatzen;
Orduan bozkarioz
lanari naiz lotzen;
“Gero zait hasten
Bihotza hozten,
Agortzen zintzurra,
Laster dut eskuratzen
Asotoko ophorra.” (2)

Ez dut hiritar gisan
gosari ttikia:
Bixkotxatto batekin
edari bixia;
“Nik dut ogia
Axal gorria,
Bai gasna gogorra,
Eta arno xuritik,
sotoko ophorra.” (2)

AITORREN HIZKUNTZ ZAHARRA

Ziriako Andonegi (Mutriku)

Aitorren hizkuntz zaharra nahi degu zabaldu
munduaren aurrean gizonki azaldu.
Baldin gure zainetan odolik badegu
euskaldunok euskaraz hitz egin behar degu.

Zein hizkuntza ederra euskera guria
inun ez det aurkitzen beste bat hobia
usai goxondun hizkuntz txukun ta argia,
biraorikan ez duan hizketa garbia.

Etsaiak aurka dabiltz euskerarengatik
lehen orain eta beti guztiz aspalditik
lurperatu nahirikan antzin-antzinatik
ez dute hori lortuko inungoaldetik.

Euskera galdutzeko ez dago beldurrik
munduan ez da sortu hortako indarrik
sasi jakintsu asko dabiltz galdu nahirik
asmo txar horiek guztiak dirade alperrik.

Gora euskara maitea zoragarriena
euskaldunen artean maitagarriena.
Munduan sortu zanik hikuntzik zaharrena,
“gora ta gora euskaldunak eta gure Euskara”.(2)



ALDAPEKO SAGARRAREN

“Aldapeko sagarraren
adarraren puntan
puntaren puntan
txoria zegoan kantari.” (2)

Txiruliruli, txiruliruli
nork dantzatuko ote du
soñutxo hori.

Txiruliruli, txiruliruli
nork dantzatuko ote du
soñutxo hori.

ALFERRAREN ASTEA

la,la,la,la...

Astelehena jai ondoren alferra
ezer ez egiteko ez goaz lanera.

ez goaz lanera,... (4)

Asteartea euria goitik behera,
busti egingo gera,ta ez goaz lanera.

ez goaz lanera,... (4)

Asteazkena osaba ezkontzen da
ta jai hartzen badugu, ez goaz lanera.

ez goaz lanera,... (4)

Osteguna amonaren eguna
festa hori ospatzeko ez goaz lanera.

ez goaz lanera,... (4)

Ostirala hagineta mina
aspirina hartuta bagoaz ohera.


ez goaz lanera,... (4)

Larunbata egun erdiko lana
egun erdiagatikez goaz lanera.

ez goaz lanera,... (4)

Igandea lantegia itxita
lana egin nahi baina ezin joan lanera.

ezin joan lanera ... (4)



ALMA CORAZON Y VIDA

Adrián Flores Alván

Recuerdo aquella vez
 que yo te conocí
 recuerdo aquella tarde
 pero no me acuerdo
 ni como te vi

“Pero sí te diré
 que yo me enamoré
 de esos tus lindos ojos
 y tus labios rojos
 que no olvidaré.” (2)

Oye esta canción que lleva,
 alma, corazón y vida.
 Estas tres cositas nada más te doy
 porque no tengo fortuna
 esas tres cosas te ofrezco
 alma, corazón y vida y nada más

“Alma para conquistarte,
 corazón para quererte
 y mi vida para vivirla junto a ti.” (2)

AMA BEGIRA ZAZU

Interp: OSKORRI

“Ama begira zazu
 leihotik plazara:
 ni bezalakorikan
 plazan ba ote dan?” (2)
 Plazan ba ote dan?
 Plazan ba ote dan?
 “Lai lara lai tra la” (2)

“Begiak erne ditut,
 bi zangoak arin:
 hoinbertze dohainekin
 ez nauke mutxurdin.” (2)
 Ez nauke mutxurdin.
 Ez nauke mutxurdin.
 “Lai lara lai tra la” (2)

“Mutikoen artean
 itzul-inguruka,
 gizongaitzat baduzket
 dotzenan hamaika.” (2)
 Dotzenan hamaika.
 Dotzenan hamaika
 “Lai lara lai tra la” (2)

“Heldu den primaderan
 arropa uritan,
 ederra izanen naiz
 mahain sainduetan.” (2)
 Mahain sainduetan.
 Mahain sainduetan.
 “Lai lara lai tra la” (2)

“Haurra, ahal badaide,
 hala izan bedi:
 lehen gure aldi zen
 orain zuen aldi.” (2)
 Orain zuen aldi.
 Orain zuen aldi.
 “Lai lara lai tra la” (2)

AMAK EZKONDU NINDUEN

Amak ezkondu ninduen
hamabost urtekin,
hamabost urtekin
senarrak bazituen
larogei berakin,
eta ni, neskatila gaztea,
agure zaharrakin
agure zaharrakin.

Ama, zertarako dut nik
agure zahar hori?
agure zahar hori?
hartu ta leihotikan
jaurti behar dut nik,
ai ene! ene leihotikan
jaurti behar dut nik
jaurti behar dut nik.

Neska, hago isilikan,
aberatsa dun hori,
aberatsa dun hori
pazientziz pasa hitzan
urte bat edo bi,
hori hilez geroztikan
biziko haiz ongi
biziko haiz ongi

Deabruak daramala
interesatua
Interesatua,
hau baino nahiago dut
adin berekoa
ai ene! hogeit bat urteko
gazte loratua
gazte loratua

AMAREN BESOETAN

Mikel Errazkin-SOROETAN BELE

Oinez zelai berdean
itsaso bazterrean
gailurrak ditut maite
eta kresal usaina.

Itsas bazterreko
ur gazi buztietan
garbitzen dut arima
ametsez betea.

Eukal herri osoko
mendi guztietan
etxean aurkitzen naiz,
amaren besoetan.

Lurrean etzanda
goruntz begira
ni ohartzen naiz
zu maite zaitudala.

AMERIKAR EUSKALDUNEI

Hitzak: Jules Moulier "Oxobi"

Doinua-"You are my Sunshine" country doinuan
oinarriritua

Interp. :Erramun Martikorena

Ikusi ditut lagun maiteak
Ameriketarat joaiten;
nigarrez, bainan beldurrik gabe
itsas-untzirat igaiten.

Oi egunetan bihotzak ixil
zoin nekez ziren egoiten!
Ama gaixoek nola zituzten
ondar musuak emaiten!!

Eskualdun haurrak, Ameriketan
errones zinezten sartu,
bainan lanetik zirezte laster
gizon fierrak agertu!

Erroak barna sartuz geroztik
haitza bere hartan behar,
zabal eta xut handitzekotan
luzaz beira dezan indar.

Euskal Herrian zonbait etxalde
duzuen indar berritu
batzuek hunat itzuli eta
famiak hemen moldatu

Gu berexteko zerbeit direa
itsaso, leihor, ibaiak?
Anaitasuna nondik dezake
galaraz itsas handiak?

Ez eskualdunak, eskualdun gauden
guziz elgar atxikiak,
Europar orduz nola baikinen,
Ameriketan anaiak!

Goraki beraz nahi dut erran:
agur, agur, Eskualdunak,
dantzari lerdan, airos kantari,
nik ezin ahantz lagunak!

Oi nahiago zinuzkete ba
haurriden musu legunak...
bainan gogotik onhar-zkitzue
nere bertsu bihotzdunak!

AMERIKETAKO PANPETAN

Hitzak: Pedro Mari Otaño /// Doinua: Juan Mari Beltran /// Interp.: Xabier Lete

Euskal Herriko, Lur maite Hartan,jaio nintzan baserrian,
Itzal haundiko, intxaur arbol bat,dago gure atarian;
haren ondotik, irtenda noiznahi,maldako gaztainadian,
edo sagarrik,onenak jaten,luberriko sagastian,
arbol tartean, bizitu nintzan,gazte denbora guztian.

Denak utzita, etorri nintzan, lur hau ikusi nahi nuan:
haritz tantaiaak,pago lerdenak, nola ez izan goguan!
Orain artzantzan, Ameriketan arrantxo baten onduan,
eguna igaro, larrean eta,jiratzan naizen orduan,
nere begiak, gozatzen dira,aldemeneko ombuan.

Txabol ondoko, ombu laztana,maitatzen zaitut gogotik,
eta bihotza erdibitzen zait,joatean zure ondotik,
Nere burura,ekartzen dezun,oroimen gozoagatik.
zure itxura ikusi nahi det,ez dizut eskatzen frutik,
ni hemen bizi,naizen artean,arren,egon zaite zutik!

Nere lagunik, maitatuena, ombu laztana, zu zera,
hargatik nator, zure kolkora, ni malkoak isurtzera,
iduriturik naramazula,atariko intxaurpera...
beti izango,zaitut gogoan, baina joan,nahi det osteraz,
Euskal lurreko zuhaitzpe hartan, nire hezurak uztera.

AMERIKETARA JOAN NINTZAN

“Ameriketara joan nintzan
 zentimorik gabe
 handik etorri nintzan maitia
 bost miloien jabe.” (2)
 “Txin, txin, txin, txin,
 diruaren hotsa,
 harexek ematen dit maitia
 bihotzian poza.” (2)

AMETS AMETS

Agustin Zubikarai /// Interp.: Argoitia anai arrebak

Amets, amets egin
 itsas gizona,
 amets, zure ametsa
 gerta leikela.

Berriz etorriko zera
 Ondarruko kaiera,
 han daukazu maitea
 itxaroten dezuna,
 berriz etorriko zera,
 zure txaluparekin,
 han daukazu maitea
 ta bihotza.

Uh ,Uh,Uh,...

Berriz etorriko zera
 Ondarruko kaiera,
 han daukazu maitea
 itxaroten dezuna,
 berriz etorriko zera,
 zure txaluparekin,
 “han daukazu maitea
 ta bihotza.” (2)

AMONATXO

J.A. Legorburu

**“Ile txuri beti hotz
 amonatxo bargarri motz
 baztertuta heriotz
 amonatxo hilobaren poz.” (2)**

Sudur txiki bat aho huts
 argizaiezko aurpegi lehun
 mantal garbi bat motadun
 amonatxo malkoaren lagun.

Ile txuri beti hotz..

Ez du ikusten askorik
 bainan ugari egiten du hitz
 esango nuke beti nik
 ni itsaso bera haitz.

**Ile txuri beti hotz
 amonatxo bargarri motz
 baztertuta heriotz
 “amonatxo hilobaren poz” (4).**

AMOR DE MIS AMORES

No te asombres si te digo lo que fuiste
un ingrato con mi pobre corazón
por que el fuego de tus lindos ojos negros
alumbraron el camino de otro amor.

Y pensar que te adoraba tiernamente
que a tu lado como nunca me sentí
y por esas cosas raras de la vida
sin el beso de tu boca yo me vi.

Amor de mis amores, reina mía, qué me hiciste,
que no puedo conformarme sin poderte contemplar
ya que pagaste mal a mi cariño tan sincero
no me conseguirás que no te nombre nunca más.

Amor de mis amores, si dejaste de quererme,
no hay cuidado que la gente de esto no se enterará
qué gano con decir que una mujer cambió mi suerte
se burlarán de mí, que nadie sepa mi sufrir

No te asombres si te digo...

Y pensar que te adoraba...

ANTTONI ETA ANTTON

Nemesio Etxaniz

Anttoni! Anttoni!
Zure atean nago ni.
Ai, Antton! Ai, Antton!
Ate ondoan, hor konpon.” (2)

1-Anttonek:

Hormatxoriak negu gorrian
ez du atsegin elurra:
zerua goibel, kabia hotza
ta janari gabe lurra.
Ai, maite, nire bihotzak duen
zure hotzaren beldurra!
Biontzat kabi bat berotzeko
bilduko nuke egurra.

“Anttoni! Anttoni!...” (2)

2-Anttonik:

Enarak ez du behin egindako
kabirik inoiz aldatzen:
urtero beti kabi aretan
umeak ditu bazkatzen.
Baina zu, Anton, enara txarra
zaitut niretzat bilatzen;
jai bakoitzean nexka berria
ikusten zaitut maitatzen.

“Anttoni! Anttoni!...” (2)

3-Anttonek:

Enarak ere bere kabia
galduta badu ikusten,
biderik gabe, haruntz ta honuntz
kabitik du aldegiten.
Egarri dagoen nire bihotza,
zuk eman ezik edaten,
berriro ere ibiliko da
gogorik gabe nonbaiten.

“Anttoni! Anttoni!...” (2)

4-Anttonik:

Zure bihotza egarri dela
esan didazu bertsotan;
neronek ere ikasia dut
arrazoi duzula hortan.
Zu beti zabiltz edari bila,
ikusi zaitut askotan,
baina neurriz gain egarri hori
itotzen duzu ardotan.

“Anttoni! Antttoni!
kalabaza zale ez naiz ni.
Ai, Antton! Ai, Antton!
Haize freskoari, gabon!” (2)

AQUERAS MONTAÑAS

Occitània-Aragón

*Pirineotako bi aldeetan, Occitanian zein
Aragoien, abesten den maitasun kanta
herrikoia, Jose Antonio Labordetak
ezagutzera emandakoa.*

Aqueras montañas
tan alteras son,
no me dixan bier
os mios aimors.

Aqueras montañas
cuán se'n baxarán
y os mios aimors
aparixerán.

Dezaga d'ixas boiras
os n'iré a escar
y crebando as mugas
con yo entornarán.

Si canto, yo que canto,
no canto ta yo,
canto t'a mía amiga
que ye en ixos mons

ARABA

Hitzak: Gorka Knorr

**“Araba, oi Araba!
zu ote zare
aitaren zazpigarren alaba?” (2)**

Iparraldeko oihanek
diraute lardenik
hegoa-aldean, berriz
zelai bilutsik, bilutsik.

“Araba, oi Araba!.. (2)

Bazegoen bide bat
bazegoen zugaitz bat;
Bainan zugaitz erori hori
bidean oztopoa, oztopoa.

“Araba, oi Araba!.. (2)

Gure nahia, ekaitza,
haizea, legorra
gizona zapaldua
bizitza, negarra, negarra.

“Araba, oi Araba!.. (2)

ARBOLA

Hitzak: Beñat Sarasola /// Doinua: P.P. Berzaitz

Arbola gainean xoria da kantatzen
Kantatzen da eta bazterrak inarrostzen
Inarrosi eta hostoa da erortzen
Euskal bihotza da bilaiz egoiten.
Bilaizi ondoan han dira errabian
Xiloka beltzian handik elki nahian
“Handik elki eta kantatzerat abian
Lagun zonbait bidian ikusiko agian” (2).

Laaaa, lara, lara, lara... (4)

Goiz argi eder bat beti jeikitzen nunbait
Nunbait jeiki eta zorionean zonbait
Bizi hobeago denek dukete gogo
Bainan bakarrik ezin egin asmo.
Haur baten sortzeko sofritze beharrezko
Bizi hobetzeko legeen bihurtzeko
“Nor da abiatzen lagun zonbaiten biltzen
Herriaren salbatzen herioari kentzen” (2)

Laaaa, lara, lara, lara... (4)

Gaur Euskal Herrian zuhaina da landatzen
Landatzen da eta gero fruitu ekartzen
Fruitu ekar eta auzoa da kexatzen
Iraultzalaria madarikatzen.
Jar giten ildoan igeri izerdian
Izerdian eta lepozainak hegian
“Besoez ta botzez, hortzez eta haginez
Lagun bat zorionez ikusiko dugunez” (2).

Laaaa, lara, lara, lara..... (4)



ARDO XURIA

Hitzak eta Doinua: A. Bordagaray

Kolpü bat edan, beste bat edan
Gure gizona trenpian.
Kolpü bat edan, beste bat edan
Gure gizona lürrian.

**“Ezin xüti, ezin ibil, ezin ezagün lagüna
Ardo xuriak ezartzen dizü
Planta txarrian gizona” (2)**

Etixerakuan, ülün beltzian,
Dena trebeska bidian. (2)

“Ezin xüti,..” (2)

Etxeko bortan nurbait bada han,
Erratza beitü eskian. (2)

“Ezin xüti,..” (2)

Senar tristia, mozkorzalia,
Zertako dük emaztia ? (2)

“Ezin xüti,..” (2)

Etxekandere, begi ñabarra,
Ez zitela otoi kexa ! (2)

“Ezin xüti,..” (2)

Berriz artino adixkidiak,
Gauden zabalik begiak ! (2)

“Ezin xüti,..” (2)

ARDOA EDANDA

Tra lara lara..

Ardoa edanda mozkortzen naiz
pipa erreta zoratzzen naiz
kortejatzean lotsatzen naiz
nola demontre biziko naiz?

Tra lara lara..

Pipa hartuta zoratzzen naiz,
ardo edanda mozkortzen naiz,
morkortu eta erortzen naiz...
Nola demontre biziko naiz?

Tra lara lara..

Hamar botila xankraturik,
azken basoa klikaturik,
azken xirrista irentsirik,
moltsa deraukat turrindurik,

Tra lara lara..

Urrundu zaizkit adiskideak
eta hurbildu ostalerak,
etxean aldiz emazteak
prest-presta ditu erasiak.

Tra lara lara..

Bazter guztiak inguruka,
bideak ere ihaurrauska
munduak zer du? Hau da kinka!
Goazen etxera andarkoka.

Tra lara lara..

Mutiko gazte eta leiala,
kontseilu onak har zaitzala;
otoi bizian ez zaitzela
sekula mozkor ni bezala.

Tra lara lara..

ARI NAIZELA

Hitzak:: Pedro Jose Elizegi "Pello Errota"/// Jose
Manuel Lujanbio "Txirrita"

Pello Errotak:

Ari naizela, ari naizela,
hor ikusten det Txirrita.
Eta zein ez da harrituko gaur
gizon hori ikusita?
Dударik gabe egina dio
andregaiari bisita:
oso dotore etorri zaigu
bi alkandora jantzita.

Txirritak:

Hauxen da lotsa eman didana
gizon artera sartuta
edozer gauza esaten degu
edan tantokin poztuta;
bi alkandora ekarri ditut,
bat eranztea ahaztuta...
Pellok bi nola jantziko ditu
bat besterikan ez du ta?

ARRAINAK EJER BEGIAK

Intep.: Altzükütarrak

"Arrainak eijer begiaK,
oi neskatala faltsia" (2)
Txorino batek erran zereitan,
biga bostetan egia!
"Biga bostetan egia,
zu etzinela enia". (2)

"Erbia dua lasterrez,
ihizlarien beldurrez; "(2)
Herri huntako neska gaztiak
hurtzen dirade nigarrez,
"hurzen dirade nigarrez,
ezkunt ez direla beldurrez." (2)

"Goiti eta behiti,
banabilazu ni bethi," (2)
Libertitzen ere huneski
ene gazte laguneki
"Ene gazte laguneki,
nahiagorik zurekin!"(2)

Ta ra la ra la la ra – 2 aldiz

ARRATSA MOSKUN

Jatorrizkoa “Podmoskovnye Vechera” Mikhail
Matusovski, Vasily Solovyov-Sedoy

Hitzak: Juan Mari Lekuona /// Interp.: Jose
Antonio Villar

Arratsa Moskun
hotza ta ilun
abesti bat entzun ohi da

“Bihotz tristea
berorik gabea
bere penak negartzen hari da” (2)

Bihotz iluna
ez behar dunak
esperantza du pozgarri

“Zeruan izar
maitasunak dakar
Moskuko gau ilunean argi” (2)

ARRATSALDE HONETAN

SOROETAN BELE

Itxaroten ari gera
arratsalde honetan
zerbait aurkeztekotan
jende honen aurrean.

Hemendik ateratzeko
kanta berri bateon bat
zuek ez aspertzeko
arratsalde honetan
honetan, honetan, honetan...

Laupabost akorde jota
kitar zahar honekin
dantzatzeko doinua
ez dugu besterik.

Bi laguneko koadrila
izerdi patsetan
nahiko izango dira
arratsalde honetan
honetan, honetan, honetan...

Taupadetan dut bihotza
dirua galtzetan
dantza egiteko gogo
daramat zainetan.

Kitar binbolin doinuak
jarraituz badaukat
dibertitzeko gaia
arratsalde honetan
honetan, honetan, honetan...

ARREN EZ BEDI GALDU EUSKERA

Hitzak eta Doinua: J.M. Iparragirre /// Interp:
Gontzal Mendibil

Gure Euskera eder maitea
galtzen gaur degu ikusten,
euskaldun onak harritzeko da
nola ez diran lotsatzen!
Larramendi-rik, Astarloa-rik
ez da gehiago aipatzen...
Ez da hutsegin haundiagorik
ondo badegu pentsatzen.

Galdu dirade ohitura onak,
galdua degu Euskera...
hola bagaude ehun urte barru
galdu da gure izena!
Erro, Aizkibel ziran bezala
erakusterik gaur ez da.
Gure Euskera... ai! galtzen bada
gu... euskaldunak ez gera!

Nola isildu eta barkatu?
Etorkizunen kondairak
arrazoiakin esango digu:
nun dira zuen ohiturak?
Damu dute bai... gaur euskaldunak
lotsa pixka bat dutenak,
aspaldi esan duten bezela
gizonik jakintsuenak.

Dala Parisen eta Londresen
jakintsu asko badira;
euskerazko liburu zaharren
ondoren ibiltzen dira...
Or da Luziano, printzipe ernaia,
orain guretar deguna,
euskerazale bikain bikaina,
jakintsuetan haundi dena.

Arren, ez bada galdu euskera,
nere anaia maiteak!
Galtzen badegu... galduak gera
gu eta gure semeak.
Beti euskaraz hitz egin, bada,
oro zahar eta gazteak,
esan ez dedin denok gerala
euskaldun bihotzgabeak.

ARROSAKO ZOLAN

Hitzak: Aitor Renteria "Txato" /// Doinua: Peio Agorrody"

Arrosako zolan, kantu zirimolan
 Nahiz eta telebixtan ez gaituzten modan
 Euskararen gara, lokarri azkarra,
 Gau ilun honetako gure artizarra
 "Zazpiehun langile, sutsu ta ekilez
 Oraina ta geroa ez ditaizke berez,
 Kontzertu hunen bidez, musika eztiez,
 Euskal izen ta izana, betikotz bat bitez".
 (2)

Koka ta hanburgesa, euskaldun baldresa
 Gustua galtzea ere zer dugun errexal!
 Kendu nahi digute, bihotz ta bertute,
 Izaki klonikoak egin nahi gaituzte.
 "Jo dezagun bada, goraki aldaba
 Multinazional hoi en herria ez gara,
 Bretoi ta kortzikar, kanak okzitandar
 Nor bedera izaiteko har dezagun indar"
 (2)

Munduko herrien ta irrati libre en
 Bilgune goxoa guk dugu urtero hemen
 Uhainen ildoan, asmoak geroan
 Elkarren ezagutza daukagu gogoan.
 "Munduko erronkak, herrien borrokak
 Bildu gara hausteko zapalkuntzen sokak
 Dantza ta irria, kantuz ilargia,
 Gau hontan zoriontsu da Euskal Herria"
 (2)

ASTO GAXUA

**Bihotzeko asto gaxua
 malkos tiraba cuando murió**

Al ikullu ya no vuelve
 mi buen astua, no vuelve no;
 ya no te brinca de poxa
 cuando cabeza tocar alguno;
 arrayua suerte txarra
 con tripakomiñak poner hizo.

**Bihotzeko asto gaxua
 malkos tiraba cuando murió.**

Y agora te hace dos años
 juxtu-juxtuak ayer cumplió
 que las tripakomiñas
 al pobre burro le agarró,
 con su arrantza fuerte
 una noche me despertó.

**Bihotzeko asto gaxua
 malkos tiraba cuando murió**

Levantarme enseguida
 y al ikullu marché yo
 con ojos de bixigu triste
 como hablando mirarme hizo,
 echaba unos suspiriyas
 de muy adentro se le salió.

**Bihotzeko asto gaxua
 malkos tiraba cuando murió**

Estirar luego la pata
 como harrikoskorra se endureció
 y yo con mucha pena
 le dije: asto gaxua adiós.
 Hacer un abujero grande
 Y tierra encima le puse yo.

**"Bihotzeko asto gaxua
 malkos tiraba cuando murió." (2)**

ASTOA IKUSI NUEN

Hitzak eta Doinua: Imanol Urbietia

Astoa ikusi nuen betaurrekoekin,
buruan txapela ta gabardinarekin
ilea luzea eta bibotearekin,
hizketan egon nintzen, atzo berarekin

Astoak esan zidan triste zegoela,
osozatarra zela bere ikastola.
Berak gure gelara etorri nahi zuela,
gure artean ondo konponduko zela.

Baietz ezan nion nik, lasai etortzeko
arkatza eta bloka, dendan erosteko.
Astoa izan arren, trankil egoteko,
asko ikasi eta txintxo portatzeko.

Astoa etorri zen hurrengo goizean,
jantzi polit bat zeukan jantzirik soinean.
Maixuak esan zion, exeri lurrean,
astotxo, ez baitzara kabitzen mahiean

Hondartzarako eguna iritsi zenean
astoa portero ta denak futboleant.
Baloi baten jo zuen astoa buruan,
lurrera etorri zen hiltzeko zorian.

Azkar deitu zioten sendagileari,
bai ta Donostiako anbulantziari.
Orain klinikan dagon asto gaixoari
esan nahi genioke, "lehen bailehen etorri"

ATHENRY-KO ZELAIK

Hitzak: P.ST.John /// Doinua: P.Challet

Kartzela leihotik
neska bat entzun dut nik oihuka
Mikel haizatu dute herritik
artoa ebatsirik doluan barna sarturik
ur artean beha dago kartzela.

**Urrundu dire zelaiaik
xoriaik hegal kolpez ere bai
amodioa hegalpean
kantatuz gure ametsak
bakartasun handian gelditzen naiz.**

Kartzela leihotik
gazte bat entzun dut nik oihuka
othoi ez izan beldur andrea
goseak oldarturik hemen naiz apaldurik
orain haurra haz dezazu bakarrik.

Urrundu...

Itsaso hegitik
azken izarra etzaten da
zeruak estalirik untzia berekin
maitea egin othoitz ta atxik itxaropena
bakartasun handian gelditzen naiz.

"Urrundu..." (2)

ATZO, ATZO, ATZO

Atzo, atzo, atzo,
atzo hil ziren hamar atso.
Baldin ardoa merkatzen ez bada
hilko dirade beste asko.
Atzo, atzo, atzo
atzo hil ziren hamar atso.

Egun, egun, egun
egunez ja hil dira ehun;
baldin ardoa merkatzen ez bada
gauez hilgo dira berrehun,
egun, egun, egun
egunez ja hil dira ehun.

Bihar, bihar, bihar,
bihar hilgo dira beste hamar,
baldin ardoa merkatzen ez bada
hilgo dira berrogeita hamar,
bihar, bihar, bihar
bihar hilgo dira beste hamar.

Etzi, etzi, etzi,
etzi hilgo dira hemeretzi;
baldin ardoa merkatzen ez bada
hilgo dira ehun ta hemeretzi,
etzi, etzi, etzi
etzi hilgo dira hemeretzi.

AURRESKU

“Maitia, pozez agurtzen det zure etorrera,
nere bihotza pil pil aurkitzen da zu ikustean,
zoriontsu eta maiteki,
dantzatuko det agurrik goxo eta ederrena”. (2)

“Murrixkak eta lauarinak,
dira bihotzez zuretzat eginak,
nere oinak nahi lukete,
dantzik ederrena ongi bete,
zuretzat nere maite polit paregabea,
sutagar, maitasunez
natorkizu eskeintzera.” (2)

“Aurresku izan degu beti euskotarren dantza,
gure asaben izatearen erakusgarri.
Dantza garbi, zail, osasun erakusgarri
Bai aupa hita aupa nidanearen ikusgarri.” (2)

“Jantzi txuri, gerriz gorri osto orlegiaren azpian,
gure besoak zabaldurik gurutze txuria egiñaz.
Agur hiri nere aintzinako lagun hori,
agur zuri, agur hari, agur ikusle guztioi.”(2)

AZKEN DANTZA

Hitzak eta Doinua: ManexPagola /// Interp:
Pantxo eta Peio

Uh, uh,.....

Azken, dantza hau,
maitia, zurekin...
Nahi zinduzket
ereman nerekin...
Baina, gaurko xedia
ezin daike betia!...
Badakit, nik ere,
bihar dela joaitia!...
Bego pena hau!
Itzuliren naiz
Bai! Berriz Euskal Herrirat!
Bego urte hau!
Etorriko naiz
betikotz zure ondorat!...

Uh, uh,.....

Azken dantza hau,
ez da sekulako...
Zin egin dut,
zin egin betiko,
hemen, gure lurrean
bizi behar dudala!
Hori ez bada,
hil hotz jar nadila!...
Bego pena hau!
Itzuliren naiz
Bai! Berriz Euskal Herrirat!
Bego urte hau!
Etorriko naiz
betikotz zure ondorat!...

Uh, uh,.....

AZKOITIKO MARTIRIETAN

Hitzak: Juan Mari Beltran Argiñena

Azkoitiko Martirietan,
herri-poza alaietan
Azkoitiko Martirietan
Monttetik etorriko da
dultzainaren doinuetan
Azkoitiko Martirietan,
herri-poza alaietan

Joxe eta Joxemari,
erromeriz erromeri
Joxe eta Joxemari
Hauekin hirugarrena
da Xanti atabalari
Joxe eta Joxemari,
erromeriz erromeri

Dultzainaren hots zorrotza,
dantza doinuen ahotsa
Dultzainaren hots zorrotza
Hark jar ditzala saltoka,
hankak beso ta bihotza
Dultzainaren hots zorrotza,
dantza doinuen ahotsa

AZPEITI(A)

Hitzak eta Doinua: Amaia Garmendia

“Azpeiti(A) da gure herria, da hemen bere berria,” (2)

Urola ibaia, Xoxote mendia, / Loiola daukagu bere aurrean,
Enparan, Antxieta, / Olatz gain gainean,
Sebastianen eleiza/ duelarik erdian.

“Azpeiti(A) da gure herria, da hemen bere berria,” (2)

Andoni katxo zen ekologista, / Leo Etxeberria kondairalaria
Idazlariak Artetxe, Arregi,/ Karmelo Etxegarai, gizon trebeak.

“Azpeiti(A) da gure herria, da hemen bere berria,” (2)

Festa giroz ez gara makalak, / ba gure herri honek ditu ugariak,
Ta nola ez, / gera ta parranda zaliak,
gora Azpeiti, gora Azpeitiarrak.

“Azpeiti(A) da gure herria, da hemen bere berria,” (2)

Imanol Elias ezin guk ahaztu,/ ixilean duta liburua osatu,
Kantaren bitartez bera nahi eskertu, / ba benetan hau da herritar sentitu.

“Azpeiti(A) da gure herria, da hemen bere berria,” (2)

AZPEITIA eta HAZPARNE 1

(1987ko apirilean)

(Airea: *""Xamargarria zira""*)
(Azpeitia-Sebastian Lizaso)

Azpeiti ta Hazparren
Hazparren Azpeiti
elkarren maite minak
genituen senti
anai giro honetan
bagerade beti
zoriona ez degu
izango urruti.

Hazparnek eman zigun
egun bat bikaina
bihotzik goibelena
piztutzeko haina
zuek berdindutzea
zaila zaigu baina
Azpeitik eman nahi du
zor duen ordaina

Egun injustizizko
hainbeste atake
dena usteldu dela
esan genezake
behar genduken haina
zorian da pake
Herrien batasunak
eskura lezake.

Gaur degun zoriona
eta irriparra
ez bedi gerta uraren
gaineko aparra
sendi batean bilduz
hego ta iparra
haundi egin dezagun
Euskadi bakarra.

ELKARTASUN EGUNEKO

ABESTIAK 2

(1987ko apirilean) (Airea: *Agur Xiberoa*)
(Hazparne-Laurent Darraidou)

ERREPIKA

Agur Azpeitia
Mendi-altzo batean, goxoki, bildua.
Eta Zu Hazparne,
Urtsu-pean, zabal-zabalik, hedatua.
Bi herriek dugu
Gaur-egun ospatzen gure parezkatzeta.
Zahar eta gazte, denak adixkide,
Elkarteak barne,
Denek elgarrekin in dezagun bide
Azpeitia, Hazparne!

Zu Gipuzkoan eta zu Lapurdikoa
Bakoitxari agur bat, bihotz barnekoa.
Agur Elizaberri eta Urrestila
Urkoj, Zelai, Labiri-ta Pena,
Larrarte-ta Minotz bai eta Hasketa
Eta zu Loiola.

Agur Azpeitia....

Gure herrietako gazte elkarteak
Zuek, mutil nexkatxa indarrez beteak
Atxik beti bizirik gure ohidurak
Bai Euskara, pilota, kirolak
Zuk, Inaki, lagun zure haurrideak
Euskaldun gazteak!

Agur Azpeitia....

Ez dea denendako bihotz-alexagarri
Bi herri ikustea uztartzen elgarri
Eta gogotik lotzen, betan, sail berari,
Hor dutela Euskara lokarri.
Eskuz-esku, denek beha geroari
Hazparne eta Azpeiti

Agur Azpeitia....

ARO BERRIARI 3

(Airea: *Galerianoren bertsuak*)

(Hazparne-Laurent Darraidou)

Bat Gipuzkoan eta
bertzea Lapurdin
ama beraren seme
euskaldunak berdin
haurridek elgarrekin.
Gaur dugu atsegin
bi herriek dezagun
bihotzez bat egin

Azpeitia eder zinen
pesta'egun hartan
ibili ginen, alai
zure karriketan
zutaz pixka bat jelos
bainan lorietan
euskara lore baitzen
ezpain guzietan.

Laketuak ginauden
iduri etxean
mendi xutek motdatu
zure ohantzean
argia apaldu zen
gu denok biltzean
ta bihotzak tinkatu
zutaik urruntzean.

Kultur, kirola eta
bertze asko talde
eskuz esku, gazteak
ibili zaitezte
eta denetan ager
herriaren aide
euskaldun geldi diton
Azpeiti t'Hazparne

Gure elkartearen
hau da hastapena
gure gaztek bere gain
hartua zutena
zuk Iñaki Loiolan
sortua zarena
haunditzen lagun zazu
gure batasuna.

BADIRA HIRU ASTE

Hitzak eta Doinua: Mikel Urdangarin

Izkin hontatik idazten dizut
azken aldian bezala
egia da bai sasoi honetan
hotza egiten duela
“neska gazte bat ezagutu dut
hiru aste badirela
esango nuke bere begiek
erraz sorgindu nautela” (2)

Azken bidai hau ez duzu izan
etxe ondotik ihesa
nigandik hurrun aurkitu arren
hara itzultzeko ametsa
“zuekin beti oroitzen bainaiz
ahaztu naizenik ez pentsa
sentimenduak esaten baina
ez da hain gauza erreza” (2)

Orain goizean goizik hartzen dut
mendebalderako trena
harrizko zoru ahaztuetan
biderik eta zaharrena
“bizitzak sarri erakusten du
badena eta ez dena
inoiz latz hartu banindu ere
gaur gozo hartu nauena” (2)

Lantzean baina, egun luzeetan
bihotza egoten da triste
agindutako promesa hura
ezin kunplidu nezake
“«loriak udan» kantatzen baitut
inoiz gutxitan ez uste
letrak ez ditut oraindik ahaztu
akordatzten naiz hainbeste” (2)

BAGARE BAGERA

Hitzak: Bittor Kapanaga ///Interp.: Gontzal Mendibil, Xeberri

**“Araban bagare
Gipuzkun bagera
Ziberun bagire
ta Bizkaian bagara” (2)
baita ere Lapurdi ta Nafarran.**

“Guztiok gara euskaldun
guztiok anaiak gara
nahiz eta hitz ezberdinez
bat bera dugu hizkera.”(2)

**“Araban bagare
Gipuzkun bagera
Ziberun bagire
ta Bizkaian bagara” (2)
baita ere Lapurdi ta Nafarran.**

Herri bat dugu osatzen
eta gure zabarkeriz
ez daigun utzi hondatzen.

Bagare, bagera,
bagire, bagara
euskera azkartzeko
oraintxe dugu aukera

“Bagare, bagera
bagire , bagera
Euskadi askatzeko
oraintxe dugu aukera.” (2)

BAI EUSKARARI

Hitzak: Telesforo Monzòn /// Doinua: Pantxo eta Pello

**ETA BAI, ETA BAI
NIK EUSKARARI BAI TA BAI
ETA BAI, ETA BAI
NIK EUSKARARI BAI TA BAI.**

**Uso zuria, uso gorria
dantzan nabil suaren gain
uso gorria, uso zuria
Herriak euskarari bai.
Neure kabia daukat garretan,
neure umeak neure zain,
nago odoletan, garretan,
txinparta gainetan
neure umeak neure zain.**

Uso zuria aurkitu dute,
hotzaz dardaraz erdi hila
uso gorria garretan dago
Euskal Herriaren bila.
Uso zuria lehengoa duzu
uso gorria geroa
Euskal Herritik uso bakar bat
eguzki aldera doa.

Uso zuria, uso gorria...

San Juan loreek usaina dute
eta herriek arima
Euskal Herria euskara barik,
irin gabeko ogia.
Euskal Herria euskara gabe
hegal gabeko usoa,
uso gaztea aidatu hadi,
eta eguzkiraino hoa.

Uso zuria, uso gorria...

**“ETA BAI, ETA BAI
NIK EUSKARARI BAI TA BAI” (3)
ETA BAI, ETA BAI
GUK EUSKARARI BAI TA BAI.**

BAIONATIK BILBORA

Hitzak: K.Izagirre /// Doinua: Imanol Larzabal

*[Badu nora heldu, ez du zeri heldu,
itsaso hutsa da nire herria.]*

Baionatik Bilbora itsaso errea,
putzu honek ez du itoko gure haserrea.

Baionatik Bilboraitsaso petrala,
aspaldi esan zidaten besterik ez zala

Baionatik Bilboraitsaso pobrea,
non du aurkitu behar Euskadik hobia.

Baionatik Bilbora itsaso aingura,
nadila zure albora oraindik ingura.

Baionatik Bilbora itsaso zakarra,
baldin baneki nora kamino bakarra.

Baionatik Bilbora itsaso euskara,
umorea badaukagu ta galduak ez gara.

Baionatik Bilbora itsaso nafarra,
datorkigula behera amets honen afarra.

Baionatik Bilbora hartzen du ekaitzak,
arrokak ongi dakizki txaluparen gaitzak.

Baionatik Bilbora itsaso gorria,
Baionatik Bilbora gure memoria.
Bilbotik Baionara aluba itsasoa,
igeri ez dakiena hondoraino doa

BAKE MINA

Hitzak: Peio Ospital /// Doinua: "La ballade nord
Irlandaise" n oinarritua /// Interp.: Pantxo eta Peio

La, la, la....

Gizadiak maite-mina,
Izadiak arreata-mina,
Etorkinak herri-mina,
Herri hunek bake-mina.

Laborari ta langile,
Sinestedun ta bilatzaile,
Bidez-bide, kalez-kale,
Izan gaiten bakegile.

Zatiketak etsipena,
Elkarketak itxaropena,
Gorrotoak pairamena,
Bakermenak askapena.

Solasbide, elkarbide,
Maitabide ta askabide,
Zuzenbide, bakebide,
Oro dire zorionbide.

La, la, la.... (2)

BALDORBA

Hitzak: J.A. Urbeltz //// Doinua: Benito Lertxundi

Ezkil gabeko elizen
eremu emankorra,
giza murzuriko
zure ardientzat.

Oi Baldorba! Oi Baldorba!
eguzki eta haize idor;
mahats-ardo ibai,
galburuarena.

Lur gorri, harri landu,
mailu eta xixelaren kantu.
Gitarrazko alakiketan
Armeniako kanun ahots urratuan.

Oi Baldorba! Oi Baldorba!
esazu nor zen bidetik
baztertu zintuen madarikatua!

Zure irriño erromanikoa
erdi izoztu eta leloturik
utzi zuen madarikatuaren
izena nahi dut. izena nahi dut.

Oi Baldorba! Oi Baldorba!
ezazu nor zen bidetik
baztertu zintuen madarikatua!

Oi Baldorba! Oi Baldorba!
zutaz oroit eta
zuri nagozu. zuri nagozu.

Kantu bat laburra da eta
pentsa zuk,
esaten ez dizudan hartaz.

Oi Baldorba! Oi Baldorba!
esazu nor zen bidetik
baztertu zintuen
madarikatua.

BALE IHIZI

Interp.: Imuntzo ta Beloki

Ni itsas xoria banitz
iparreko izotz lurretarat
joan nintake hegaldaka
bale itsu gizenen ondotik
Itsasoa harro dago
haizeak oro tzarrean
eta gu ezin kontsola
etxe goxoa gogoan harturik

Zoin asto izan behar den
hala guziz miserian bizi
untzirat iragaiteko
bale bakartiaren hilzaile
Sos poxika baten gatik
zonbat arriskurik ez den
ur untzia uzkeilirik
buztan hasarretuak leherturik

Lana gustokoa zaio
arrantzale gai den gazteari
bainan ikaretan dago
bale basa hurbiltzen denean
Lot lanari, erna gaiten
dio kapitaina jaunak
marinela eri dago
gorputz animak erotik dardaran

Borroka hasten denean
uhain zoroak jauzian gora
aberea zaurituta
odol basa zurrutan dario
Oligo hexur partea
sos guttirekin sanitzat
moltsa arin itzultzen da
gaztea Ziburuko tabernarat.

BALIAREN BERTSOAK

Benito lertxundi

Mila bederatzieun da
lenengo urtean
Maiatzaren amalau
garren egunian
Orioko herriko
barraren aurrian.
Balia agertu zan
beatzik aldian.

Haundia ba zan ere
azkarra ibilian.
Bueltaka han zebilen
juan da etorrian.
Ondarra arrotuaz
murgil igarian.
Zorriak zeuzkan eta
haiek bota nahian.

Ikusi zutenian
hala zebilela
beriala juan ziran
treñeruen bila.
Arpoi ta dinamitak
eta soka bila.
Aguro ekartzeko
etzan jende hila

Bost treñero juan ziran
patroi banarekin.
Mutil bizkor bikain
guztiz onarekin.
Manuel Olaizola
eta Loidirekin.
Uranga, Atxaga ta
Manterolarekin.

Baliak egindako
salto ta marruak
ziran izugarri ta
ikaratzekuak
atzera egin gabe
asko arriskuak
arpoiakin hil zuten
han ziran hangoak.

Bost txalupa jiran da
erdian balia
gizonek egin zuten
bai nahiko pelia.
Ikusi zutenian
hila edo itoa
legorretikan ba zan
biba ta txaloa.

Hamabi metro luze
gerria hamar lodi
Buztan palak lau zabal
albuetan pala bi.
Ezpañetan bizarrak
beste ilera bi
orraziak bezala
ain zeuzkan ederki.

Gorputzez zan mila ta
berreun arrua.
Beste berreun mingain
ta tripa barruak.
Gutxi janez etzegon
batere galdua.
Tiñako sei pesetan
izan zan saldua.

Gertatu bat jarri det
egiaren alde.
Hau horrela ez ba da
jendiari galde.
Bihotzez pozturikan
atsegintsu gaude.
Gora oriotarrak
esan bildur gabe.

BARATZE BAT

Hitzak eta doinua- P.P. Berzaitz

Hau da egün eijerra
mila txoriek kanta
tziauri ene erregina
besoak zuri ditizüt para.

Baratze bat nahi dizüt egin
Amets sekretuenekilan
Liliak egün jauntzi eijerrenetan
“Mila kolorez dantzan bihotzetan”.(2)

Gaü beltz ta sakonetik
Jeikitzen naiz hoztürik
Bihotza hain tristerik
Usu hitaz berantetsitürik.

Baratze bat nahi ...

Karrosa bat hor dugu
Kanpoan gure aiduru
Ez gal aboro denbora
Hiskor beitago amodioa

Baratze bat nahi ...

Maitarzun berriari
ilargiak dü argi
emanen deikü aski
guk elgar maita dezagun beti

“Baratze bat nahi dizüt egin”
(2-polikituz)

BARKU XINPLE BATIAN

Auspoa176 "Ameriketako bertsoak"

Bertso berri batzuek
nai nituzke para,
aditu nai duanik
iñor baldin bada;
legorrez aspertuta
itxasoetara,
irureun lagun guaz
Montevideora.

Barku sinple batian
onenbeste lagun,
ez dakit zer biaje
atera biagun;
kubiertan legorrik ez,
bodegan txit illun,
guretzako gauza onik
etzeguan iñun.

Berrogei egunean
linean igaro,
txit aize gustokuak
jo ginduzen gero;
gure Jaungoikuagandik
degula espero,
ondo allegatuko
gera onezkero.

Barku sinple onetan
irureun persona,
txoruak sinistatu
falsuen esana;
beti abundoso da
urrutiko sona,
jan geiegik ez digu
galdu osasuna.

Bakallo usaiduna
ustela sardiña,
urdaia're zeguan
ill zanian fiña;
ura ere ez naikua,
dena arrak egiña,
urruti botatzen zun
usaia zikiña.

Orra bertso berriak
barkutikan jarri,
aditzera emateko
mundu guztiyari;
abisatzen diotet
bati eta biri,
abiatua damutu
zaiola amaikari.

BASATXORITXU

Interp.: Sakabi eta Egañazpi

Basatxoritxu moko luziak ez jua zerura billa:
aingerutxurik bihar ezker horra hor nire mutila.
Bere musua elurra da ta sua bihotza ta ezpainak
bertan urturik biziko dira nire bularra ta zainak.

Ai, nork leikien urrezko orratza, urre medalla ta katia
urrez hasi ta bukatutzeko haurtxoa honen jantzia!
Larrosatxuak lau orri ditu, krabelintxuak hamabi;
nere mutilla gura duenak eskatu bere amari.

Nere maitetxo zoragarria bizi maite nauzuna
Galarragako lore polita nere begien zoriona
zu zera nere bizitzaldi hau argiz betetzen dezuna
illun guztien alaigarria zu zera nere kuttuna.

Mendi tartian gu bizi gera alaitasunez beterik
baserri txuri alai hortantxe daukagu guk nola bizi.
Mendiko haize ta eguzkiak degu osasun ederra
gaxorik gabe dijoazkigu urteko egun gehienak

Eguzkiak goiz muxu damaio gure etxe politari
orduntxe laister aitatxo doa zelaletara abeslari
zelai soroko ale mardulaz badegu nahiko janari
iturritxotik ur lehiartsuaetxe guztiko edari

Arratsaldien mendi atzian eguzki talo gorria
poliki asko sartua data illundu zaigu guztia
Sukalde txoko-txokuan dago amona maitagarria
bere besoan izar bat dauka gure mutiltxo garbia

Galdetu eta maite gaitula erantzuten digu alai
gu berriz beti apal onduan berarekin jolastu nahi.
“Zeru hoberik mundu honetan nola billa dezakegu?
Jainko maitea bihotz osoaz beti dezagun eskertu.” (2)

BASERRITARRAK GARA GU

Baserritarrak gera gu
ezin gentzake ukatu.
Baserritarrak gera gu
ezin gentzake ukatu.
Baina kaletarrak bezain ongi
Baina kaletarrak bezain ongi
soinua jotzen degu.
soinua jotzen degu.

Kalean dira bi gauza
niri gustatzen zaidanak,
Kalean dira bi gauza
niri gustatzen zaidanak,
ardotxo zuri gozo eta
ardotxo zuri gozo eta
opil koskor bigunak.»
opil koskor bigunak.»

BATASUNA

Hitzak: Telesforo Monzon

**Aupa gizona, jeiki mutil
atzar emazte ta neskati
borrokarako dei eginaz
irrintzi bat dabil.**
**Euskal Herria diagu zai
presoak eta hilak ere bai
abertzale izan ezkeru gaur
gauden denok anai.**

Borrokari luza zaidak eskua
hona hemen nerea zabalik
euskaldunok banan banan hiltzea
otso beltzak ez dik beste nahirik
Euskadiren alde
loturik bagare
goaz borrokara!
Nagusituko bait gare
Gerokoak geroko utzi
Gaur Herriak zio:
«nahi diat bizi»

Aupa gizona...

Otso beltza gauaren gauaz heldu
artzainak zebiltzala kalakan...
goizean goiz, odolez gorrituak,
hamaika ardi hilak belarditan
artzain kalakari, atsoak iduri
har makila eskuan
eta lotu etsaiari
anaien aurka ez habila
otso beltzarentzat atxik makila!

Aupa gizona...

Agur, agur, andere askatasuna
Agur, agur, biharko Euskadi
Iguzkitan dantzatuko gaituzu
errana diot maiteñoari
besoak loturik,
ez dugu pestarik,
nola dantzatuko
biok belaunikaturik?
Lehenik urratu katea,
gero libre izanen dantza egitera!

Aupa gizona...

BATELERA

En un delicioso lago
de verde y frondosa orilla
en una frágil barquilla
una tarde te encontré

**“Suelta el remo batelera
que me altera
tu manera de bogar
suelta el remo
y ven a mis brazos
que no temo naufragar.” (2)**

Amar es muy peligroso
y más orillas de un lago
con paisaje tan hermoso
especial para el amor.

“Suelta el remo...” (2)

Escúchame batelera
y lanza tu risa clara
difícil que no te quiera
con todo mi corazón.

“Suelta el remo...” (2)

Una hermosa batelera
en su bote me llevaba
y al tiempo que ella remaba
yo sentía un no sé qué.

“Suelta el remo...” (2)

BATETIKAN KORROZKA

Hitzak: Andoni Egaña /// Anjel mari Peñagarikano
/// 1986 Bertsolari txapelketa

Andoni Egaña:

Batetikan korrozka
bestetik errena
ohia okupatu du
hori da txarrena,
ez da pinta kabala
honek dakarrena,
kantzontzilorik gabe
ohean barrena
“pixkat gutxio edan
ezazu urrena” (2)

Anjel mari Peñagarikano

Gaur parrandan jo ta ke
hor dabil gizona,
lenen pasilloa jo
ta gero komona,
uste nuen hau zala
nik nere moñona,
laztantzén hasi naiz ta
ez da horren ona,
“mozkorra nator eta
barkatu amona”.(2)

Andoni Egaña

Ez diot txartzat hartu
muxuka hastea,
naiz oraindik ez egon
holako gaztea,
ez da gauza ederra
buru eskastea,
hari tokatu behar
holako trastea
“martiri bihurtu du
bere emaztea”.(2)

Anjel mari Peñagarikano

Nun ibili naizen ni
esan det lenago,
amonaren ondoan
ederki ez nago,
izan ere edan det
horrenbeste ardo,
gutxienez bazitun
hoitazazpi grado,
“bota egin behar det eta
oñala nun dago?”(2)

Andoni Egaña

Ohean sartu zaigu
kolpera onduan,
lapur gaizto ta trakets
hoietxen moduan,
pixa egin ezazu
toki seguruan;
kordea banatzeko
hemen inguruan,
“poltsa beroarekin
joko det buruan”.(2)

Anjel mari Peñagarikano

Poltsa beroarekin
hortxe jo nau danba!
Ni ez naiz lotsatuko
egia esanda,
amonan errezoa
holaxe izan da:
**Requiem est domine
virgo beneranda**
“gehio ez naiz etorriko
amona edanda”.(2)

BAUTISTA BASTERRETXE

Eduardo Mokoroa

Bautista Basterretxe
mutiko pijoa
neri gurdi-ardatza,
neri gurdi-ardatza
ostuta dihoa.
Beltzak eta zuriak
izango dituzu,
neri gurdi-ardatza
neri gurdi-ardatza
emate ez baidazu.

Gurdi-ardatza ezik
itai ta harria.
Besteren behar gabe,
besteren behar gabe
badauzkat nereak,
Sega, poto, labaina,
gainera bostortza,
perian erosia,
perian erosia,
daukat nik zorrotza

Nere idi-pareak
dauzka zintzarriak,
lepotikan zintzilik,
lepotikan zintzilik
koilarez jarriak.
Gainera uztarriak
ta kopetekoak,
ontz urre gorri zaharrez
ontz urre gorri zaharrez
erositakoak.

Zerorrek nahiko gauza
dezula diozu,
baina gurdi-ardatza,
baina gurdi-ardatza
lapurtu didazu.
Ordaindu behar dezu
larrutik ederki,
ardatza ez baidazu,
ardatza ez baidazu
neri ekartzen aurki..

Buru gogorrek badu
berekin kaltea
ez dedan gauza nola,
ez dedan gauza nola
nahi dezu ematea?
Zentzuak galdurikan
arkitzen zerade,
bestela behintzat horla,
beztela behintzat horla
ariko ez zinake..

Gezur ta abar zabiltza,
Bautista tranpean.
Zu bezain gezurtirik,
zu bezain gezurtirik
ez da Euzkal Herrian.
Zure berri dakite
inguruko denak,
gordetzen dituzula
gordetzen dituzula
gauza besterenak.»

BEDATSIAN

Hitzak: R. Idiart /// Doinua: Beñat Sarasola

Bedatsian dirade zühainak loratzen
Udan ekhiarekin bazterrak berotzen
Larrazkenian aldiz egünak llaburtzen
Negian haize hotza hezürretan
sartzen.

***“Ez gal gure odol beroa
Bizi bedi gure Xiberoa.” (2)***

Aspaldian bizi da gure popülia
Zazpi probientzietan oso berexia
Kantore zahar eta jauzi emailia
Xoriñua bezala txülüla joilia.

“Ez gal gure ...” (2)

Jendik erraiten die mündian gisala
Hau bezalako lekü ejerrik ez dela
Bena gure xokua hüsten ari dela
Eta segür hiltzeko pündian girela.

“Ez gal gure ...” (2)

Tristeziaz besterik behar dügü
heben
bizitzeko lotsarik ez dezagün ükhen
Oi Xibero maitia ez zira galdüren
zure semek zütie bihar salbatüren.

“Ez gal gure ...” (2)

BEGIAK PARREZ- PARREZ

La, la, la, la.. (2)

“Begiak parrez-parrez,
bihotza negarrez”, (2)
“halaxe joaten nintzan, maitia,
zugandik, dolorez.” (2)

La, la, la, la..

“Ama zuriak neri,
parian pasata,” (2)
“ez dit agurrik egin, maitia,
burua jirata.” (2)

La, la, la, la..

“Ama zuriak neri
ez agur eiteko,” (2)
“zer palazio dauka, maitia,
zuri emateko?” (2)

La, la, la, la..

“Palazio eder bat
haitzaren gainian,” (2)
ez da euririk sartzen, maitia,
ateri denean; ai, ai, ai.
ez da haizerik sartzen, maitia,
ez dabilenian.

La, la, la, la.. (3)

BEGITARA BEGIRA

Vendetta

Jaitxi zaitez palkutik momentutxo batez
ta hartu lekua ene lagunen artean.
Begiraiguzu denoi zuzen begitara
azalpena ugar zor dizkiguzu ta.
Esaiguzu hizkuntza hau ez dela geurea
herri faltsu bat izan dugula maite.
Geure arteko besarkada ta malkoak
lekuz kanpo sentitzen dituzun horrek.

Begitara begira
begitara begira
lekuz kanpo gaudela esaiguzu
begitara begira
begitara begira
lekuz kanpo gaudela esaiguzu

Zeure palku-kideek entzun ez dezaten
uzkurtu eta esaidazu belarrira
bizi-bizirik dela ez al duzun ikusten
neurea ta neure lagunen herria
Zoritarrez badakit galderen kantu hau
entzungo duen azkena zeu zarela.
Beraz amestuko dut kalean topatu
ta honakoa oihukatuko dizudala

Begitara begira...

Lurretik lorera, loretik bihotzera
legetatik urrun, malkotatik gertu
esaidak lagun, eskutik helduta begitara
herrian zutik jarraituko diagula

Begitara begira...

BEHIN BATIAN LOIOLAN

Hitzak: Indalezio Bizkarrondo "Bilintx" /// Doinua:

Jhon Denver ("Annie's Song") /// Interp.: EGAN

Behin batian, Loiolan,
erromeria zan.
Hantxen ikusi nuen
neskatxa bat plazan
txoria baino ere
Oariñago dantzan.
Hura zen bai polita,
han politik ba zan!

Esan nion desio
senti nuen gisan,
harekin hizketa bat
nahi nuela izan.
Erantzun zidan ezin
atsegin har nezan
adituko zidala
zer nahi nion esan.

Aurkitu ginanian
inor gabe jiran,
koloriak gorritu
arazi zizkidan.
Kontatuko dizuet
guztia segidan,
zer esan nion eta
nola erantzun zidan.

-Dama polita zera
polita guztiz, ai!
bañan halere zaude
oraindik ezkongai.
Ezkon gaitezen biok!
Esan zaidazu bai!
-Ni zurekin ezkondu?
Ni zurekin? jai, jai !

Behin batian, Loiolan ...

BEHIN BETIKO

Hitzak eta Doinua: Imanol Urbieta

Behin betiko, behin betiko
simple bezain tinko,
ez dugu etsiko!
Behin betiko, behin betiko
simple bezain tinko,
EUSKARAZ TA KITTO!

Etxean eta kalean
berdin-berdin jolasean,
eskolan, lanean,
borrokan eta pakean.

Dakitenek erabiliz,
ez dakitenek ikasiz,
herri bat osaturik
euskaraz nahi dugu bizi.

“Hasi etxetik eta kalera,
hasi kaletik eta etxera,
martxan jarri da lege berria:
Euskaraz Euskal Herrian.” (2)

Behin betiko....(osorik)

BERMIOKO PORTUAN

“Bermioko portuan
goixeko ordu bixetan” (2).
Ez da entzuten besterik,
ez da entzuten besterik,
ez da entzuten besterik,
Txo! atrakaizu batela.

**Egixe da, egixe da
neuk ikusiku dalako,
egixe da, egixe da,
neuk ikusikue da.**

“Lau airoplano pasata,
bat itsasora jeusi.” (2)
Ekarri, Sebastianak ekarri,
Sebastianak ekarri,
Sebastianak,
Txo! Artzan enkalleta itzi.

Egixe da, egixe da

“Agoztuen hamabixen
Patxi Bermiora etorri.” (2)
Ekarri katxalotie,
ekarri katxalotie,
ekarri katxalotie,
Puf! Artzan ustelduta itxi.

Egixe da, egixe da

BERTSUAK JARRI DIZKAT

Interp: Amaia Zubiria

Bertsuak jarri dizkat, neure buruari.
Nahigabea badaukat, barrenan ugari,
mutil gustukorikan,
“ez dalako agiri” (2)

Berrogei eta sei urte, egin zaizkit pasatu.
Eta azala berriz, pixka bat ximurtu,
neska zahartuko ote naizen,
“egin naiz bildurtu” (2)

Oraindiokan ez nago mirabe baldana.
Kupirarikan gabe, egiten det lana,
ezta gaizki izango,
“ni hartzen nauena” (2)

Gazterik ikasi nuen, plantxan eta josten.
Honela saiatuta dirua sobratzen,
senartxo bat besterikan,
“ez det desiratzen” (2)

Gazterik banituzte, nik zazpi nobiyo.
Batekin ere ez nintzen, ezkontzeko piyo,
orain damututziak,
“ez digu baliyo” (2)

Neskatxa ederra nagola, iduritutzentzat.
Zazpi arropa ta erdi, badaduzkat behintzat,
ai zer berogarria,
“mutil zahar batentzat” (2)

Mutil zaharrikan ez bada, betor alarguna.
Ez da errex egiten, gustoko fortuna,
nolabaite nahi nuke,
“oyerako launa” (2)

Hamar mila errial, badaukat dotia.
Beste bost mila berriz, etxeko partia,
ni hartutzen nauenak,
“ai ai ze suertia” (2)

Hartzerikan ez nuke nahi, gaizto ta nagirik.
Eta hain gutxi berriz, mozkor la ordirik,
txarra izatekotan,
“hobe det bakarrik” (2)

BIDE LUZEA TERNUARAT

Interp: TADUSA

Kontxatik doa untzia,
han konpainia guzia,
Ternuarat badoazi
zerbait nahiz irabazi.

Bide luze Ternuarat,
itsasoa zabal harat,
zubirik ez pasatzeko,
marinelen salbatzeko.

Itsasoaren gainean,
untzi tzar baten menean,
marinelak arriskuan
Herioaren eskuan.

Haize largoz badoazi,
zabalerat irabazi
itsasoan barna urrun,
begiz ezin ikus Larrun.

Han jotzen ditu kontristak
mendebal haize tenpestak
denbora gaiztoa sartzen,
gabiko biak erortzen.

Zeru guzia isuri,
babazuza eta euri,
marinelak trenpatuak,
hotz handiak arrolduak

Bela guziak harturik,
belatxoa anekaturik,
untzia badoa segiz
itsasoa handiegiz.

Gau beltzean ilunbean
untzia tormentapean,
aparilua desegin,
ilunez deus ezin egin.

Elementak badarontsa,
itsasoak abarrotsa,
haize tenpesta uxia da
itsasoan maskarada.

Marinelak harrituak
tronpen jotzen unatuak,
gabetu indar guziez
etsitu bere biziez.

Ura kanaren furia
ifernuko iduria,
Satan beltzak darabila
untzien galtzen dabila.

Uhainek untzia joka,
gora-behera saltoka,
eta branka pulunpaka,
kostadua arrolaka.

Uhin baten bizkarrean
bi uhinen hondarrean
tirabira darabila,
untziak agertzen gila.

Bere mastak galdu ditu,
untzia motz da gelditu,
itsasoak hautsi lema,
trebes galtzerat darama.

Uhin hautsiak gainetik
iragaten trebesetik,
marinelak erorika
untzi askan igerika.

Gaineko zubia hautsi,
ura tilaperat jautsi,
tilapean ura gora,
untzia doa hondora.

Marinelak biluziak,
luzatu nahiz biziak,
uhinpean igerika
untzi puskei atxikika.

Marinelaren bentura
itsasoan sepultura,
sekulako bere fina,
etxerako berriz mina.

BIHOTZ ERITUA

“Triste bizi naiz eta”

Indalezio Bizkarrondo “Bilintx”

Triste bizi naiz eta
hilko banitz hobe,
badaukat bihotzian
hainbat atsekabe.
Dama bat maitatzen det
bainan haren jabe
sekulan izateko
esperantzik gabe.

Nere maite polita
nola zera bizi?
zazpi egun hauetan
etzaitut ikusi.
Uste det zabiltzala
nigandik ihesi
ez didazu ematen
atsekabe gutxi.

Nere bihotz gaixua
penatua dago,
ezin egon liteke
ai! Penatuago.
Pasatzen ditudala
aspaldian nago
egunak triste eta
gauak tristiago

Bihotz baten lekuan
mila banituzke
guztiak zuretzako
izango lirake.
Baina milan lekuan
bat bestetik ez det
har zazu ba maitia
bat hau mila bider.

Ezin bizi zu gabe,
hau amoriua!
Logratzen ez bazaitut,
zer martiriua!
“Ez badezu desio
nere eriuu, zure
gan arkitzen da
erremediua”. (2)

BIHOTZA

Hitzak: Federico Krutwig /// Doinua: Xabier Lete

Munduak gezurra
diotsu, bihotza.
Gezurra
bere argi indarrez,
negarretan miña iñork ez du aditzen,
bihotza,
ez du aditzen.

Dadukazun miña
ixilik negar zazu
munduak
haundituko du ta,
iñork ere lagun etzaitu egingo,
iñori
ezer ez esan.

Zoriak behin zutaz,
parre egin nahi baleza,
eragotz,
eragotzi eiozu,
barruko penak hil,
ezpainetan parrea kanpora,
kanpora, kanpora,
ipini ezazu.

Jainko gorde hoiek,
etzaitzuet gurtzen nik,
zuek ere
hilkorrak zerate,
“eta ezerezera, ziurki zoazte,
ezer ez bai zerate”.(2)

BIOK EZAGUTZEAN

Hitzak eta Doinua: Jose Maria Altuna (Azpeitia
1928-2002)

Interp.: UNAI bikoa 1969
(M.J. Arregi eta M. K. Otaegi)

“Biok ezagutzean
sortu zan maitasuna
elkar hazteak
ez dezala hil.” (2)

“Zinez dagigun itzalik
Gabeko egun batean.” (2)

La, la, la.....

“Iñoiz bakardadeak
ez zaitu izutuko
iragana berriz
ahaztuko da.” (2)

“Aldapan gora elkarren
Eskuak estutuaz.” (2)

La, la, la.....

BIZI ZAITEZ BIZI

Angel Larrañaga /// KUPELA

Nolakoa zaitugun, bizitza, bizitza!,
guztioz ondo nahita, xeble gabilta
ezin dugu aurkitu neurriaren giltza
bizioak hartu du gure nagusitza.

***Bizi zaitetz bizi, ahalikan ondoen
inork ez bait dakigu, bihar zer dagoen***

Nibel altuen bila, burua nekatzen
sarritan loa galduz, ta madarikatzen
moda bedekatuak ez digu barkatzen
geuk ez al degu sarri, dena konplikatzan.

***Bizi zaitetz bizi, ahalikan ondoen
inork ez bait dakigu, bihar zer dagoen***

Zirikatzan bait gaitu, diru edo famak
hor ere zoriontsu, ez ditugu danak
konponbide zaila du horren panoramak
gehiena falta baitu gehiena daukanak.

***Bizi zaitetz bizi, ahalikan ondoen
inork ez bait dakigu, bihar zer dagoen***

Batek nahi duen eran, zaila da jolastan
tentazioak ez du bizitza errazten
ase-ezina ez da, inoiz aberastan
konformatzen ez badu, noizbaiten ikasten.

***Bizi zaitetz bizi, ahalikan ondoen
inork ez bait dakigu, bihar zer dagoen***

***Bizi zaitetz bizi, ahalikan ondoen
inork ez bait dakigu, bihar zer dagoen (2)***

BIZITZA KANTU BAT DA

Imanol Urbietta

**Bizitza kantu bat da,
guretzat hain justu
neska mutilak hori
dago gure esku.
Kantari eskolara,
kantari jolastu,
kantari lotaratu,
kantari amestu,
“kantatzen ez duenak
zorionik ez du.” (2)**

Bizitza kantu bat...

Behin betiko, behin betiko
sinple bezain tinko,
ez dugu etsiko!
Behin betiko, behin betiko
sinple bezain tinko,
EUSKARAZ ETA KITTO!

Etxean eta kalean
berdin-berdin jolasean,
eskolan, lanean,
borrokan eta pakean.
Dakitenek erabiliz,
ez dakitenek ikasiz,
herri bat osaturik
euskaraz nahi dugu bizi.

Hasi etxetik eta kalera,
hasi kaletik eta etxera,
martxan jarri da lege berria:
Euskaraz Euskal Herrian.

Behin betiko...(osorik)

BIZKAI GIPUZKOA ETA XÜBERO

Hitzak eta Doinua:
Pierre Bordazarre "Etxahun-Iruri"

Goxo da bizitzia Xibero gañian
Mendi horien artian trankilitatian
Hargatik aithortzen dit mügaz bestaldian
Badirela xokho hunak itxas bazterrian
Kantatzera banua huk pentsamentian

**Hondarrabia ta Donostia
ere bai Bilbao
Eskual Herrian eder zidie
hain pare gabeko
Ene bihotza hartü düzie
osorik bethiko
"Ziek egin batzarri ederra
ez dit ahatzeko" (2)**

Monte Igeldotik zit agur Donostia
denen artian zira arrosa lilia
Kontxaren üngürian bibil da herria
bere mila kolorekin espantagarria
Ta herrotik Eskualdün da hanko jentia

Hondarrabia ta Donostia...

Kunserba zitzaiera zelüko Jinkuak
Bizkai ta Gipuzkoako probintzia goxuak
Ingana zitzaiera luzaz itxasuak
Guretako begiratüz bethi ber amodiua
Zirekilan beikira oso Xiberua

Hondarrabia ta Donostia..

BIZKAIA MAITE

Hitzak: J.A. Irigarai /// Doinua: Benito Lertxundi

**Bizkaia maite, atzo goizean ikusi zintudan
soineko xuriz jantzia, buruan orlegi, bihotzean sua**

Nere gogoaren ertzatik pasatzen.
zure usain gozoa, lana, amodioa, itsasoa,
nere baitan sartzen.

Atzo goizean entzun nuen zure berbaren oihartzuna,
zure kantaren fereka, bihotzean kilika
eta ohiartzunaren, haunditasunean,
murgilduz, joan nintzen, jausika, hegaka.

Bart arratsean, arbasoen baratzaren ondoan,
bertsotan eta dantzan, lotu zinen alai,
piper eta gatza, sabel emankor.

**Bizkaia maite, atzo goizean ikusi zintudan
soineko xuriz jantzia, buruan orlegi, bihotzean sua**

Olerkari penatuaren gozo eta mina
amodio eta kanta, zure berba leun,
zure gatzaren bizia,
zure burdinaren goria dira gaur
neretzat aterbe.

**Bizkaia maite, atzo goizean ikusi zintudan
soineko xuriz jantzia, buruan orlegi, bihotzean sua**
lirain, sendo, eder.

BIZKAIKO TXERRIARI

Hitzak: Jose M^a Segurola Otaegi "Uztarri" ///
Auspoa 95-96/// Interp.: BERTSO ZAHARRAK

Antton Valverde

Motibo bat nigana
dago etorria,
esplikatuko banu
txit parregarria:
Bizkaia'n egin dute
prueba berria
kutxillorikan gabe
iltzeko txerria;
erakutsi diote
istillu gorria.

Bi familiak zuten
nolabait azia,
erdi bana jateko
kendu nai bizia;
abillak egundaño
beti malezia,
lau lagunen artian
zer agurezia,
beintzat eskapatzeko
izan du grazia

Fameli ori nor dan
nai dezute jakin?
Bi gizon eta bi andra
beren izenekin:
gizona bat Pepetxo
ta bestia Antolin,
emakumeak berriz
Ana eta Katalin;
laurak ere bazuten
naikua zer egin.

Mazuarekiñ jo du
Pepetxok buruan,
txerria gelditu zan
illaren moduan;
erretzen para zuten lastuaren suan,
polañak jaso ditu
sutu dan orduan,
diabruak arturik
igasi da juan.

Bizkarra erreta ta
golpia buruan,
Jaungoikoak badaki
zer ikusi duan;
eriuia-igasi
bere enpeñuan,
kamiñuen azpian
sartu zan kañuan,
gero billatu dute
gurrinka-soñuan.

Txerri ori zegoan
barrunen sarturik,
gorde-leku polit bat
beretzat arturik;
billatu zutenian
kontentuz beterik:
«Len bezela eztauka
igesi juaterik!»
Ustez ipiñi zuten aseguraturik.

«Zuek, emakumiak,
emen egin kargu,
abiatzen danian
gogotikan eldu;
guk beste aldetikan
zaituko degu,
len bezela lastua
sutuko diogu,
azariaren gisan
aterako degu.»

Azaria bezela
sutu dutenian,
atsuak bota ditu
kañu-baztarrian;
mokadurik etzeukan artzeko lurrian,
asko korritua da,
ez dago urrian,
pakea eman digu
Bizkai'ko lurrian.

Garizuma santua izanagatikan
ez daukate pekatu
egin bildurrikan;
auzotik ez badator erregalorikan,
iñolan ezin ausi
bijiliarikan;
aurten ez dute oiek
bula bearrikan.

Artorik apenas du
etxian ikusi,
egunian bi aldiz
asunak egosi;
beste aziorikan
etzuten merezi,
argala dan medioz
juan da igasi,
urrengoan obeto
gizendu ta azi.

Orra amasei bertso
bizkaitar oieri,
motibo orrentzako
ez dira geiegi;
iñork jakiñ nai badu
kausa orren berri,
zein lekutan pasa dan komedia ori,
galdetu Azpeiti'ko
uztargilleari



BOGA BOGA MARIÑELA

“Boga boga mariñela, mariñela
joan behar degu urrutira, urrutira
Bai Indietara bai Indietara” (2)

“Ez det, ez det, ez det, nik ikusiko
zure kai ederra, kai ederra
Agur, agur, agur,
Ondarroako
itsas, itxaso bazterra,
itsas, itxaso bazterra» (2)

Mariñela boga... Mariñela.

BONETA TA TXAPELA

Hitzak: Louis Ligetx

Iragan egun batez egin dugu irri,
hortaz nahi deiziet eman zerbait berri:
Parisetik jin zaiku bidajez Phetiri,
urthe bakotx fortuna eginik uduri.

Agur, eta zertan hiz, Phetiri gaizua?
Ene haur denborako khantuko aixua!
Iragan duk orduko denbora gozua,
Eta hi aberastu, espehiz zozua!

Parisetik horra nuk zien ikhustera
Han untsa bizi gutuk, adixkide Pierra
Hiaurrek ikhusten duk egin diat aphaera
txapela ezarri diat burutik behera.

Txapela baduk bena arhin barnekura
Nun utzi duk boneta uxkal-herrikua.
txapel horrek eztereik edertzen kaskela
Basta ederragatik, asto duk astua.

Eztiak ez axolik lai duen batere!
Han ezagutzen diat hanixko andere!
Itxurari so-ginez aberats bai ere
Eskunturen ahal nuk, ez erran deus ere.

Arren, baduk ideia hala eskuntzeko?
Lagun franko badukek hortan segitzeko.
Ofizio bat balit Parisen hartzeko
Aberats izan gabe, ahuer bizitzeko!

CANCIONES BONITAS

Hitzak: Sasiain "Bardo de Tolosa" 1902-Otsaila-13 ///

Doinua: Salustiano Balza

Canciones bonitas *nahi nituzte jarri*,
para los carnavales *entretene-garri*.
Riñendo estuvieron *senar emazte bi*,
"diciendo disparates *batak besteari*." (2)

La esposa decía *senarragatikan*,
no le puede sacar *ardotegitikan*.
Se pone caliente *napar beltzetikan*,
"no le gusta remojarse *iturrikotikan*." (2)

Que habladora eres *emazte neria*,
como si no supieras *aukera bidea*;
con cacho longaniza *arrautza paria*,
"para mi caldo de ajo *olio gabia*." (2)

Del café suele venir *goizian-goiz aldera*,
con su íntimo amigo *kaliak neurtzera*.
A lo mejor se cae *ezkillatan behera*,
"como a una criatura *sartzen det ohera*." (2)

Tu tienes muchas quejas *gizonagatikan*
para mentir no tienes *batere lotzikan*
Ya no puedes andar *askotan zutikan*
"porque tocas corneta *txarro motzetikan*" (2)

Poca diferencia *degu alkarrekin*,
cuando tenemos con que *guri-guri egin*;
siempre enfadaremos *ez izanarekin*,
"no venir con el palo *erdi ausiyarekin*". (2).

CASITA DE PAPEL

Francisco Codoñer Pascual "J. Lito"

Encima las montañas tengo un nido
que nunca ha visto nadie como es,
está tan cerca el cielo que parece,
que ha sido construido dentro de él.

Encima las montañas viviremos,
el día que tú aprendas a querer,
y así podrás saber cómo es el cielo
viviendo en mi casita de papel.

**¡Qué felices seremos los dos,
y qué dulces los besos serán!
pasaremos la noche en la luna,
viviendo en mi casita de papel.**

**¡Qué felices seremos los dos,
y qué dulces los besos serán!
pasaremos la noche en la luna,
viviendo en mi casita de papel,
viviendo en mi casita de papel,
Viviendo en mi casita de papel**

Viviendo en mi casita de papel

Viviendo en mi casita de papel

De papel... de papel

CIELITO LINDO

Quirino Mendoza y Cortés

Ese lunar que tienes
cielito lindo junto a la boca
no se lo des a nadie
cielito lindo, que a mí me toca.

**Ay, ay, ay, ay,
canta y no llores
porque cantando se alegran
cielito lindo los corazones.**

Una flecha en el aire
cielito lindo tiró Cupido
él la tiró jugando
cielito lindo y a mí me ha herido

Ay, ay, ay, ay,

Pájaro que abandona,
cielito lindo, su primer nido,
si lo encuentra ocupado,
cielito lindo, bien merecido.

Ay, ay, ay, ay,

COMPOSTELAKO ERROMESA

Tapia eta Leturia

“Compostelan egon nintzen
Lehen go udan erromes” (2)
Noizbait iritsiko nintzen
Joan izan banintz oinez

Trun la run....

“Arribatu nintzeneko
zain neukan Maruxiña” (2)
A zer serora pareta
Bera ta lehengusina!

Trun la run....

“Lagun biak hasi ziren
Gora Euskadi oihuka” (2)
Ni Biba Galizia Ceibe
Malkoak ezin xuka

Trun la run....

“Matxinada zabaldu zen
Tabernarik taberna”(2)
Fraga eta bere fragatak
Beldurtzeko galerna!

Trun la run....

“Santuari ez nion nik
Ez kaixo ez adio:” (2)
Compostelaraino gabe
Astiarran Santio!

Trun la run....

“Nahiz gaita jotzen ez jakin
Sentitzen naiz gallego” (2)
Herritasuna noiz behinka
Aldatzerik balego!

Trun la run..

CORAZON CORAZON

**Corazón, corazón,
no me quieras matar corazón (2)**

Es inútil dejar de quererte,
ya no puedo vivir sin tu amor
no me digas que voy a perderte
no me quieras matar corazón.

Yo que diera por no recordarte
yo que diera por no ser de ti
pero el día que te dije te quiero
te di mi cariño y no supe de mí.

**Corazón, corazón,
no me quieras matar corazón (2)**

Si has pensado dejar mi cariño,
recuerda el camino dónde te encontré
si has pensado cambiar tu destino
recuerda un poquito quién te hizo mujer
si después de sentir tu pasado
me miras de frente y me dices adiós
te diré con el alma en la mano
que puedes quedarte porque yo me voy.

**Corazón, corazón,
no me quieras matar corazón (2)**

DAMA GAZTE

XARMANT BAT

Hitzak eta doinua: Tipi Urruñakoa ///

Interp : Benito Lertxundi

Dama gazte xarmant bat jiten zaut bixtara,
Iduritzen baitzeraut zeruko izarra!
Ama batek hazteko, hori zerbait bada
Gure salbatzaileak kontserba dezala!
Trala tralara tralara, kontserba dezala!

“Gabon gizon gaztea, konpañiarekin!
Gostu du egotia ixtant bat zurekin
Badakizu mintzatzen errespetuarekin,
Jainkoak har zitzala hil-ondoan berekin!”
Trala tralara tralara, hil-ondoan berekin!

“Ene maite pollita non ote den bizi,
Bazinakikea zuk haren zerbait berri?
Aspaldi ikustera joan nahia bethi...
errozu ene partez, milaka goraintzi.”
Trala tralara tralara, milaka goraintzi.

“Ez zinuke ia hobe zauhaurrek joaitea,
Nitaz igorri gabe komisioneak?
Samurturen ote den ez zaitela fida;
Zatoz enekin eta, biak joanen gira.”
Trala tralara tralara, biak joanen gira.

DE CAP TÀ L'IMMORTÈLA

Occitània

*Kanta hau Occitaniako NADAU folk
musika taldearen abestirik famatuena da.
Askatasunari eta herriarekiko maitasuna
adierazten duen ereserkia.
(L'immortèla= elurlorea)*

Sèi un país e ua flor,
E ua fl or, e ua flor,
Que l'aperam la de l'amor,
La de l'amor, la de l'amor,

**Haut, Peiròt, vam caminar, vam
caminar,
De cap tà l'immortèla,
Haut, Peiròt, vam caminar, vam
caminar,
Lo país vam cercar.**

Au som deu malh, que i a ua lutz,
Que i a ua lutz, que i a ua lutz,
Qu'i cau guardar los uelhs dessús,
Los uelhs dessús, los uelhs dessús,

Haut, Peiròt, vam caminar...

Que'ns cau traucar tot lo segàs,
Tot lo segàs, tot lo segàs,
Tà ns'arrapar, sonque las mans,
Sonque las mans, sonque las mans,

Haut, Peiròt, vam caminar...

Lhèu veiram pas jamei la fin,
Jamei la fi n, jamei la fin,
La libertat qu'ei lo camin,
Qu'ei lo camin, qu'ei lo camin,

Haut, Peiròt, vam caminar...


Après lo malh, un aute malh,
Un aute malh, un aute malh,
Après la lutz, ua auta lutz,
Ua auta lutz, ua auta lutz...

Haut, Peiròt, vam caminar...

DE COLORES

De colores,
De colores se visten los campos en la primavera.
De colores,
De colores son los pajaritos que vienen de afuera.
De colores,
De colores es el arco iris que vemos lucir.
“y por eso los grandes amores de muchos colores
me gustan a mi.” (2)

Canta el gallo,
Canta el gallo con el quiri, quiri, quiri, quiri, qui,
La gallina,
La gallina con el cara, cara, cara, cara, cara,
Los polluelos,
Los polluelos con el pio, pio, con el pio, pi
“y por eso los grandes amores de muchos colores
me gustan a mi.”(2)



DE TREVILLEN AZKEN

HITZAK

Hitzak eta Doinua: Pierre Bordazarre
 "Etxahun-Iruri"

Herio latza hüllantzen ari hiz
 Dolürik gabe orai nitarat
 Othoitzen hait ixtant bat ützi nezak
 Ene azken adiuén egitera

Hori bera da denén ixtoria
Heriuak bardintzen handi txipiak
Zeren ilüsióne bat bera da
Lürren gañeko gure pasajia

Ene jauregi pare gabekua
 Hi altxatüz banian fiertate
 Hitan igaran, denbora goxua
 Haiñ llabür nükila ez nian uste

Hori bera da denén ...
 O Basabürü amiagarria
 Bortüz eta mendiz üngüxatürük
 Bostetan begixtatü zütiet
 Ürgüllürekin terraza huntarik

Hori bera da denén ...
 Adios arren Marie-Maidalena
 Zük ingana nezazü lotarik
 Ene ondótik baratzen direnez
 Izan ez nadiala ahatzerik

Hori bera da denén ...

DIN DON DIN DON

Hitzak eta Doinua: C.M.Alberdi ///

"Exkerra anaiak"

Din don, din don, din don
orain hameikak
din don, din don, din don
laster hamabixek.
Dun! Jo dik ordu bata
din don ordu bixek
holako erlojurik
ez zaukek Azpeitixek.

Mi tío procurador
 mi padre alkate
 mis hermanas maestras
 conmigo cástate.
 Ai! Mírame, gaxua!
 Erantzun zazute
 zertarako hoiekin
 ezkontzen zerate?

Din don, din don, din, don...

Mi aittitte relojero
 mi tía jostune
 mi hermano mixionero
 conmigo cástate.
 Ai! Mírame, gaxua!
 Erantzun zazute
 zertarako hoiekin
 ezkontzen zerate?

Din don, din don, din, don...

Gipuzkoa erdian
 Izarraitz menpian
 Urola barrenian
 Azkoitiko herrian.
 Ai! Mírame, gaxua!
 Erantzun zazute
 zertarako hoiekin
 ezkontzen zerate?

Din don, din don, din don

DONOSTIAKO HIRU DAMATXO

“Donostiako hiru damatxo
Erreterian dendari.” (2)

Josten ere badakite,
baina ardoa edaten hobeki.

Eta kriskitin, kraskitin;
arrosa krabelin,
ardo edaten hobeki

“Donostiako Gaztelupeko
sagardoaren goxua.” (2)

Hantxen edaten ari nintzala
hautsi zitzaidan basua.

Eta kriskitin, kraskitin
arrosa krabelin,
basua kristalezkua.

“Donostiako hiru damatxo
Erreteriko kalean.” (2)

egunez oso triste ibili,
baina dantzatu gauean.

Eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
baina dantzatu gauean.

“Donostiako hiru damatxok
e(g)in omen dute apustu.” (2)
Zeinek ardo gehiago edanda,
zein gutxiago mozkortu.

Eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
zein gutxiago mozkortu

“Donostiako hiru damatxo
hirurak gona gorriak.” (2)
Sartutzen dira tabernara ta
irtetzen dira hordiak
eta kriskitin, kraskitin
arrosa krabelin,
irtetzen dira hordiak.

“Donostiako neskatzatxoak
mandatuen aitzakian” (2)
mutilarekin egoten dira
kalean jolaskerian.
Eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
pozez algara haundian.

DOTZENA BAT BERTSO BERRI

Hitzak:: Juan Frantzisko Petriarena “Xenpelar”/// Auspoa 88-89-90

Dotzena bat bertso berri gaztien kontsolagarri
nere mingaña sano dan arte, nahi nituzke jarri.

Begiratuaz alkarri, andrerik ezin ekarri,
mutil zarraren despeida zer dan esango det sarri.

Egon zaitezte aditzen zartuta nola gabiltzen,
gazte dan arte ezkondu gabe errez da gelditzen.

Ajiak zaizkit berritzen eta indarrak urritzen,
orain jarri naiz soldata gabe anaia xerbitzen.

Iñork nahi badu ikusi nere bertsuak ikasi,
nekia frango esker gaiztua alimentu gutxi.

Anaia daukat nagusi indarrak juanak igesi,
hontaz aurrera, hoién mendian, beharko det bizi.

Hezurak zaizkit gogortu, belarriak oso gortu,
modu horretan mutil zarraren, inbíríai nork du
Andrerik ez nuen hartu, oraiñ anparo behartu,
fraile naitare ezin ninteke, komentuan sartu.

Koñatak nauka arrotza, ua hemendik urruntza,
lana eginda esker gaixtua alimentu otza.
Soldata gabe morrontza, begiratu zorrotza,
animosua ez daga mutil, zarraren bihotza.

Lenago erromerian, dama gaztien erdian,
jira ta buelta ibiltzen nintzan fanfarroikerian.
Orain trixtura begian nago estadu larrian,
pipa bat hartu ortzian eta suaren guardian.

Mutilla bere zarrian neskatxekin indarrian,
egun guztiak hoi en pardelak nere bizkarrian.
Gero ilunabarrian istimazio txarrian,
ibiltzen naute soiñeko galtzak kendu beharrean.

Mutil zarraren pobreza iñork ikusi nahi eza,
eskarmetua duenik bada kontsidera beza.
Hauxen da nere bajeza nork izango ez du pereza,
ílobentzako utzi beharra bere interesa.



EGUN BATEZ

Benito Lertxundi

Egun batez,
autatua izatearen
zirrara ezin gordea nialarik,
ene belarrietan
oihartzun bat hintzena
aurrez aurre
ezagutzeko aukera nian.

Hantxe hintzen
luze ibili denaren
jakindurizko keinuez
gabardinarene doai estetikoak
deusezten, deusezten.

Nik, oihal xurizko ator batekin
idurikatu hintudan
eta, arpa baten beharra ere
sumatu nian hire eskuetan.

Hire iturri hitz jarioa
sakoneraino busti ninduen
apirileko euria huen,
apirileko euria huen.

Aidean idatzi nahirik bezala
araudi sendoz, lerro lerro
hitzak antzez dantza batean
lotu zirenean,
gure arrazaren ohizko errepika
biluztua ikusi nian
gure arrazaren ohizko errepika
biluztua ikusi nian ballet batean.

Gero zaldia hartuz
kondairan barna
zalapartaka abiatu hintzen.
Luze luze ibiliz gero,
altzairuzko bidea egitean,
zaldia eromenean begiak
galdutako suminduran
zaldia begiak galdutako
suminduran bilakatu zitzain.

Zaldi kateztatuaren nekea
gaurkotasunez margotzen ari hintzen
eta ni hire cocktail gazi gez aberatsez
mozkortzen eta mozkortzen,
lanbro fin batek bere baitan
hartu banindu bezala
irtetzen, irtetzen, irtetzen;
hire itzalarekin
ator bat egin nian.



EGUN DA SANTIMAMIÑA

Hitzak: Gabriel Aresti

**Egun da Santi Mamiña
benetan egun samina.
Goiko zeruan gorde dezala
luzaro neure anima.**

Esanen dizut egia,
hau ez da usategia
erroi artean izan nintzaden
benetan ausategia.

Egun da Santi ...

Itsas aldean izarra
ari begira lizarra
euskera salbo ikusi arte
eztut kenduko bizarra

Egun da Santi ...

Kantatu zuen oilarrak
argitzen dira belarrak
Ageda gure martiriari
moztu zizkaten bularrak.

Egun da Santi ...

Bularrak moztu zizkaten eta
Euskalerrak diotsa
solomo luze dultzerik gabe
eman zaidazu bihotza.

Egun da Santi ...

Eman zaidazu bihotza eta
ken berriz nahigabeak
esan noiz garen izanen gure
etorkizunen jabeak.

Egun da Santi ...

EGUN ON

Gozategi

La..la...la..la

Suak urari muxuak ematen zizkion atalaietan
baina maitasun urruna dena da lurruna su ezpainetan

Gaua zabala ta laua argi izpi bat da gogoen zubi
goian ilaren argia zaindari bakarra gauean zuri.

**“Egunon! Hau egun ederra,
euria ari du, baina ederra da,
plazetan, putzutik putzura,
saltoka doazen ero batzuk gara.” (2)**

Mendi guzietan gairi doa oihu baten oihartzunean
azken kantu baten hitza entzungabekoa behar zenean.

Kanta suari txinparta piztuko bazaio kanta neguan
ura malkoen modura zerutik lurrera datorrenean.

“Egunon! Hau egun ederra,..” (2)

La..la...la..la..

EGUNSENTI HURA

Hitzak:: Peio Ospital /// Doinua: H. Françoise Budet /// Interp.: Bertsioa: Peio eta Pantxoa

**Egunsenti hura,
laster altxa dadila,
lur gainera.**

Zango-azpiak larrutuak ta gorputzak ezinduak,
beilariak joko dute Askatasunaren lurra,
itsasoan hondaturik galdutako marinelak,
fortunazko ontzietan sartuko dira kaiera?

Nahigabearen zerga ordaindu duten anaiak,
zorionaren tabernan berak mozkortuko dira!
indar guziz dardaraka ematzarraren gorputzak,
lehen aldikoz gozatuko maitasunaren ikara!.

Egunsenti hura....

Gure egun astek kolore galduak jauntzi eta,
biziko urratsek betiko uda ezagutuko
malkoz hazitako gure izaitearen loreak
bere usain gozoa du bazterretan zabalduko.

Laborari ezinduen esku gogor higatuek
ereindako haziaren fruitua berek bilduko,
langileek alkartuta lan tresnetaz jabetuak
lantegien hotsa dute kantu bilakaraziko.

Egunsenti hura....

Gurutzearen bidean landatutako hobiak,
ondokoentzat baitute bide ona urratuko,
etxera itzuli eta desterruan diren haiek,
gure esku alkartuez dugu ikurriña josiko!

Urrutira entzuten da goiz-ainhararen kantua...
goiz argiko lehen suak gorritzen mendiartera..
itsaso barnetik sortzen ur-oldeen haserrea..
uzkailtzeko zorioan da zapaltzaileen ontzia!

**Egunsenti hura,
laster altxa dadila,
lur gainera.**

EGUNSENTIA

Benito Lertxundi

Eguzkien argia
leihopetik sartzean
poz ta alaitasunez
esnatuko gera;
txorien abestiekin
alaitutako eguna
gizonen gorrotoakin
hondatuko da eguna.

**Ibiliko gera
alkarri kalte eginaz
ustez launik haundienak
aurrez ondo hitz eginaz.**

**Batzuen izerdiekin
besteak diru eginaz
egia esan dutenak
giltzaperera eramanaz.**

Gauz hoiek ikusteko
nola esnatzen gera?
Gauz hoiek egiteko
nola jaikitzen gera
Txoriek alaitutako
eguna hondatzeko
hobe genduke ez esnatu
ta bertan gelditu lotan.

“Ibiliko gera...” (2)

EIHA EHIA

“Eiha, eiha, eiha, eiha
norbait kanpoan ote da?” (2)
“Langileak, langileak, langileak
ote dira?
Langileak baldin badira
barnera sar ditezela” (2)

“Eia, eia, eia, eia
norbait kanpoan ote da?” (2)
“Nagusiak, nagusiak, nagusiak
ote dira?
Nagusiak, baldin badira
kanpoan egon ditela” (2)



EKI EDER

Hitzak:: Beñat Sarasola //

Doinua: Pier Paul Berzaitz

Udazkenean mendiak
Urtxoen eho tokiak
Sare'ta ihiztariak
Alde guzitan gordeak
Berdin ditugu etsaiak
Gordagian jarriak
Gure seme ta alaben...
Oi ebasleak.

**"Eki eder sutan bero
Euskaldun bihotzak oro
Gudukari ditén gero
Bilaka gau-egunero"**

Su pindarraren indarrak
Duelarik sortzen su garra
Preso ezarri gatua
Nola den amorratua
Berdin dira euskaldunak
gizonak hoberenak
baina agertzen zimizta...
ziztatu eta.

"Eki eder sutan..."

Bururatu da guretzat
Ilusionen denbora
Jaun haundi bat Parisetik
Jinen zela salbatzera
Nunbaiteko zeruetan
Balin bada jainkorik
Guk ez dugu sinetsiko...
nagusi denik

"Eki eder sutan..."

Gizon enganaitzailea
Itxuraz baita zintzoa
Aberatsekin dabila
Ederra dauka mintzoa
Harek du deliberatzen
gure ongia zer den
guk azala harek mami
Daukula jaten.

"Eki eder sutan..." (2)

EKIAREN DANTZA

Hitzak: Dominika Rekalt ///

Doinua: Mixel Etxekopar

Ürratz xüme horik izan diteala
zure baitari agrada
bakotxak gira zure mitila
zutän delakoz bizia

Honar etzazü mahats molkoak
zure bidez lürretik jinak
sano eman ezezü herroa
harro izan dadin ardoa

Zü bezala da ürre kolore
aize delarik da kantüz ari
bere irina zaikü hazkürri
hona besata bat ogi

EL REY

José Alfredo Jimenez Sandoval

Yo sé bien que estoy afuera
pero el día que yo me muera
sé que tendrás que llorar.

Llorar y llorar
llorar y llorar.

Dirás que no me quisiste
pero vas a estar muy triste
y así te vas a quedar.

**Con dinero y sin dinero
yo hago siempre lo que quiero
y mi palabra es la ley.
No tengo trono ni reina
ni nadie que me comprenda
pero sigo siendo el rey.**

Una piedra en el camino
me enseñó que mi destino
era rodar y rodar.

Rodar y rodar
rodar y rodar.

También me dijo un arriero
que no hay que llegar primero
pero hay que saber llegar.

Con dinero y sin dinero..



ELIZKALEKO MARTXA

Amaia eta Maite Garmendia

**Elizkalien, musika airien,
elizkalien zer martxa dabilen!
Neska ta mutil, zahar eta gazte,
“Festak dira-ta, animau zaitetze”. (2)**

Umiek bildurrez, buruhaundiyek datoz,
izerdi patsetan, laistrekan beti gogor,
kalie gainezka ohiu eta burrundaz.
Gora elizkalie, gora elizkalie!

Elizkalien, musika airien...

Gero kittarristak, kantari tabernetan
trikitilariak, pandero eta soinuaz.
zapatu gaben dultze-meneo latza.
hauxe dek umorie, hauxe dek umorie!

Elizkalien, musika airien...

Afari mundiala Mendizale elkartien,
postrien sariyek, denak primerakuek,
iriki! iriki! Ta tartien” tranpie”.
oorganizaziyue, organizaziyue!

Elizkalien, musika airien...

Txartelak erosi, ta gero premiyue:
bainu-etxera buelta edo euro mordue,
ia! Zeinek duen aurtien suertie.
Gora elizkalie, gora elizkalie!

Elizkalien, musika airien...

ENE IZAR MAITEA

Hitzak eta Doinua: Beltzunze Bizkondea

Ene izar maitia
ene xarmagarria
ixilik zur'ikustera
jiten nitzauzu leihora
koblatzen dudalarik
zaude lo'kharturik
gauazk'ametsa bezala
ene kantua zauzula.

Zuk ez nuzu ezagutzen
hori ere zaut gaitzitzen
ez duzu ene beharrik
ez eta axolarik
hil edo bizi nadin
zuretako berdin
zu aldiz, maite Maria
zu zera ene bizia.

Amodiozko pena zer zen
oraino ez nakien
orai ez nuzu biziko
baizik zu maitatzeko
“norat den ixurkia
hara juaiten da ura
orobat ni maitenena
jiten niz zuregan” (2)

ENTZUN HAIZETAN

Hitzak eta Doinua: Jatorrizkoa: "Blowin in the
wind (Bob Dylan) /// Interp: Luis Amilibia

Zenbat bide egin ote dezake
gaztenak bere urtetan.
Zenbat itsaso ikus txoriak
hotzaren ihesi egan.
Zenbat gizoni kiñu izar batek
haren otsa ahaztu artean.

**Entzun haizetan
mendebal aldetik
nola datorren
erantzuna**

Zenbat aldiz ai zabal ditudan
begiak goiza baino lehen.
Zenbat aldiz ai belarri hauek
gaixoen zotin meseden.
Zenbat taupada nere bihotzak
maite bideak ikasten.

Entzun haizetan...

Zenbat urte katetan dagoena
askatasuna iristeko.
Zenbat nekekurari zaindua
bere bizia galtzeko.
Zenbat aire urra behar usoak
pake giltza ekartzeko.

Entzun haizetan..

EPERRA

Eperrak badituzü
bere bi hegalak
bai eta бүрүн gainin
kokarda eijer bat
"зүк ere balinbazünü
gaztetarsün eijer bat
neskatilen gogatzeko
bilo holli pollit bat". (2)

Amorosak behar lüke
izan lotsagabe
gaiaz ebiltia
ez izan herabe
"егүнaz ebiltia
desohore leike
txoriak ere oro
haier soz dirade". (2)

Ebili izan нүзү
gaiaz eta beti
heian atzemanen nianez
lili eijer hori
"азkenian atzaman дүт
oi bena tristeki
lumarik eijerrena
beit zaio erori".(2)
La..la..la... (3)

ERREALARENA TXURI-URDIN

Rikardo Sabadie

“Txuri -urdin, txuri - urdin maitea
txuri – urdin, txuri - urdin aurrera
Beti beti maite maite maitea
Donostia Donostiarra.” (2)

“Aurrera Reala,
aurrera Gipuzkoa
aurrera txuri - urdinak.” (2)

“Gazte, gazte, gazte, gazte, gaztedi
gaztedi aupa, aupa Reala.
Gazte, gazte, gazte, gazte, gaztedi
gaztedi txuri – urdinak” (2)



ERREFUXIATUARENA

Hitzak: Izaro //// Doinua: Izaro&Mikel Urdanfarin

Utzidazu kontatzen ze ederra den itzultzea
Utzidazu kontatzen malko urdinen artean
Utzidazu kontatzen ze ederra den jakitea
Maiteko zaitudala itsasoaren beste aldean

Utzidazu kontatzen izarren artean
Utzidazu laztantzen hiru akorde hauetan
Utzidazu kontatzen ze ederra den zu ikustea

Utzidazu kontatzen
Ze ederra izango den itzulera
Elkarren besoen zabalera
Zure fede guztiei eustea
Zure bi malkoak baretzea

Utzidazu kontatzen behin ume zirela
Amestu zutela itsasoaren beste aldeaz

Hegan egiteko hegoak
Bakean bizitzeko
Ez dute besterik nahi
Gaur gurekin dantzatzeko
Ze ederra izango den itzulera
Elkarren besoen zabalera
Zure fede guztiei eustea
Zure bi malkoak baretzea

Ze ederra izango den itzulera
Elkarren besoen zabalera a, a, a..
Zure fede guztiei eustea
Zure bi malkoak baretzea

Utzidazu kontatzen ze ederra den itzultzea
 Utzidazu kontatzen malko urdinen artean
 Utzidazu kontatzen ze ederra den jakitea
 Maiteko zaitudala itsasoaren beste aldean

Utzidazu kontatzen izarren artean
 Utzidazu laztantzen hiru akorde hauetan
 Utzidazu kontatzen ze ederra den zu ikustea

Utzidazu kontatzen
 Ze ederra izango den itzulera
 Elkarren besoen zabalera
 Zure fede guztiei eustea
 Zure bi malkoak baretzea

Utzidazu kontatzen behin ume zirela
 Amestu zutela itsasoaren beste aldeaz

Hegan egiteko hegoak
 Bakean bizitzeko
 Ez dute besterik nahi

Gaur gurekin dantzatzeko
 Ze ederra izango den itzulera
 Elkarren besoen zabalera
 Zure fede guztiei eustea
 Zure bi malkoak baretzea

Ze ederra izango den itzulera
 Elkarren besoen zabalera
 Zure fede guztiei eustea
 Zure bi malkoak baretzea

ERREGUETAN

Mokorooa

Neskak:

- Erreguetan ari nintzela
 hartu nuen albistea:
 ama zureak nahi ez duela
 biok alkarganatzea;
 nola ez neukan oraindiokan
 gauz hori erabakia,
 ber-bertatikan asmo hartzen dut
 lekaimetan sartutzea.

Mutilak:

- Min-eriturik aurkitzen denak
 egin beharko negarra;
 nahiagatikan logratu ezin
 deseo nuen izarra.
 Mundu hontatik eramango dut
 damutasun bat bakarra:
 zu gabeta nik nere bizitza
 hemen igaro beharra.

Neskak:

- Ez egin, arren Inaziotxu,
 horregatikan negarrik;
 mundu honetan ez dago bada
 egiterikan nahi danik.
 Oroitu zaite beste bat ere
 badaguela oraindik;
 goiz-gauetako errezueta
 ez naiz ahaztuko zugatik.

Mutilak:

Zure izena badaukat eta
 edukiko dut goguan.
 Besterenikan ez zait sartuko
 nere bizitza osuan.
 “Debekatutzen dutenez gero
 ezkonduzteza munduan,
 saia gaitezen ahalegiñian
 alkartutzeko zeruan”.(2)

ERRIBERA

Bentio Lertxundi

Erribera, Erribera,
Zure landen zabalera
ortzi muga den hartan
mugatzen da.

Zure lur emankorretan
isurtzen diren asmoak
gogotsu hartuko al ditu
lur gozoak.

Zure gaztelu zaharrek
gorderik duten antzina
hats tristetan mintzo da
haren mina. OH, OH, OH

Horma zahar arraituetan
txoriak dira kantatzen
mendetako lo geldia
salatzen.

Nafarroa anai zaharra
kondairaren lehen zuztarra
bego higan arbasoen
amets hura. OH, OH, OH

ERROTA ZAHARRA

Hitzak: Juan Mari Lekuona /// Doinua: Xabier Lete

Errota zahar maitea
uraren ertzean,
uraren ertzean da
basati beltzean:
“Negar egiten dezu
alea xehetzean,
ni ere triste nabil
zutaz oroitzean.” (2)

Zotin sekua dagi
errotarriak;
itzalitako izar ditzirak
dira neretzat zure begiak.

Izar eder bat dago
hor goiko lepuan.
Errota zaharra, berriz,
erreka zokoan.
“Berebiziko pena
badaukat barruan;
ezin gindezke bizi
elkarren onduan.” (2)

Bizitzaren legea
nahi det onartu,
hala beharra
koraiaz hartu.
Berez doana
zertan behartu?

Errota zahar....

La, la, la.....

ESKUTXOEK JO DUTE

Imanol Lartzabal

“Eskutxoek jo dute
kriskitin-kraskitin;” (2)
Haizea kiribiltzen
dabil Mari Zikin;
ala, morena!,
dabil Mari Zikin...
Eskutxoek jo dute
kriskitin-kraskitin.

“Behatz txikiak estu,
txakurrak: ai ene!” (2)
Ezinean da Pinto,
ez kanpo, ez barne,
ai!, oi!, ei!,
ez kanpo, ez barne...
Behatz txikiak estu,
txakurrak: ai ene!

“Behatz nagiarentzat
tori eraztuna;” (2)
donua tinkatzeko
urrezko ttun-ttuna
ala, morena!,
urrezko ttun-ttuna...
Behatz nagiarentzat
tori eraztuna.

“Behatz zuzena dugu
begiaren lagun;” (2)
itsasgaina oin-hutsik
igaro dezagun
ala, morena!,
igaro dezagun...
Behatz zuzena dugu
begiaren lagun.

“Eskuak eskuekin
txalopin-txaloka;” (2)
zeruan hasi dira
izarrak saltoka,
ala, morena!,
izarrak saltoka...
“Eskuak eskuekin
txalopin-txaloka.” (3)

ESPERANTZARIK GABEKO AMODIOA

Fernando Aire "Xalbador"

Amodioa gauza tristeia, bihotzen higatzailea,
guziz enea bezala bada esperantzarik gabea.
Gizonarentzat hau baino malur handiagorik badea ?
Ikusten eta ezin eskura maitatzen duen lorea !...
Hunela bizi baino aunitzez hobe litaik hiltzea !

O, Jainko ona, zendako bada egin nauzu hoin maluros,
begien bixtan izar eder bat ezarri dautazulakotz,
ikus orduko maite nuena nik ditutan indar oroz ?
Harek ordainez ez du enetzat ez begi eta ez bihotz...
Nehoz ikusi izan ez banu hobeko nuen ondikotz!

Oi, ene maite ezin ukana, zoin zaren xarmegarria !
Maite dut zure begitarteia, maite zure boz eztia,
halaber zure irri gozoa, zure izaite guzia ;
zuretzat baizik ez dut begirik, zare ene iguzkia,
gau eta egun zuri pentsatzen deramat ene bizia.

Martxoko hormak galduko duen lore pollit goiztiarra,
ta eihartzerat bortxatua den aizeak hautsi abarra :
ene bihotza ez ditaik gauza horier konpara ?
Nehoz enea ez da izanen maitatzen dutan izarra,
hortaz oroitz maiz etortzen zaut nigarra begietara.

Aitortzen dautzut, ene maitea, goiz aski banakiela
etzintaizkela enea izan, bertze batentzat zinela ;
"bainan halere maitatu zaitut, ez bainezaken bertzela ;
ene bihotza, bizi naizeno, izanen zaizu fidela,
zuretzat bizi ez banitaik, zuretzat hil nadiela !" (2)

ESPUS ESPUSARI TOPA

Hitzak eta doinua: Pierre Bordazarre "Etxahun Iruri"

Zuiñen eijer den bedatsian lehen lilia
 Baratze xokhuan irus ageri
 Zuiñ eijer den mahaiñ saintiala bildürik
 Bi espus eskik emanik elgarri
 Egünko egünak hortara ekharri gütü
 Uhure espus eta espusari
 Ziren biziko desiratzen dereziegü
 Bier xantza hun eta osagarri

Espus maitiak orai jakin behar düzie
 Ziren hunetan zer datin gerua
 Batian plaser bestian aldiz arrünküra
 Uste gabeko nahi gabekuak
 Bena orai danik biga baziratekie
 Aisa egarteko ziren eskerniuk
 Bai eta phekü guzien kontsolagarri
 Egün jüntatü zutien amodiua

Mündü huntan den bekhaxderiarik handiena
 Bethi danik da aberatstarzüna
 Ene ustez aldiz huntarzün baliusena da
 Osagarri hunin gatzetartzüna
 Bizitze berri bati бүрүз bagutzalarik
 Hartürik espusetako erhaztüna
 Amodio xühar batek inganatürik
 Hori da hori egiazko fortüna

Zelü gañian ekhirik ederrena beita
 Arratsaldiari бүрүз itzaltzen
 Espus maitiak nik hortan dit zirek bezala
 Aita eta ama gaixo horier phentsatzen
 Arratsaldi ori бүрүз juranik beitira
 Ikhas ezazie horen eztitzen
 Bakian horiek lagüntüren beitzütie
 Ziren haur maiten untsa eraikitzen"

ETXAUN IRURI

Hitzak: Roger Idiart /// Doinua: Jean Etchart

Txülüla joile, pilotari,
jauzi emaile, koblakari,
artetan ere laborari,
usü ametsetan ari,
horra nur izan ziren, Etxahun Iruri:
gano Haundiko poeta eta zuiñen maithagarri!

**“Etxahun Iruri
Xiberuko Lilia,
Maidalenako maxelatik
hegalthatu txori khantaria” (2),
“zuk düzü arraphiztū
jei zaharren leiñhüría,
ezinago maithatürík gure Uskal Herria” (2)**

Uskaldün hanitx beno lehen
uskaltzale agertü ziñen.
zure denboran ari beitzen
Xiberuko jeia galtzen,
ordian zinen hasi bazterren harrotzen;
bekhan dizügü ikhusi, txori bat haiñ gora heltzen.

EUSKAL HERRI NEREA

Lourdes Iriondo eta Xabier Lete

**Euskal Herri nerea
ezin zaitut maite
baina nun biziko naiz
zugandik aparte.
Anaïen arpegian
begirada hotza,
bihotz berotasuna
izaten da motza.**

Arratsaldeak beti dakarren tristura,
neretzat izaten da bakardade hura.

Argitu nahirik begiak,
balio al du gure egiak?

Bide bat aukeratzean,
gelditu nahi nuke nere lurrian.

**Euskal Herri nerea
ezin zaitut maite
baina nun biziko naiz
zugandik aparte.**

Ezin erabakirik esandako hitzak,
pauso baldarrak ditu gizonen
bizitzak.

Neurri zuzen baten beharrak
lotutzen dizkit nere indarrak.

Erreka zabal garbia
zugan egon bedi gure argia.

**Euskal Herri Nerea
behar zaitut maite
baina**

Urruti joan ezkerro berriz etortzean
nolako zulo beltza nere bihotzean.

Egin dezagun aurrera,
gerra hontan saiaturako gera.

Tristeia etxerik eza,
lurrak emango dit bere babesa.

**Euskal Herri Nerea
behar zaitut maite
baina**

EUSKAL HERRIA KORRIKA

Gozategi

**Euskal Herria Korrika!
“Bat, bi, hiru, lau, bost, sei,
zortzi, bederatzi, hamar
Euskal Herria Korrika!” (2)**

Arantzazu izan da gordeleku gotor
euskal hots eta hitzen babesleku
jator

txori hezi zen eta izan ginen sator
“izkutua uzteko garaia badator.” (2)

Hizkiak izkututik badatoz argira
K bi hanka luzekin korrika hasi da
Oñatin pasa da O jira eta jira
“ERRE ere hedatu zaigu Euskal
Herrian.” (2)

ERRE hor ibili da Euskal Herrietan
I tximina dugu labe garaietan
K azkenik sartu da Bilboko kaleetan
“A ikasten hasi da non eta AEKn “ (2)

**Euskal Herria Korrika!
“Bat, bi, hiru, lau, bost, sei,
zortzi, bederatzi, hamar
Euskal Herria Korrika!” (2)**

Senak agindu zigun zenari eustea
baina izkututzea ez al da tristeia?
Nahi badugu euskara igotzen hastera
“komeni da korrika Bilbora jeistea.”

“Bat bi hiru lau... “(6)

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

Hitzak: Xabier Amuriza ///

Doinua: Natxo de Feipe (Oskorri)

Euskal Herrian euskaraz
nahi dugu hitz eta jolas
lan eta bizi euskaraz eta
hortara goaz,
bada garaia noizbait dezagun
guda hori gal edo irabaz.
Zabal bideak eta aireak
gure hizkuntzak har dezan arnas,
bada garaia noizbait dezagun
guda hori gal edo irabaz.

Euskal Herrian euskara
hitz egiterik ez bada
bota dezagun demokrazia
zerri askara
geure arima hiltzen uzteko
bezain odolgalduak ez gara.
Hizkuntza gabe esaidazue
nola irtengo naizen plazara,
geure arima hiltzen uzteko
bezain odolgalduak ez gara.

Euskal Herri euskalduna
irabazteko eguna
pazientzia erre aurretik
behar duguna,
ez al dakizu euskara dela
euskaldun egiten gaituena?
Zer Euskal Herri litzake bere
hizkuntza ere galtzen duena.
Ez al dakizu euskara dela
euskaldun egiten gaituena?

EUSKAL SELEKZIOA

Gozategi

Gure selekzioak
Partehartzearen lehia
Euskal selekzioak
Nortasunaren deia
Gure selekzioak
Munduari begira
Euskal selekzioak
Gure gureak dira.
Gure selekzioak
Garenaren islada
Euskal selekzioak
Kirolaren plazara
Gure selekzioak
Txuri, gorri ta berde
Gu euskal selekzioaren alde!

Jokoaren poza ta
Harmailen zirrara
Biak elkartzeko
Sentimentu bat bada
Herria bihotzean
Ahoan euskara
Galdutakoan ere
Irabazle gara

Gure selekzioak...
Euskaldunok euskaldun
Izan gara beti
Kirola ikur da
Edozeinek badaki
Zergatik itzal eman
Geu ez garen bati
Nor izan nahi genuke
Ez inoren zati.

Gure selekzioak...

EUSKALDUNEK MUNDUAN

Hitzak: Jean Elizalde Salaberri "Zerbitzari"

"Euskaldunek munduan ez dugu parerik
hortakotz ez ginuke guk behar nausirik! " (2)

"Elgarretara beraz zazpiak bildurik!
ez dugu onetsiko Herrian Kaskoinik!" (2)

"Zeruan gora dago Euskaldun izarra,
gazte bahintz bezala xuti hor zaharra," (2)

"Kopeta apaltzea da gure makurra
Oi! nausi izaitea zer gauza ederra!" (2)

"Euskaldunak ez ahantz beti han dagola,
Jaungoikoak emana Gernikan arbola." (2)

"Euskaldun egon bedi euskaldun odola
kaskoinak Kaskoinian sekulan daudela." (2)

"Oihu hau aditzean xuti gaiten denak!
eta egin ditzagun ahal ditugunak." (2)

"Hauxe dauku galdetzen gure Jainko Jaunak
euskaldun egon gaiten beti euskaldunak!" (2)

La..la..la..

euskaldun egon gaiten beti euskaldunak!



EUSKERA, PLAZARA

Pantxoa eta Pello

**Plazara, euskara plazara!
euskaldun irakasle eta ikasleok
dantzara! plazara, dantzara!
Geure herriaren geroa bait gara**

Bai, arreba ta anai,
guk ere herria izan nahi,
geure lurrak laiatuz eta irauliz
udaberriko emaitzaren zai!
herri jakintza nahi dugu
eta jakintza herriarentzat nahi!

Plazara, euskara plazara!...

Ez, erderarik ez!
Euskadin sortu ginanez
Denok Euskara bakar bat nahi dugu
Bizi giro ta jakintza bidez
Mundu berri bat nahi dugu
Herri bakoitzat beretik emanez

Plazara, euskara plazara!...(2)

EUTSI LAGUN

Hitzak: Alberto Pelaez /// Doinua "Viva el amor"
ren oinarrituta/ Intep.: TRABUKO

**"Eutsi, lagun,
Eutsi, lagun
ez hago bakarrik,
ez egin negarrik,
kanta dezagun" (2)**

Tristea eta iluna bizia,
ibili ginen negar ta malkoz,
batzuetan nuen irudia
nintzala eroria eta betikoz

Ezinearen hesi estutatik
irten gera indar eginda,
jo ta ke zuek ikusteak
kateak haustean ...
hau egia da!!

"Eutsi, lagun..." (2)

Gaur herriak altxa du burua,
nahiz ta errez ez izan ezer,
zuen lanak eman du fruitua,
mantenduz oihua,
ez gaude oker.

Bide latz eta gogor guztiak,
elkarrekin, arinak dira,
badauzkagu arrazoi garbiak
zabaltzen hasiak
mundu guztira!!

"Eutsi, lagun..." (2)

EZ DUT BILATZEN ABERATSEN

Pantxoa eta Pello

Ez dut bilatzen aberatsen
 bidetarik ibiltzea!
 Ez dut bilatzen haundiekin
 nik jokoetan artzea!
 “Jende gehienak bezala sortua
 Ait’amen lurrari lotua!
 Behardunekin bizitzea:
 hori da neure hautua.” (2)

Jende oro dira behardun
 ukanik ere ontasun ...
 Baina aberats guti jartzen
 jende xeble lagun!
 “Aberatsen eskua urrun heltzen,
 Zer nahi nun nahi tinkatzen...
 Gure herriaren geroaz
 dute tratu merke egiten!” (2)

Otsoak bordan otsoekin,
 gaixo bildotsak hoiekin!
 Bainan bordazainak nun dira?
 Ager ditela argira!
 “Euskal Herria euskaldunendako:
 berek erran behar hau nolako!
 gaurko gidariek baitute
 hori onartu beharko!” (2)

EZ, EZ DUT NAHI

Hitzak eta doinua: Julen Lekuona

Ez, ez dut nahi, ez, ez, ez,
 ez holako zibilizaziorik.

Kaiolaren adarrak
 ditugu alboan
 Eskuindarrek eskua
 zabaldu juxtu.

Zigor indarren menpe
 tiroak gogoan
 horrela bizitzerik
 ez dago munduan.

Ez, ez dut nahi,...

Poliziak nunahirik
 zerbait egitean:
 pentsatu arazi nahi
 makil indarpean.
 Irudi du gerala
 kaiola batean,
 jarritako txoriak
 fusilen menpean.

Ez, ez dut nahi,...

Horregatik ez dut nahi
 gizonen kutsurik,
 zibilizazioaren
 sasi Jaungoikorik.
 Libre nahi dut bihotzez
 libre loturetik,
 basurdearen gisa
 hortzak estuturik.

“Ez, ez dut nahi,...” (2)

EZ NAU IZUTZEN NEGU HURBILAK

Xabier Lete

Ez nau izutzen negu hurbilak
uda betezko beroan
dakidalako irauten duela
orainak ere geroan
izadiaren joan geldian
gizalditako lerroan
guztia present bihurtu arte
nor izanaren erroan.

Ez nau beldurtzen egunsentian
arnas zuridun izotzak
nun dirudien bizirik gabe
natura zabal hilotzak
eguzki eder joan guztien
argia baitu bihotzak
eta zentsuen milla ernegai
iraganaren oroitzak.

Ez nau larritzen azken orduan
arnasa galdu beharrak
bide xumea hesituarren
amildegiaren larrak,
ardo berriak onduko ditu
mahastietan aihen zarrak
gure oraina arrazoiturik
beste batzuren biarrak.

Ez nau iluntzen baratzatikan
azken loreak biltzeak
muga guztien arrazoi billa
arnas gabe ibiltzeak
“arratsaldeko argi betera
zentzu denak umiltzeak
atsedenezko loa baitakar
behin betirako hiltzeak.” (2)

EZ NAZAZU UTZI

Hitzak: Brel Jacques /// Andoni Lekuonak
euskaratua /// Intep.: UNAI Hirukoa

Ez, nazazu utzi, nik etzaitut utziko
Ez nazazu utzi ez nik etzaitut utziko.

Negar egingo duzu illunabarrean
baina poztuko zera eguna argitzean.
(2)

Ez, nazazu utzi,....

Amets egingo duzu illunabarrean
Libre jarriko nautela eguna
argitzean. (2)

FRANTSEZ EUSKALDUN BAT ETORRRI ZAIT

Hitzak: Jose Manuel Lujanbio “Txirrita” ///

Interp.: Lete/ Valverde

Frantsez euskaldun bat etorri zait

ipinitzeko bertsuak
deklartuaz haren etxian
gertatu diren kasuak
denak ez dira errezak baina
esango ditut batzuak
argitasuna ematen badit
gure jaun amorosuak

Nere barrengo sentimentuak
nahi ditut adierazi
zer estadutan gelditu naizen
inork nahi badu ikasi
izarra baino ederragoko
andrea joan zait ihesi
orain bi urte aldegin zidan
geroztik ez dut ikusi

Hogeita hamar urte daukazkit
oraindik franko gaztia
eta andreak bi gutxiago
hau bizimodu tristia
hark neri egin dizkidan gauzak
esatekuak ez dia

txurrero batek engainatuta
eraman dit emaztia
Behar bezala funtzionatzen
ez dago errez fabrika
lau urte pasa elkarrekin da
ez dugu izan haurrikan
ahalegin egin faltan ez daukat
kontzientzia zorrikan
orain Parisen txurruak saltzen
han omen dabil korrika

Txurreruaren lan sentzilua
da asko irabazteko
horrek behinik behin ez du egiten
mantendu eta jazteko
andrearekin alkar hartuta
ni modu hontan uzteko
bi kristau gaizto nahikoak diraz
bazar guztiak nahasteko

Txurreru hori zer gizona dan
sinestu entzun duguna
lana egiteko gogoua falta
eta mingaina leguna
“bedeinkatua izan dedila
aldegin zuten eguna
gizarajuak harrapatu du
bere moduko laguna” (2)

FURRA – FURRA

Oskorri

**Furra, furra, fandangoa
hortxe duzu fandangoa
geure gustokoa.
hortxe duzu fandangoa
geure gustokoa.**

Gaur goizean jaiki naiz suerte onean,
tanke bat topatu dut neure kafesnean;
ez dakit zer daukagun bake hala gerra
bainan nik badaezpadan egin dut
puzkarra.

Furra, furra...

Zerbait egitekotan zuzen eta artez
zorri bat garbitu dut ur pistola batez,
orain galdurik nao beldurrez beteta
muniziorik gabe gelditu naiz eta.

Furra, furra...

Neure arma bakarra dut akordeoia,
hauspoari eraginez dirudi lehoia;
eskua jaten badit on egin dezaion
Cervantsei holakorik gertatu zitzaion

Furra, furra...

Eta orain banoa berriro ohera,
bila ez badatozkit lolo egitera;
bihar ikusiko da zer dagoen berri,
jakintsuenak ere ezin du igerri.

Furra, furra...

GALDUA NAIZ NI

UNAI Hirukoa (M.J. Arregi, A. Frantzesena eta
M.K. Otaegi)

Pozik jakingo nuke
zure maitasun gabe
gelditu naizen...
Haize-aldiren batek
hoztu ote zaitun...nola?

Esaidazu egitan
ahaztu nauzu benetan
eta zergaitik?
Ni ezingo naiz bizi
ezin parrik egin zu'be....

Nik zer egin nezake
zu jun ba'zerade
maitasunik gabe...?
Orain maite ez banauzu
zer gertatu zaizu? Nolaaaa?

Lehengo amets ta agindu
ahaztuta baditugu
galdua naiz ni...
bihotza eman nizun,
pentsatuko dezu
gaur ez naizela ezer...
maitasun hau gabe.
Bildur det bizitzeko
munduan ibiltzeko...
Galdua naiz ni...

Uh Uh.. Uh..
La..ra..la la..ra

Bakarti naiz bihotzez,
ilunpean negarrez...
Galdua naiz ni...
Agian utzi ta hobe
maitasunik gabe
ibiltzea baiño.
Hobeto dezu ixildu
zuk ongi bai dakizu
gaurtik nola uzten nauzun,
galdua naiz ni...
Uh.Uh.

GAZTE GERA GAZTE

Lourdes Iriondo

**Gazte gera gazte,
ta ez gaude konforme
mundu garbiago bat
bizi nahi genduke,
gezurraren kontra
injustizirik ez,
gazte gera gazte
ta ez gaude konforme**

Nere abesti hau ez da politika,
justizia nahi det, egiak agertu
gizonak daduzkan eskubide hoiek
kunplitu ditezen bihotzez abestu
ez noa inorren kontra egia nahi dut

Gazte gera gazte...

Gazte geralako maitasun batean
bizi nahi genduke, bainan baita ere,
gehiegi dakigu munduan dagozen
gezur da gorroto ta injustizi asko
gauza hoi en kontra abestu nahi degu

Gazte gera gazte...

Bainan aho batez gure herriaren
problemak esaten uzten ez digute
guk nahiago dugu betiko ixildu
gero egun batez beldurraren gaitik
traidore ginala ezan ez dezatengazte

Gazte gera gazte...



GAZTEDI BERRIA

Mixel Labeguerie

Aita zer egin dezu gure lur maitea
kanpokoari saldu oi dohakabea
Arrotzez betea da Euskadi guzia
Euskalduna etxean ez dago nausia

**“Gu gira Euskadiko gaztedi berria
Euskadi bakarra da gure aberria” (2)**

Aita zer egin duzu euskera maitea
erderan hazi dezu oi zure semea.
Ontasun ederrena aita batek galtzea
bihotzean sartua dugu ahalgea.

“Gu gara Euskadiko gaztedi berria...” (2)

Kaskoin edo maketo ez dugu etsaia
bainan euskal semea da gure anaia.
.Hemen dela España han dela Frantzia
mugaren bi aldetan da Euskal herria

“Gu gara Euskadiko gaztedi berria...” (2)

Jaungoikoak emana hor dugu herria
Bere semek hiltzera zergatik utzia
Bat egingo behar dugu Euskadi guzia
bildu gaiten anaiak gure da bizia.

“Gu gara Euskadiko gaztedi berria...” (2)

GAZTELUGATXE

Oskorri

Seirehun urte inguru
kosta aldean zen gertatu,
itsasgizon zahar batek
behintzat hala zidan kontatu,
enbat itzelak Gaztelugatxen
untzi eder bat zuen hondatzen,
euskaldunontzat barruan
altxor haundiak ei zekartzan.

Igaz udako goiz batez
eguzkiaren lehen printzez
jo nuen itsas barrena
bihotza dardara eginez,
murgildu nintzen ur gardenetan,
arakatu ongi hare-haitzetan,
han zegoen tinkaturik
goroldioak estalirik.

Indar guztioz bultzatzen
altxor kutxa zabaldu nuen,
atzera egin ninduen
uhin haundia altxatu zen,
inor ez zapaltzeko gogoia,
zapalduak ez izatekoa,
hau da gure urguilua
altxor guztien iturria.

Eta hau hola ez bazan
sar nezatela kalabazan,
ipui txit barregarriak
kontatu nizkizuen plazan.

GERNIKAKO ARBOLA

Hitzak eta Doinua.: Jose Maria Iparragirre

“Gernikako arbola
 da bedeinkatua
 Euskaldunen artean
 guztiz maitatua.” (2)
 “Eman ta zabal zazu
 munduan frutua
 adoratzten zaitugu
 arbola santua.” (2)

“Mila urte inguru da
 esaten dutela
 Jainkoak jarri zuela
 Gernikako arbola.” (2)
 “Zaude bada zutikan
 orain da denbora
 eroritzen bazera
 arras galdu gera.” (2)

“Ez zera eroiko
 arbola maitea
 baldin portatzen bada
 Bizkaiko Juntia.” (2)
 “Laurok hartuta degu
 pakian bizi dedin
 euskaldun jendia.” (2)

“Betiko bizi dedin
 Jaunari eskatzeko
 jarri gaitezen denok
 laister belauniko.” (2)
 “Eta bihotzetikan
 eskatu ezker
 arbola biziko da
 orain eta gero.” (2)

“Betiko bizi dedin
 Jaunari eskatzeko
 jarri gaitezen denok
 laister belauniko.” (2)
 “Eta bihotzetikan
 eskatu ezker
 arbola biziko da
 orain eta gero.” (2)

“Beti egongo zera
 uda berrikoa
 lore aintzinetako
 mantxa gabekoa.” (2)
 “Erruki zaite bada
 bihotz gurekoa
 denbora galdu gabe
 emanik frutua.” (2)

“Arbolak erantzun du
 kontuz bizitzeko
 eta bihotzetikan
 Jaunari eskatzeko.” (2)
 “Gerrarik nahi ez degu
 pakea betiko,
 gure lege zuzenak
 hemen maitatzeko.” (2)

“Erregutu diogun
 Jaungoiko Jaunari
 pakea emateko
 orain eta beti.” (2)
 “Eman indarra ere
 zerroren lurrari
 eta bendezioa
 Euskal Herriari.” (2)

GEROA ESPERANTZAZ BETERIK

Hitzak: Beñat Sarasola /// Doinua: Pier Paul Berzaitz

Haizea preso da mendien artean
Xoriak hegalez behartzen airean
Bizia ixiltzen heriotz minian
Begiak nigar egitean
Mugarik gabeko libertaterik ez
Edo nun ez den ametssez

La...la...

Itzalik gabeko zuhainik bezala
Ametsik gabeko bizirikan ez da
Batek arrenurak ditu berarenak
Besteak aldiz lagunenak
Bihotza zabalik justizia gosez
Amodioaren bekaizgorik ez

La...la...

Indar handienak borrokan emanik
Bihotza ta zainak odolez husturik
Esperantzaz berdin oraino beterik
Geroa ez dela galdurik
Esklavorik ez dela izanen batez
Betetzen gira sinestez

La...la... (3)

GITARRA ZAHARTXO BAT DET

Jose M^a Iparragirre

Gitarra zahartxo bat da neretzat laguna,
honela ibiltzen da artista euskalduna;
egun batean pobre, beste batez jauna,
kantari pasatzen det nik beti eguna.

Nahiz dela Italia/ orobat Frantzia,
bietan bilatu det anitz malizia.
Ikusten badet ere nik mundu guztia
beti maitatuko det bai Euskal Herria.

Jaunak ematen badit neri osasuna
izango det oraindik andregai bat ona.
Hemen badet frantsesa interesaduna,
baina nik nahiago det hutsik
euskalduna.

Agur, Euskal Herria, baina ez betiko;
bost edo sei urtean ez det ikusiko.
“Jaunari eskatzen diot grazia emateko
nere lur maite hontan hezurak
uzteko”. (2)

GOGOAREN BAITAN

Hitzak: Anje Duhalde /// Doinua: J.Hiart

Erabaki nuen, tinko ta fermuki,
Ez zitzaidala gertatuko,
Maitasun saretan es nintzela berriz
Uste gabeen eroriko.

Bi begi izpitxu, irripar ezti bat
Izan dira nere galtzaile,
Geroztik hor nabil arantzetan dantzan,
Ezinezko amets sortzaile.

Urresko txanpon bat eman gogo nuke
Sorgin bat bilaka banedi,
Ezina egikor aldatzeko aina
Gezurra bihurtzeko egi.

Zer den ona edo zer ote den txarra
Jakin beharko nukelarik
Sumendi gaineen erretzen ari naiz
Ba al dago irtenbiderik ?

**“Zu hor zaude,
dantzan, jauzitan,
Zer debu bada
pasatzen zait gogoaren baitan.”(2)**

Geroak zer dakar, ez dut pentsatu nahi,
Uneak nahi ditut bizi.
Lau egun dira ta bi omen lainotsu
Galtzera ez ditut nahi utzi.

Hitzaren jokoan, itxura emanez,
Gorde nahiko nuke dena.
Biluzia nauzu izan zarelako,
Egoera hunen sormena.

Erabaki nuen, tinko ta fermuki,
Es zitzaidala gertatuko,
Maitasun saretan es nintzela berriz
Uste gabeen eroriko.

Bi begi izpitxu, irripar ezti bat
Izan dira nere galtzaile,
Geroztik hor nabil arantzetan dantzan,
Ezinezko amets sortzaile.

**Zu hor zaude,
dantzan, jauzitan,
Zer debu bada
pasatzen zait gogoaren baitan
pasatzen zait gogoaren baitan
pasatzen zait gogoaren baitan**

GOIZ ERESIA

Argitzen hasi da eguna
musikak alaiki piztuaz barrena.
Ziriaren ezta darekin
gazteak bizkor
zezenan muturrean

Txuriz sokamutilak saltoka kalean.
Urduri jendea tolostatzan ertzean.

“Hementxe dala,
hementxe dala
kale barrenetik
gora zezena” (2)

GOIZIAN ARGIA HASTIAN

Hitzak eta Doinua: Pierre Bordazarre “Etxahun-
lururi”

Goizean argia hastian,
ene leiho hegian,
txori bat pausatzen da eta
goratik hasten kantan.
“Txori ederra, hain alagera,
entzuten haudanian,
ene bihotzeko tristura
laster duak aidian.” (2)

Ene txoririk maitena,
zertaz jin hiz nigana?,
iratzarrazi nialarik
ametsik ederrena.
“Jinik hain goizik uste hiena
baniala anitz pena?.
Ez, ez, habil kontsolatzera
malerusago dena.” (2)

GOIZEAN GOIZ JEIKIRIK

Benito Lertxundi

Goizean, goiz jeikirik
argia gabarik
urera joan ninduzun,
pegarra harturik
Tra la ra la rai

Jaun xapeldun gazte bat,
jin zautan ondotik,
heia nahi nuenez,
urera lagunik.
Tra la ra la rai

Nik ez nuela nahi,
gurera lagunik,
Aita beha zagola,
salako leihotik.
Tra la ra la rai

Aita beha zagola,
ezetz errangatik,
pegarra joan zerautan,
besotik harturik.
Tra la ra la rai

Urera ginenian,
biak buruz buru,
galdegin zautan ere:
-»Zonbat urthe duzu?»
Tra la ra la rai

«Hamasei... hamazazpi
orain'ez konplitu
zurekin ezkontzeko
gatzexegi nuzu.
Tra la ra la rai

Ettxerat itzultzeko
nik dutan beldurra,
ez jakin nola pentsa
amari gezurra!»
Tra la ra la rai

Neskatxa, nahi duzu
nik erakuts zuri
etxerat etortzean
zer erran amari?»
Tra la ra la rai

Urzo xuri pollit bat,
gabaz dabilana,
hark ura zikindurik,
egotu naiz ama
Tra la ra la rai

Dakigunaz gerotzik,
zer erran amari,
dugun pegarra pausa,
"gaitezen liberti."(2)
Tra la ra la rai

GORA PILOTA MAITEA

Interp: Alaiak

Euskadin badugu kirol maitatu bat
 gehienek jokutzen duguna
 atxiki behar duguna
 hori baita hoberena
 pilota baitu bere izena

Aupa pilotari gazte ta zaharrak
 aupa txapeldun pilotariak
 ahotsa dugun arte
 beti kanta dezagun
 gora pilota mundu guzian

**“Adiskide pilotazaleak gara
 zer guri da pilotarien biltzarra
 gora pilota maite,
 plazetako pozgarri
 gora pilota orain eta beti.” (2)**

Sekulako pilota bizi dadila
 behintzat hori da gure nahia
 Dena egingo dugu,
 pilota ez galtzeko
 beti indarra atxikitzeko

Zuentzako txapeldun pilotariak
 munduko txalorik beroena
 Aupa pilotariak,
 gora jokalariaik
 oroituko zaituzte herriak

“Adiskide pilotazaleak...” (2)

GORA TA GORA BETI

Hitzak: Gabriel Aresti /// Doinua-“Polka de Barril”
 en oinarritua (JAROMIR VEJVODA)

**“Gora ta gora beti,
 haik gora Lapurdi,
 Euskerak bizi gaitu
 ata bizi bedi.” (2)**

Gorantza doa agudo kapitala
 eta Lapurdi beti dago apala,
 aldrebesturik dago mundu zitala,
 konformatzen ez bagara
 ze pekatu mortala.

“Gora ta gora beti ...” (2)

Gurea ez da bizi modu normala
 lurra lantzeko haitzurra eta pala,
 lanaren truke kobratze erreala.
 Benetan da miserable
 euskaldunon jornala.

“Gora ta gora beti ...” (2)

Munduan ezin bizi daiteke hala,
 Merkatuetan dena gora doala,
 etxera eta zopa guztiz argala,
 kriseiluen oiloa
 ez da postre formala.

“Gora ta gora beti ...” (2)

Obrero eta nekazari leiala
zuenaz ez da errenta liberala.
Diru zikinak putre motzak bezela
botatzen dizu gainera
hortxe bere itzala.

“Gora ta gora beti ...” (2)

Jabeek dute kontzientzi zabala
kaskatu dute gure lurren azala
baina Lapurdi ez da hain zerbitzala;
burruka garbian dago
hori da prinzipala.

“Gora ta gora beti ...” (2)

GREZIAKO ITSASONTZIA


Hitzak eta Doinua: Lluís Llach /// Xabier Letek
euskaratua

Itsaso gaindik ikusten baduzu
gure gogoa daraman ontzia
ez zazu pentsa galduta doanik
argitzen baitu goizeko eguzkiak.

Hainbeste amets, negar ta desio
ez du ekaitzak ondora botako
salbatuko da goizeko ontzia
kaiaren bila hegaka joateko.

Arraun berriek eramango dute
bide zaharretik askatasunera
oihal zuriek haizea bildurik
gure arnasa biltzen den batera.

Ez du ekaitzak hondora botako
salbatuko da goizeko ontzia.



GUADALAJARA EN UN LLANO

Luis MARS

Guadalajara en un llano, México en una laguna
Guadalajara en un llano, México en una laguna
Me he de comer esa tuna
Me he de comer esa tuna
Me he de comer esa tuna
aunque me espine la mano.

La águila siendo animal se retrató en el dinero
La águila siendo animal se retrató en el dinero
para subir al nopal
para subir al nopal
para subir al nopal
pidió permiso primero

Dicen que soy hombre malo, malo y mal averiguado
Dicen que soy hombre malo, malo y mal averiguado
porque me comí un durazno
porque me comí un durazno
porque me comí un durazno
de corazón colorado.

Ya se cayó el arbolito donde dormía el pavo real
Ya se cayó el arbolito donde dormía el pavo real
Ahora dormiré en el suelo
Ahora dormiré en el suelo
Ahora dormiré en el suelo

Guadalajara en un llano, México en una laguna
Guadalajara en un llano, México en una laguna
Me he de comer esa tuna
Me he de comer esa tuna
Me he de comer esa tuna
aunque me espine la mano.

GUK EUSKARAZ

Hitzak: Gabriel Aresti /// Joxean Larrañaga
"URKO"

Guk euskaraz Zuk, zergatik ez? (2)

"Euskara putzu sakon
eta ilun bat zen, "(2)
"eta zuek denok ur gazi
bat atera zenuzten
handik nekez".(2)

Guk euskarez.....(2)

"Orain zuen birtutez
zuen indarrez" (2)
"euskara itsaso urdin
eta zabal bat izanen da
eta guria da."(2)

Guk euskaraz.....(2)

GURE AITAK AMARI

Intep.: OSKORRI

"Gure aitak amari
gona gorria ekarri;" (2)
berriz ere maiteko dio
gure amak aitari.
Gure aitak amari
gona gorria ekarri.

"Gona gorri gorria
zazpi jostunek josia;" (2)
berriz ere maiteko dio
gure amak aitari.
Gure aitak amari
gona gorria ekarri.

"Gure amak aitari
praka berriak ekarri;" (2)
berriz ere maiteko dio
gure aitak amari.
Gure amak aitari
praka berriak ekarri.

"Praka berri berriak
zazpi jostuneek josiak;" (2)
berriz ere maiteko dio
gure aitak amari.
Gure amak aitari
praka berriak ekarri.

GURE BASERRIKO GAUZAK

Interp.: Sakabi eta Egañazpi

la ra la

“Bost anai izan gera
bi arrebarekin
aspaldian ez gera
egon alkarrekin”. (2)

Joxepa ta María
Bixente ta Joakin
Frantzisko ta Manuel
Erromoldorekin.

**Gure baserriko gauzak
nahi dituztenak jakin
ez dauka beste gauzarik
etortzea gurekin.
Hantxen ikusiko ditu
begirazun batekin
horma galantak egiñak
urdaiazpikoakin**

la ra la

“Mendiko semea naiz eta
mendia dut maite
ta ez naiz bizi mendira
begiratu gabe” (2)

Nahiz eta orain kalean
bizi banaiz ere
ez nitzakela biziko
mendira joan gabe

Gure baserriko gauzak...

la ra la(2)

GURE ELIZ DORREKO

Hitzak/Doinua: Mixel Labeguerie

Gure eliz’dorreko ezquila zaharrak
badauzka hedaturik berrien bakarrak.

“Dilin, dalan, dalan
Din-dan boieran!” (2)

Ene aitatxi zuten noizbait bataiatu,
ezkil zaharra baitzen alegantziatu.

“Dilin, dalan...” (2)

Sortuz geroz gizonak zor du maitatzea,
bai kartsuki jo zuen haren ezkontzea.

“Dilin, dalan...” (2)

Bainan ezkil zaharra zertako brandaka
etsai gaixtoa dator, lot, gizon armaka.

“Dilin, dalan...” (2)

Arrats hotz latzgarria, ezkil hetsitua,
aitatxi gorputz da-ta gerla da galdua.

“Dilin, dalan...” (2)

Bainan ezquila mintzo, xo dezagun adi,
haur ttipi bat sortu da, azkar bizi bedi!

“Dilin, dalan...” (2)

Kanta beza ezkilak menderen mendetan,
kanta beza bizia Eskual herrietan!

Dilin, dalan..., dalan, dalan
Din-dan boieran!

GURE KUADRILLAN

Hitzak: Juan Frantzisko Petriarena "Xenpelar"

Gure kuadrillan, gure kuadrillan
gure kuadrillan moskorra pranko
eta gainera soltero
eta gainera, eta gainera
eta gainera ezkontzerikan
iñork ez dugu espero
ez orain ta ez gero

**Hau dek zoritzarreko
ezkondu beharra
ezkondu baino hobeto
bizitzen dek mutil zaharra (2)**

Ezkondu eta ezkongai,
guztiok ondo bizi nahi,
dirua degunian jai;
familiako buruzagiak
pena gehiago ere bai,
lehen ardoa edaten lasai,
orain urrutitik usai,
etxian gaude andreza

Hau dek zoritzarreko...

Goizian diru kontatzen
tabernarako plantatzen
baskari ona tokatzen:
kafia hartuta kopak edanez
erari fiña jokatzek ...
eginik ez det ukatzen.
orain ezpainak nekatzen,
sardin hezurak txupatzen

Hau dek zoritzarreko...

GURETZAT BERDIN DIRA

Hitzak: Gabriel.Aresti /// Intep..OSKORRI

**Guretzat berdin dira
astea eta jaia,l
lana bihurtzen dugu
kantatzeko gaia.
Har ditzagun eskuan
giltza eta laia,
gariz eta burdinaz
lantzeko Bizkaia.
Guretzat berdin dira
astea eta jaia,
lana bihurtzen dugu
kantatzeko gaia.**

Gitarrarekin aire berri bat
daramagu kantuz egun,
abesti libre eta leiala,
prestu eta noblezadun;
haren medioa zer garen, ongi
izan gaitezen ezagun,
"herri langile nekazaria
hala defendi dezagun" (2).

Guretzat berdin dira...

Gure gogoa ez bedi arren
kantu honekin akaba,
gure ekintza izan dadila
gure hitzaren alaba.
Egun batean esan dezagun
ez "hala biz" bai "hala da",
"nekea eta lana dirade
zorianaren alaba" (2)

Guretzat berdin dira...

Bide honetan baldin bagoaz,
jakin dezagun zergatik,
zin egin behar dugu zintzoki,
bakoitzak duenagatik;
sinestedunek dudarik gabe
bere Jaungoikoagatik
"eta sineste gabeek berriz
bere ohoreagatik" (2).

Guretzat berdin dira...

HABANERA

Xabier Lete

Berriro itzuliko balitz
iragan denbora arrotza
berdin kontsumi nezake
banilla gozo artean,
itsaso urrun batetan
irudimena galdurik
udaberriko euritan
larrosak pizten ikusiz.

Osaba komertzianterik
ez nuen izan Habanan,
pianorik ez zegoen
bizi nintzen etxe hartan,
neskatxen puntilla fiñak
udako arratsaldetan,
errosario santua
neguko gela hotzean..

Ezpainek gordetzen dute
ezpain bustien gustoa
desiozko hotzikaran
etsipenaren tamalez,
gauak zelatan dakusa
kontzientzia bilutsik
badoaz ordu geldiak
gogorapenen hegalez.

**Jaio giñen, bizi gera
ez dugu ezer eskatzen
itsasontzia astiro
kaiatik ari da urruntzen.
Antillak zintzilik daude
argazkien paretetan
karta bat idatziko dut
norbaitek erantzun dezan.**

Tabako, ron ta kanelaz
sukartutako ametsetan
algarak entzuten ziren
Habanako putetxetan,
abanikodun mulatak
gauari haize egiten
musiken aide nagiek
odola erretzen zuten.

**“Jaio giñen, bizi gera
ez dugu ezer” (2)**

HAIKA MUTIL

Mikel Laboa

Haika mutil, jeiki hadi
argia den mira hadi.
- Bai, nausia, argia da,
gur oilarra kanpoan da.
Haika mutil, jeiki hadi
argia den mira hadi

Haika mutil, jeiki hadi
surik baden mira hadi.
- Bai, nausia, sua bada,
gur gatoa beroa da
Haika mutil, jeiki hadi
surik baden mira hadi.

Haika mutil, jeiki hadi
hortxe zer den mira hadi.
- Bai, nausia, haizea da,
gur lehioa ideki da
Haika mutil, jeiki hadi
hortxe zer den mira hadi.

Haika mutil, jeiki hadi
kanpoan zer den mira hadi.

- Bai, nausia, edurra da,
lurra xuriz estali da.

Haika mutil, jeiki hadi
kanpoan zer den mira hadi.

Haika mutil, jeiki hadi
zer oinon den mira hadi.

- Bai, nausia, egia da,
mutiltto hau unatu da.

Haika mutil, jeiki hadi
zer oinon den mira hadi.

HAIZEA DATOR IFARRALDETIK

Hitzak eta doinua: Xabier Lete

Haizea dator ifarraldetik, hego berotik ekaitza,
ez da nabari lanbro artean asaba zaharren baratza.

Eguneroko lagunak ditut beldurra eta zalantza,
ardo txar horrek eragiten dit noraezeko balantza.

Itzal gaiztoak ixurtzen dira mendia hegaletan behera,
argi apalak badoaz laister bat-batean itzaltzera.

Ez dut utzi nahi izen zehatzik izengabetan galtzera,
prestatzen gera etxe hustua arrotz guztiei saltzera.

Etxea hustuz badoa ere noizpait bazuen biztunik,
ez dut onartzen orde z datorren maizter aldrebes hitzunik.

Nahi ez badugu denon artean eraman karga astunik,
gurdi okerra zuzen lezaken dotriñarikan ez dut nik.

Agur oihanak, agur itsaso atariko lizardia,
imajiñetan izkutatzen zait hurbileko izadia.
Odolarekin pozoitzen dugu herri baten izerdia,
irrintzi gorritz jauzika dator irabazleen zaldia.

HAIZEA

Ken zazpi

Haizea bezala
eskuen artetik
ihes egiten duzu,
eta momentu baten
galduta bakarrik
hustuta uzten nauzu

**Behar dudanetan
ezin naiz babestu zure besoetan
baina badakit hor zaudela
izkutatuta nire bihotzean.**

Zure irrifarra gogoan
ezin ahaztu eta ezin ikutu
zergatik ez zauden nirekin,
ezin dut jasan, ezin dut ulertu

Milaka arrazoi
korrika hasi da
inoiz ez gelditzeko,
itxaropen hitzek
ez dute balio
zu berriz sentitzeko

Behar dudanetan...

“Eta agertzen zara
Laboan kantu zaharretan
eta Lapatzako olatu bortitzetan.
Ez zaitut inola berriz galdu nahi
laztana,
baina goizeko ilargia bezala
nigandik urruntzen zara.” (2)

HAURRAK IKAS ZAZUE

Haurrak ikas zazue,
eskuaraz mintzatzen,
ongi pilotan eta,
oneski dantzatzan. (2)

Aide ttun ttiki ttun
aide ttun aide... (3)

Gure kantu zaharrak,
kontserba ditzagun,
aire politagorik
ez da sortu inun. (2)

Aide ttun

Euskaltzaleak gera,
neska-mutil gazte,
poza ta alaitasuna
guk ditugu maite. (2)

Aide ttun

Eperrak kantatzen du
goizian goizetan
ez asko fiatzeko
mutilen hizketan. (2)

Aide ttun

Fiatzen bazerade
mutilen hizketan,
eroriko zerade
harri labanetan. (2)

Aide ttun

HERRIKO FESTAK

Hitzak: Jean Baptiste Elizanburu /// Interp.: Joxemari eta Mikel

**Herriko festak ziran biharamonian,
berak nahi zuten txoko, txoko batian,
harri txabal-txabal baten gainian,
ari ziran, ari ziran trukian.**

Lau atso: hiru neskazahar,
bat alarguna,
jarririk itzalian,
harri txabal-txabal baten gainian,
ari ziran, ari ziran trukian.

Hasi ziradenian kartak partitzen,
eta gainera tantuak kontatzen.

Truk jota,
ta Iñaxik txota,
Mariak txaldun
Errufinak hirua.

Mari Martin, txoratu al zain burua?
lauarekin hiruaren keinua.

Herriko festak ziran ...

Neska egon hadi ixil-ixilikan
hik ez den ikusi nere keinurikan!

Tanta bat edanez gero,
begiak dir-dir, ezin egon ixilik
edan ezan, edan ezan gogotik,
katilua, katilua beterik.

Herriko festak ziran ...

HILTZAILE BAT BEZALA

Hitzak eta Doinua: Julen Lekuona

Hiltzaile bat bezala
hemen naramate
bi eskuak loturik
mundutik aparte.

Errurik ez dutela
azaldu nahi nuke
egia nahi dunantzat
emana dut merke.

Egia esan eta
zigorrez erantzun.
Gure bizkar moretan
daiteke irakur.

Egia utzi eta
hobe`te da entzun?
munduak esandako
zortzi mila gezur.

Nola nahi dela ere
egirik ez utzi.
Nahiz zigorrez lastandu
zure gorputzari.

Gure eginkizunak
eman munduari
egiak gihartzen du
indar berri hori.

IDUZKI DENEAN

Iduzki denean, zoin den eder itzala!
Maitia, mintzo zira, plazer duzun bezala:

Egiten duzula
Mila disimula,
Iñorant zirela;
Erraiten duzula
Bertzetaik naizela,
Faltsuki mintzo zira.

Zazpi urtez beti jarraiki zait ondotik,
Erraiten zautala, ez dut bertze maiterik;

Hitzez fidaturik
Nago tronpaturik,
Gaixoa trixtenik;
Ez dut eiten lorik,
Ez jan edan onik,
Maitia, zuregatik.

Oi! ene maitia, nik ere zure gatik,
Pasatzen dizut nik, zonbeit sabeleko min;

Ezkonduz zurekin,
Samur ait'amekin
Behar nindeite jin;
Ez dakit zer egin,
Ez eta nolajin,
Nik neure etxekeekin.

Oi! ene maitia, nun duz'izpirituia,
Fediaren jabe aita deraukazuia?

Atxikazu fedia,
Maita bertutia,
Libra kontzientzia;
Munduko bizia
Labur da, maitia,
Ez zaitela kanbia!

IKUSI MENDIZALEAK

Ikusi mendizaleak
baso eta zelaiaik,
mendi tontor gainera
igo behar dogu.

“Ez nekeak, ezta bide txarrak
gora, gora neska-mutilak a a a.

**Gu euskaldunak gara
euskalerrikoa.” (2)**

Hemen mendi tontorrean
euskal lurren artean
begiak zabaldurik
bihotza erreta.

“Hain ederra, hain polita da ta,
gora, gora Euskalerria a a a .

**Gu euskaldunak gara
euskalherrikoak.” (2)**

Gu euskaldunak gara
Euskalherrikoak.

IKUSI NUENIAN

(Pello Ziri Ziri)

Ikusi nuenean zure ile latza
iruditu zitzaidan, maitea,
sorginen erratza.

Ikusi nuenean zure bekokia
iruditu zitzaidan, maitea,
zartain ipurdia.

**Ai, ai, ai, ai, ai, ziri ziri Pello,
gizonak ez du ongi ematen
mozkortu ezkeru.**

**Ai, ai, ai, ai, ai, Pello ziri ziri,
zertarako ditugu herrian
honenbeste hordi!**

Ikusi nuenean nik zure bekaina
iruditu zitzaidan, maitea,
gauaren kamaina.

Ikusi nuenean nik zure begia
iruditu zitzaidan, maitea,
anpolai gorria.

Ai, ai, ai, ai, ai,

Ikusi nuenean zure belarria
iruditu zitzaidan, maitea,
azaren orria.

Ikusi nuenean nik zure sudurra
iruditu zitzaidan, maitea,
lukainka muturra.

Ai, ai, ai, ai, ai,.

Ikusi nuenean nik zure ahoa
iruditu zitzaidan, maitea,
karobi zuloa.

Ikusi nuenean nik zure kokotxa
iruditu zitzaidan, maitea,
gastaina morkotsa.

Ai, ai, ai, ai, ai,

Ikusi nuenean nik zure bularra
iruditu zitzaidan, maitea,
basoan txondarra.

Ikusi nuenean nik zure mokorra
iruditu zitzaidan, maitea,
Azpiroz malkorra.

Ai, ai, ai, ai, ai,.

IKUSTEN DUZU GOIZEAN

Jean Baptiste Elizanburu

Ikusten duzu goizean
argia hasten denean,
menditto baten gañean,
Etxe ttipitto aintzin xuri bat,
lau haitz ondiren erdian,
txakur txuri bat atean,
iturriño bat aldean
han bizi naiz ni pakean

Nahiz ez den gaztelua,
maite dut nik sorlekua,
aiten aitek hautatua.
Etxetik kanpo zait iduritzen
nonbait naizela galdua.
nola han bainaiz sortua,
han utziko dut mundua,
galtzen ez badut zentzua

Etxean ditut nereak,
akuillu, haitzur, goldeak,
uztarri eta hedeak.
ihazko bihiezt ditut oraino,
txoko guztiak beteak.
nola igaran urteak
emaiten badu bertzeak,
ez gaitu hilen goseak

Landako hirur behiak,
esnez zanpatu titiak,
ajatxe eta ergiak,
bi idi haundi kopeta-txuri,
bizkar-beltz, adar-haundiak,
zikiro, bildots guriak
ahuntzak eta ardiak..
nereak dira guztiak!

Ez da munduan gizonik,
erregerik ez printzerik ,
ni bezain urusa denik,
badut andrea, badut semea,
badut alaba ere nik.
osasun ona batetik,
ondasun haski bestetik...
zer behar dut gehiago nik.

ILARGIA

Ken Zazpi

Esaiozu euriari berriz ez jauzteko,
esan bakardadeari gaur ez etortzeko.
NA NA NA... NA NA... NA NA NA (2)

Eusten nauen soka zara eta itotzen nauena,
ametsak sortu zizkidana, galtzen dituen.

NA NA NA... NA NA... NA NA NA (2)

**Zuretzat ilargia lapurtuko nuke gauero,
eta zu itsu zaude bere argia ikusteko,
irribarrez, gero minez, eragin didazu
negarra, nire sua itzali da,
ez zara gaueko izar bakarra, ez zara!!**

Esan sentitzen dudana ez dela egia,
une baten sinesteko ez garen guztia.

NA NA NA... NA NA... NA NA NA (2)

Zuretzat ilargia lapurtuko.....

NA NA NA... NA NA... NA NA NA (4)

ILUNTZEAN

Maixa Lizarribar eta Ixiar Oreja

Ilargia uretan murgildu da
itsas arrain txikien artera
uraren hozkirriaren zirrara
hondar epelaren alboan.

**“Iluntzean uraren ertzean
errainu baten argia,
ene maite biok jolasean
olatu zipriztin artean....”(2)**

Haizeak zimurtu du itsasoa
kresalak lehortu malkoa,
maite zure zain hementxe naukazu
izar goiztiarrei begira.

“Iluntzean uraren ertzean...” (2)

Ilargia uretan murgildu da
itsas arrain txikien artera
uraren hozkirriaren zirrara
hondar epelaren alboan.

“Iluntzean uraren ertzean...” (2)

INSUMISOARENA

Hitzak: Jon Sarasua /// Interp: OSKORRI

Postari zintzo horrek / zer dakar karpetan?
amodio gutunik / etzegok hiretan
militarren ohar bat? / bitxia benetan
bidali duenari / eramaioak bueltan.

**Natural sentitzen dut / egiten dudana
eta natural egin / sentitzen dudana.
Insumiso egin naiz / horitxe da dana
ahaztu gabe guztioi / muxu handi bana.**

Nigarrez ari zara / ama maite hori
ba omen nuen beste / aukera ugari.
Nola obedituko / diot eroari
ez badizut jadanik / obeditzen zuri?

Natural sentitzen dut ...

Ene kolega maite / beldurtia haiz hi
aholkuak ematen / ez hadila hasi
kartzelara noala / diostak itsusi
etor hadi bisitan / txorizo ta guzti.

Natural sentitzen dut ...

Funtzionari zoli / ene kartzelero
juezen sententzia / txikien borrero
ezin nauzu hain errez / bihurtu numero
kantari esnatzen naiz / goizero goizero.

**Natural sentitzen dut / egiten dudana
eta natural egin / sentitzen dudana.
Insumiso egin naiz / horitxe da dana
ahaztu gabe guztioi / muxu handi bana
ahaztu gabe guztioi / muxu handi bana**

IÑONDIK IÑOARE

HUNTZA

Txispa batek sortzen du sugarra
doinu honen berezko indarra
ta ez galdu inoiz irrifarra
barra barra, heldu gara Itziarra.

Hasi nahasi, horrek zenbat grazi
gero ikasi eta irabazi
mila hesi eta mila gezi
izan berezi, berezi denak merezi!!

Mozkortzeko ez egin zalantza
ai aibadator gaueko arrantza
kalimotxo pasera gera antza
bilintzi balantza, hori da triskantza!

Sentimendu begiraden alde
esku ta hankak jarri parez pare
trikitixa gure dantzen jabe
hoiek gabe, iñundikiñoare!

IPARRAGIRRE ABILA DELA

Hitzak: Juan Frantzisko Petriarena "Xenpelar" ///
Auspoa 88-89-90

Iparragirre abila dala
askori diot aditzen,
eskola ona eta musika
hori horiekin zerbitzen
"Ni ez nauzu ibiltzen
kantuz dirua biltzen,
komediante moduan.

Debalde festa preparatzen det
gogoa dedan orduan". (2)

Eskola ona eta musika,
bertsolaria gainera,
gu ere zerbait izango gera
hola hornitzen bagera.
"Hatoz gure kalera,
baserritar legera,
musika horiek utzita.
Errenterian bizi naiz eta
egin zaidazu bisita". (2)

IREKI BIHOTZA

Hitzak: Gonzalo Pelaez /// Doinua: Flaco Jimenez
/// Intep.: EGAN

Ireki bihotza maitea neretzako
maite zaitudala badakizu oso ondo
amodioz beterik bihotza orain dut nik
betirako elkartuta zurekin.

Ireki bihotza maitea ireki
ireki bihotza ireki guztiz
ireki bihotza zuk nik bezala
ireki bihotza zoriona da.

Maite nauzu neskatxa
nik maite zaitut
nire maitasuna besterik ez dut
elkar gu betiko biok izango gara
biok gu betiko zoriona da.

IRRINTZINA

Hitzak eta Doinua: Manex Pagola

Erradak, irrintzina, nundik heldu hizan,
hire ohiu samina nun hartua dukan,
mendi kasko-kaskotan ala erreketan?
Erradak, irrintzina, nun sortua hizan
Tralala... Tralala...

Hik dituk, lehenago, bildu
eskualdunak,
Harpe ta, zelaietan, xutik zagotzinak,
hi zintzur, bulharretan, bortuko artzainak
bederamatzak bere, gau eta egunak,
Tralala... Tralala...

Zer ote, daukuk bada, gaur hemen errango
hire ehorts eguna, ez dela biharko.
zimeldu den arbola, baita berpiztuko
xori guztiek betan, berriz kantatzeko.
Tralala... Tralala

Emak ba, irrintzina, beti hireari
idekiz sail berri bat, gogo guzieri
erakuts bide ona, bihots kartsueri
geroa segurtatuz ,Euskal Herriari
Tralala... Tralala

IRUÑEKO FERIETAN

Hitzak eta Doinua: J.B.Otxalde

La, la, la ,la....

Iruñeko ferietan.
Iragan San Ferminetan,
Ehun zaldi arribatu
Andaluziatik tropan
Merkhatu eder bat zauntan,
zaudelarik bi lerrotan.

La, la, la ,la....

Bat zen pikarta-churia;
hartan bota dut begia.
Andaluzak egin zautan
bi untza urrhe galdia
Eskain orduko erdia,
harzak, hire duk zaldia.

La, la, la ,la....

Han nintzen arrapatua,
aginduaz dolutua:
Urruntzeko izan banu
hirur arditen lekhoa,
Gizonez inguratua,
iduri preso hartua.

La, la, la ,la....

Zeruko Jainko Jaun ona!
Zerk ekharri nu ni huna?
Andaluz bat zazpi urthez
presondegian egona;
Laburzki mintzo zautana;
konda niri hitzemana.

La, la, la ,la....

Iruñeko ferietan.
Iragan San Ferminetan,

ISIL ISILIK

Hitzak: Jorge Bucay /// Doinua: Benito Lertxundi

Eta egia bada
ni maitatzeari
utzi diozula,
etzaidazu esan,
arren eskatzen dizut,
ni maitatzeari
utzi diozula
etzaidazu esan.

“Gaur oraindik behar dut
zure gezurretan
xalo xalo
itsasoratu” (2)

Irripartsu (e)ta lasai
lotaratuko naiz,
goizean goiz
esnatuko naiz
eta berriro
itsasoratuko
naizela agintzen
agintzen dizut ...

“Bainan oraingoan,
isil isilkan
eta arrangurarik gabe,
nahita ondoratuko naiz
zure adio
mugagabearen
sakonean” (2)

ITSASOA LAINO DAGO

“Itsasoa laino dago
Baionako barraraino” (2)

“nik zu zaitut maitiago
txoriak bere umiak baino” (2)

“Gure oroit aita dago
lainopian gaueraino” (2)

“nik zu zaitut maitiago
arraitxuak ura baino.” (2)

ITSASOAN URAK HAUNDI

Hitzak eta Doinua: Julen Lekuona ///

Intep.: Xabier Lete

“Zazpi senideko famili batetan
arotza zen gure aita
gure herriko alkate ez izan arren
lan egiten zuena.” (2)

**“Itsasoan urak haundi dire
murgildu nahi dutenentzat
gure herriko lanak haundi dire
astun dire gogor dire
zatituri gaudenontzat.” (2)**

Markatzen ari diren bide nabarra
ez da izango guretzat
lehengo sokari ezarririk datorren
oztopo bat besterik.

“Itsasoan urak haundi...” (2)

“Hainbeste mendetako gure
morrontzak
baditu mila tankera
eta zuhur aukeratzen ez badugu
bertan galduko gera.” (2)

**“Itsasoan urak haundi dire
murgildu...” (2)**

ITSASOARI BEGIRA

Hitzak: Jon Maia /// Doinua: Benito Lertxundi

Zazpi mendeko gauean gaude.

Gure lore eta sasi,
irrintzi, oihu, ele eta ulu,
marmario ta garrasi,
haize enbata, brisa, galerna,
gaur garbi, bihar nahasi,
xake taularen zuri beltzetan
arrats gozo egun gazi.
Ai itsasorik ez bageneuka
zeri so negarrez hasi.

Gure zuhaitza landatu dugu
amildegi muturrean,
adarrak daude ertzetik haruntz;
sustraiak, berriz, lurrean,
bihotz hesteak estu helduaz
esku baten ahurrean.
Bertso berriak jartzera noa
bere indar laburrean,
nola malko bat isuritzen den
itsasoaren aurrean
Nola haizea, ur azalean
Eguzkiaren irteran.

Nola kaioak zorabioan
Itsas enbata bezperan.
Pentsatzen nago gu ere berdin
Ibiltzen ez ote geran
Susmoa daukat gure, patoa
Itsasoa ez ote dan.
Libre ta zabal dugu aurrean
Baina ezin dugu edan.

Heldu herria sustraiaetatik,
tira eta gora jaso.
Jarri Kantauri aurrean eta
mantendu zutik hari so.
Ispilu hortan ikus gaitezen
herriz herri, auzoz auzo.
Zauriak gatzetz itxi ditzagun,
malkoak urez eraso.
Sano ta libre irla txiki
salbatuko gara akaso.

Azken arnasa eman nahi nuke,
eguna hiltzen ari da.
Azken arnasa eman nahi nuke,
bertsoak entzuten dira.
“Azken arnasa eman nahi nuke,
kantari nator herrira.
Azken arnasa ematen degu
eguzkitik eguzkira.
Azken arnasa eman nahi nuke,
itsasoari begira” (2)

ITSASONTZI BATEN

Hitzak eta Doinua: Kaxiano Ibaguren

**“Itsasontzi baten
Euskal Herritik kampa
naramate eta ez dakit nora.” (2)**

Agur nere ama
laztan goxoari
Agur nere maite politari
“ez egin negar
etorriko naiz
egunen baten
pozez kantari” (2)

“Itsasontzi baten...”(2)

Agur senideak
agur lagunari
agur Euskal Herri osoari
“ez egin negar
etorriko naiz
egunen baten
pozez kantari” (2)

“Itsasontzi baten...”(2)

Agur nere ama
laztan goxoari
Agur nere maite politari
ez egin negar
etorriko naiz
egunen baten
pozez kantari

Agur senideak
agur lagunari
agur Euskal Herri osoari
ez egin negar
etorriko naiz
egunen baten
pozez kantari

Gora Euskal Herri
Gora Euskal Herri
Gora Euskal Herriari

ITURINGO AROTZA

Ituringo arotza, Erramun Joakin
Haserre omen zaude zeren dugun jakin.
Santurik ez laiteke fiatu zurekin,
San Kristobal urtu ta joaleak egin.

Arotzak erran dio bere andreaki;
Urtu behar dinagu, ekarran santu hori.
Gizona norat zoaz bekatu da hori.
Etzionagu erranen sekulan nihori.

Ituringo garaile, Ramuntxo Joakin
Haserre omen zira, zeren dugun jakin
Konfesa zaitez ongi, erretorearekin
Ez dute zer fidatu, santuek zurekin.

Kobrezko santurikan inon bazarete,
Egoten al zarete hemendik aparte
Baldin arotz horiek jakiten badute
Joaleak eiteko urtuko zaituzte.

Eleizako serora, ermitauak ere
Bakoitzak zeuen tokitan, egon zaitezte erne,
bestela arotz horiek jakiten badute
elizeko santuak, ihes joanen dire.

Arotzak erran dio bere andreaki;
Begira zaion ongi joale multzoari
Soinua bilatuta denak zauden ongi,
Salatu ez bagindu koinatak, Joana Mari.....

ITZIARREN SEMEA

Hitzak: Telesforo Monzon /// Doinua: Pantxoa eta Pello

*Itziarren semeak ez du laguna salatzen...
Eta zakurren aurrean tinko ta ixilik
egoiten...*

**Itziarren semea: hori duk mutila!
nihor salatu baino nahiago du hila
harro egon liteke Maji neskatala,
espetxetik jali ta joanen zaio bila!
Maji neskatala, hori dun mutila!
Nihor salatu baino nahiago du hila!**

- Haurra zer egin haute holan agertzeko?
- Ama, jo egin naute mintza arazteko
- Izenik eman al duk? Esantzak egia!
- Ez ama, ez dut eman! Jali naiz garbia!
- Jali haiz garbia? - Bai ama, egia!
- Ta amak eskeini zion klabelin gorria

Itziarren semea: hori duk mutila!...

Zazpi gizon nituen joka inguruan
Makilaz hartu naute ostikoz lurrean.
Bainan nik ez dut eman lagunen izenik!
ta hantxe galditu dira fitsik jakin barik!
lagunen izenik! ez baitut eman nik
ta hantxe galditu dira fitsik jakin barik

Itziarren semea: hori duk mutila!...

Lau aldiz sartu naute urean burua
zangotik euki naute zintzilikatua
bainan nik ez dut eman lagunen izenik,
Ta hantxen gelditu dira filxik jakin barik!
Zangotik zintzilik, ni beti ixilik!
Ta hantxen gelditu dira fitxik jakin barik!

Itziarren semea: hori duk mutila!...

Izardia ta odola burutik behera
ezpainak urratu ta azazkalak atera
Bainan nik ez dut eman lagunen izenik,
ta hantxen gelditu dira fitxik jakin barik!
odolez beterik, ni beti ixilik!
Ta hantxen gelditu dira fitxik jakin barik!

Itziarren semea: hori duk mutila!...

*Itziarren semeak ez du laguna salatzen
Eta zakurren aurreantinko ta ixilik egoiten.
Espetxerat igorri dute, Amak ez du ezagutu
Ta Majik, pulliki pulliki, Eman dioska bi musu*

IXIL IXILIK DAGO

Hitzak eta Doinua: Fernando Goenaga

Isil-isilik dago kaia barrenean
untzi zuri polit bat uraren gainean (2)

Goizeko ordubietan esnatutzen gera
arrantzaleak beti joateko urrutira (2)

Pasatzen naizenean zure leihopetik
nigarrak irtetzen zait begi bietatik (2)

Zergatik, zergatik
zergatik, zergatik?
Zergatik negar egin?
Zeruan izarra dago
itsaso aldetik

Bat, bat, bat
bart parrandan ibili,
bart parrandan ibili.

Bi, bi, bi,
ez naiz ondo ibili,
ez naiz ondo ibili.

Hiru, hiru, hiru
golkoa bete diru,
golkoa bete diru.

Lau, lau, lau,
sardina bakalau.

“Anteron txamarrotea
Sinkarren bibotea,
haretzek ei dauko, ei dauko
preso tximinoia.” (2)

Hau dek, hau dek,
hau dek umorea,
kontsolatzeko,
kontsolatzeko
euskaldun jentea.

Kalean gora,
kalean behera,
kalean gora,
zezena a a a (2)

IZARREN HAUTSA

Hitzak eta Doinua: Xabier Lete

Izarren hautsa egun batean bilakatu zen bizigai,
hauts hartatikan uste gabea noizpait ginaden gu ernai.
Eta horrela bizitzen gera sortuz ta sortuz gure aukera,
atsedenik hartu gabe, atsedetik hartu gabe
lana eginaz goaz aurrera, kate horretan denok batera
gogorki loturik gaude, gogorki loturik gaude.


Gizonak ba du inguru latz bat menperatzeko premia,
burruka hortan bizi da eta hori du bere egia.
Ekin ta ekin bilatzen ditu, saiatze hortan ezin gelditu,
jakintza eta argia, jakintza eta argia;
bide ilunak nekez aurkitu, lege berriak noizpait erditu,
hortan jokatz bizi, hortan jokatz bizi.

Gizonen lana jakintza dugu: ezagutuz aldatzea,
naturarekin bat izan eta harremanetan sartzea.
Eta indarrak ongi errotuz, gure sustraiak lurrari lotuz,
bertatikan irautea, bertatikan irautea:
ezaren gudaz baietza sortuz, ukazioa legetzat hartuz
beti aurrera joatea, beti aurrera joatea

Ez dadukanak ongi ohi daki eukitzea zein den ona,
bere premiak bete nahirikan beti bizi da gizona.
Gu ere zerbait bagera eta, gauden tokitik hemendik bertan
saia gaitezen ikusten, saia gaitezen ikusten :
amets eroak bazterturikan, sasi zikinak behingoz erreta,
bide on bat aukeratzen, bide on bat aukeratzen

Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak,
burruka hortan iraungo duten zuhaitz-ardaxka gazteak.
Beren aukeren jabe eraikiz ta erortzean berriro jaikiz
ibiltzen joanen direnak, ibiltzen joanen direnak:
gertakizunen indar ta argiz, gure ametsa arrazoi garbiz
egiztatuko dutenak, egiztatuko dutenak.

Eta egia bilakaturik ametsaren antziduri,
herri zahar batek bide berritik ekingo dio urduri;
guztian lana guztien esku jasoko dute sendo ta prestu,
beren bizitzen edergai, beren bizitzen edergai;
“diru zakarrak bihotzik eztu, lotuko dute gogor ta estu,
haz ez dedin gizonen gain, haz ez dedin gizonen gain.” (2).
gizonen gain



IZOTZ-ONDOKO EGUZKI

Hitzak: Xabier Lizardi /// Xabier Lete-Lurdes
Iriondo

Izotz-ondoko eguzki,
neguaren farre:
olerkariak noizpait
hiri goratzarre.
Emeki duk itxaroz
piztu garai-larre:
“udaberri-lamiak
larreon batzarre”. (2)

Behetik nator, ibarrak
izotzuta utziak,
mendia jaiez dago
urrezko jantziaz.
Haren parrea dadat
irrika biziak,
“gozatua baitu gaur
ezti bereziaz”. (2)

Udalenak irria oi du
zoro ozena;
udak, haragikoia;
udazkenak, bena;
negu-gau oskarbien
izotz-ondorena
“gustiz, bakarra duzu:
denetan emeena!” (2)

Bai baitetza eriao
gean: erio
atzapar itsusia
luzatzen ario
berbizkunde berria
maiteak jario:
“hitzik ezin ta irria
hain ezti dagio” (2).

Izotzak estali zuen
gure Euskalerra;
mintzo ozenak zabaldu
berbizkun-berria.
Itzal-zokondoetan
lore, izotz-bitxia;
“baina haren gainetik
jauntzen eguzkia” (3)

JARDIN BAT ZURETZAT

Hitzak: Xabier Lete /// Doinua: Karlos Gimenez

Egunak eta gauak, uda ta negua,
etsipen ilunena, zorion ordua,
bizitzaren zauriak, helburu galduak,
laztanik samurrenak, bide erratuak,
elkarren babesean igarotakuak

Egunsentiko ihintza, goizeko loreak,
itsasoaren hatsa eta koloreak,
urruneko hiriak, lurralde hobeak,
musika eder baten, azken akordeak,
maitasunezko hitzak barruan gordeak.

Eskutikan hartuta, amilduak gera
erreka bat bezela, menditikan behera,
oinazea geurea, geurea plazera,
itzal bihurtuko naiz, zu galtzen bazera.
itzalaren itzala, ezereza bera.

Mugarik gogorrena, noizpait hil beharra,
igaro eta gero, munduko zeharra,
menta beltzen usaina, zure irrifarra,
betiko gozatzea, nere ametsa da,
zeruko jardinetan, zerurikan bada...

JAUN BARUAK

Benito Lertxundi

“Jaun Baruak aspaldin xederak hedatü zütin”,(2)
“txori eijer bat hatzaman dizü Paubeko seroren komentin,(2)
orain harekin bizirn düzü
“aspaldian gogun beitzin” (2)

“Xedera, baliz halako, merkatietan saltzeko”,(2)
“Ziberuako aitunen semek, eros litzazkie oro,”(2)
Halako, txori eijerto
“zunbaiten hatzamaiteko”(2)

“Igaran, apirilaren bürrian armadaren erdian,(2)
“züntüdan, bihotzian, armak oro eskian;”(2)
present espiritian,
“manka besuen artian.”(2)

“Jaun maite banaizü, erraiten düzü bezala,”(2)
“kita ezazü kita ezazü, Erregeren zerbütxüa” (2)
eta, maita herria
“uken dezadan plazera.”(2)

JOHN ZAHARRA

Hitzak: Pako Aristi /// Doinua: Mo Guille Mear

**“Etixerako ordua
iritsi zaigu John Zaharra
Kanta zagun azkena
alaitzeko gure bidea” (2)**

Zenbat kanta, zenbat hitz
Lagunak lagun truke
Biharko ere zerbait
utzi beharko genuke

Etixerako ordua...

Gure emaztetxuak
lo hartuta leudeke
ai zer gau goxua
ezkonduta bagendeuke

Etixerako ordua...

Etzaitez hasi orain
maitasunaren eske
ilargiaren lagun
zeruraino joan gintezke

“Etixerako ordua...” (2)

JOSEBA ELOSEGI

Hitzak eta Doinua: E. Etxamendi ///
Interp.: Etxamendi eta Larralde

Lotuz aire zaharrari
Dugun kanta pertsu berri
Joseba Elosegiri
Joseba Elosegiri
Joseba Elosegiri
Gizon miresgarriari.

Ene haur eta ahaide
Bai eta Eskualdun haurride
Zonbat zaituztetan maite
Zonbat zaituztetan maite
Zonbat zaituztetan maite
Nehoz nehorke eztaikike.

Adios mendi ederrak
Oihan ta itsas-bazterrak
Adios Donostiarrak
Adios Donostiarrak
Adios Donostiarrak
Jauntziren ditut su-garrak.

Arras trixte da bizia
Askatasunik gabia
Herriarentzat hiltzia
Herriarentzat hiltzia
Herriarentzat hiltzia
Nuen nik neure lehia.

Donostiko medikiak
Erien sendatzailiak
Utz otoi ene zauriak
Utz otoi ene zauriak
Utz otoi ene zauriak
Dagoden orroitgarriak

Ni hiltzen baniz huntarik
Ez otoi egin nigarrik
“Ez baitut nigar beharrik
Ez baitut nigar beharrik
Ez baitut nigar beharrik
Ez badut jarraikilerik.” (2

JOXEMIGEL

**“Joxe Migel,
Migel Joxe,
Joxe Migel,
Migel Joxeren batela” (2)
Joxe Migelen batela,
Txitxarroa ta berdela,
Joxe Migelen batela,
Txitxarroa ta berdela.**

Itsasontziak doiazenien
bixigutan itsasora
neskatilek hartuten dabe
tresna guztien ardura

Joxe Migel,...

Lojetan gertatuten dire
kamada t’a aparejuek
biharamanongo egunien
prest dana euki daidien

Joxe Migel,...

Lojetako neskatilek
txalopak datozenien
hasten dira gorabeheretan
otzara zaharren atzien

“Joxe Migel,...” (2)

KALAMBREAK

Gozategi

Astlehena biharamun ezinez lehertzeaz nago
sabeleko kalanbreak ezin dut gehiago.
Ta zer ondo pasatu non hura gaua atzokoa
denbora luze batean gogoratzekoa.

Ikasketak ahaztu ditut neskak utzi nauela ta
farra on bat botatzeko aitzakirik ez nun falta
zazpi egunetatik behin izaten da larunbata.
Formal ibiltzen naiz baina begira gauzak zer diran
hogeitabi garagardo ta lau gin-tonic segidan
azkeneko coca-colak kalte egin ote zidan.

Astlehena biharamun ezinez lehertzeaz nago
asteburuetan badakizu etxean gelditu.
Ta zer ondo pasatu non hura gaua atzokoa
nire partetik goraintziak buruko-minari
Goizeko bostak ezker ez dut ezer gogoratzeko
balantzaren urratsetan zapatarik gabe nintzen
eskerrak nire galtzetan ez zen txanponik gelditzen.

Hurrengoan emango dut gizon zintzoaren planta
berandu baino lehenago egin beharko dut hanka
hurrengoan izango da honek bueltarik ez dauka.

Astlehena biharamun ezinez lehertzeaz nago
sabeleko kalanbreak ezin dut gehiago
Ta zer ondo pasatu non hura gaua atzokoa
denbora luze batean gogoratzekoa.

Astlehena biharamun ezinez lehertzeaz nago
asteburuetan badakizu etxean gelditu.
Ta zer ondo pasatu non hura gaua atzokoa
nire partetik goraintziak tripako-minari

KANTA ABERRIA

Hitzak eta Doinua: Manex Pagola

**“Kantazak, euskalduna,
kantazak hire Herria!
Kantazak, euskalduna,
hire aberria!” (2)**

Gure mendi zelaiak bakezko
jauntzitan,
Etxe xuri gorriak altzotan!
Gure ikurrin bandera plaza
kaskoetan,
herritarrak kantuz ostatutan!
Horra Aberria nola nik utzi dutan
kanpo alde joan egunetan...
“Kantazak...” (2)

Nere ama maiteak nigarra
gordetzen,
ttipitik bainuen kexarazten,
haren bihotz zaurtuan nik deus ez
ikusten,
haurrak ez baitaki so egiten.
Amaren iduri Euskadi zaut agertzen,
bainan nik kasurik ez emaiten! ...
“Kantazak...” (2)

Euskadi odoletan dute herrestatu,
ezpata ukalditan puskatu!
Gu Euskadiko semek, hor behar
ixildu,
maitatzea omen da bekatu!
Ez, euskalduna, ez! Ez gaiten ba
lotsatu!
Ulitxak lehoina aurtiko du! ...
“Kantazak...” (4)

KANTATUAZ KANTATUAZ

Hitzak eta Doinua: Jon Lopategi ///
Interp...: GOGOR

**“Kantatuaz, kantatuaz
zorion eta penak,
kantatuaz sortzen dira
gure itxaropenak.” (2)**

Goizian goiz argiari
kantuz dabil txoria,
udabarriz eguzkiak
sortutzen dau loria.
Euskaldunen bihotzari
zor jako umoria.,
kantatuaz penak kentzen
dator bertsolaria.

**Kantatuaz, kantatuaz
zorion eta penak,
kantatuaz sortzen dira
gure itxaropenak**

Kaiolako txoritxua,
ez al dozu ikusi?
Kantatuaz alaitzen da
nahiz eta preso bizi;
inguruan ikustian
hainbeste injustizi,
kantatuaz joan nahi dot
mundu honen igesi

**Kantatuaz, kantatuaz
zorion eta penak,
kantatuaz sortzen dira
gure itxaropenak.
Kantatuaz, kantatuaz
nahiz eta bizi preso;
kantatuaz, kantatuaz,
nor garan adirazo**

Errekatxuak alaitzen
nau bere oihartzunez,
itsasuaren deiari
kantari erantzunez;
gazteriak gizartian
jokatzen zentzunez
kantatuaz nasaitzen da
nahiz ta inork entzun ez.

**Kantatuaz, kantatuaz
zorion eta penak,
kantatuaz sortzen dira
gure itxaropenak.
Kantatuaz, kantatuaz
nahiz ta egurra jaso;
kantatuaz, kantatuaz,
nor garan adirazo**

Nora ezian gaur dabil
Euskaldun bidartia
menderatu ezinean
gau ilun ta tristia
iletargi guzurdia
gure argi guztia
kantatuaz sortu daigun
egizko eguzkia

**Kantatuaz, kantatuaz
zorion eta penak,
kantatuaz sortzen dira
gure itxaropenak.
Kantatuaz, kantatuaz
nahiz ta egurra jaso;
kantatuaz, herritarrak,
bilduko dira akaso.
Kantatuaz, kantatuaz
zorion eta penak,
kantatuaz sortzen dira
gure itxaropenak.**

KANTUZ SORTU NAIZ

Hitzak eta Doinua: Jose Mendiage/// KALAKAN

Kantuz sortu naiz eta, kantuz nahi bizi
kantuz igortzen ditut, nik penak ihesi
kantuz izan dudana zerbeit irabazi
kantuz gostura ditut guziak iretsi
kantuz ez duta beraz, hiltzea merezi.

Kantuz iragan ditut gau eta egunak
kantuz ekarri ditut grinak eta lanak
kantuz biltzen nintuen aldeko lagunak
kantuz eman dauztate, obra gabe, famak
kantuz hartuko nauia, zeruko Jaun onak.

Kantuz eman izan dut, zoinbenten berriak
kantuz atseginekin, erranez egiak
kantuz egin baitut, usu afruntuaiak
kantuz aitortzen ditut, ene bekatuak
kantuz eginen ditut, nik penitentziak.

Kantuz eginez geroz, munduian sortzia
kantuz egin behar dut, ontsalaz hiltzia
kantuz emaiten badaut, Jainkoak grazia
kantuz idekiko daut, San Pierrek atia,
kantuz egin dezadan, zeruan sartzia.

“Kantuz ehorts nezate, hiltzen nahizenian.
kantuz ene lagunak harturik airean
kantuz ariko zaizkit, lurrean sartzian
kantu frango utziko diotet munduian” (2)
kantuz har ditzen beti nitaz oroitzian.

KATALINTXU

Otxandiokoa /// Gorka Knorr /// OSKORRI

**Katalintxu lora ederra
zeu krabelina fina a, a, a, a,
antzina egin jatan
zeuganako mina.**

Zeuganako min hori
pentsatu ezker
ezin dot lorik egin
ametsetan baino.

Katalintxu lora ederra...

Amuak bota ditut
ura barrenean
arrakaiak oisteko
eria danian.
Arrakaia jua da
Bilboko hurira
German geratu da
zerura begira.

“Katalintxu lora ederra...”(2)

Zeuganako min hori
pentsatu ezker
ezin dot lorik egin
ametsetan baino.

Katalintxu lora ederra.....

.....
mina a, a, a, a, a, a, a, a....

KATTALIN

Hitzak:Jon Mirande /// Doinua: Errusiarra
jatorrizkoa /// OSKORRI

**“Ene maite, ene maite
ene maite Kattalin
sekulako ta betiko
galdu zaitut Kattalin.”(2)**

Etxe txiki txukun baten
zure aitetamekin
zinen bizi, zintzo bizi
ene maite Kattalin.

Ene maite. Ene maite....

Baina eder zinen zinez
zine izar bat bezin
ile gorri baita zorri,
zuk bazenun Kattalin,

“Kattalin! Kattalin!
Kattalin! Kamaia!”(5)

EEEEHHH! EEE....EHHH!

Ibaiazen zinen joaten
zure ahate beltzekin
goiz batean, bat batean
ito zinen Kattalin.

Ene maite. Ene maite....

Hilerrian bada lore
euzki lili, krabelin
zu zaituzte badut uzte
ongarritzat Kattalin.

“Ene maite. Ene maite....”.(2)

KATUEN TESTAMENTUE

OSKORRI

La,la,la,la...

“Hil da, hil da gure katue,
ein dau, ein dau testamentue” (2):
amamantzako, amamantzako
hankak eta burue,
attittentzako, attittentzako
abarkak eiteko narrue.
Mantxonintzako, Mantxonintzako
tripa-barrue,
horixe dala, horixe dala
katuen testamentue

La,la,la,la...

Hil da, hil da gure katue,.....

KONPLIZE DITUT

Hitzak: Uxue Alberdi /// Doinua: M. Markez

Emakume zuzenak,
okerrak, kirtanak,
moja txintxoak eta
zerrama irtenak,
itsusiak, politak,
atletak, herrenak:
**“konplize ditut eta
maite ditut denak.” (2)**


Langileak, alferrak,
lanik ez dutenak,
tuntunak, mediokreak,
klaseko lehenak,
ale desegokiak,
andre txit gorenak:
“konplize...”(2)

Ama onak ta txarrak,
ama ez direnak,
lurrera jausi arte
mozkortzen onenak
ta umeen merienda
usaina dutenak:
“konplize...”(2)

Lotsatiak, ausartak
argalak, gizenak,
iletsuak, soil-soilak,
marimutilenak,
katemeak, gorilak
panterak, zezenak:
“konplize...”(2)

Lehen munduko emeak,
kapitalistenak,
lur usaia daukaten
andre indigenak,
zuri, gorri, horiak,
beltzetan beltzenak:
"konplize... "(2)

Markesaren alabak,
neskame gizenak,
printzesak ta sorginak,
ogroak, sirenak,
Maritxuak, Bartolo
itxura dutenak:
"konplize... "(2)



KONTRAPAS

.Hitzak: Bernat Etxepare /// Xabier Lete

"Garaziko herria
benedika dadila" (2)
"euskarari eman dio
behar duen tornua" (2)

"Euskera, euskera ialgi hadi kanpora" (2)

"Bertze jendek uste zuten
ezin iskriba zaiteien" (2)
"orain porogatu dute
egainatu zirela." (2)

"Euskara, euskara ialgi hadi plazara" (2)

"Bertzeak orok izan dira
beren goien gradora"
"orain hura iganen da
bertze ororen gainera."(2)
"Euskara, euskara ialgi hadi dantzara."(2)

"Oraindaino egon bahaiz
inprimatu bagerit" (2)
"hi engoitik ebiliren
mundu guztietarik."(2)

Euskara Euskara ialgi hadi kanpora.
Euskara Euskara ialgi hadi plazara.
Euskara Euskara ialgi hadi dantzara.
Euskara Euskara habil mundu guztira.

KONTSESIRI

Juan Inazio IZTUETA

Maite bat maitatzen det, maitagarria;
begi ederra du ta guztiz argia;
daukat urruti,
baina ezin kendu det burutik
haren itxura;
saldu al baliteke pisura
urriaren truke
“nork erosi faltako ez luke.” (2)

Hogei ta lau leguaz nago aparte;
bitartean badauzkat miloi bat ate,
guztiak itxirik;
nahi arren ezin egon ixilik;
beti negarrez;
nere maite-maitearen galdez;
ote dan bizi,
“bihotz-bihotzeko ene Kontxesi.” (2)

Egunaz argi gutxi, gabea ilun,
kotsuelorik ez da neretzat inun
maitea gabe;
egin ote nadin haren jabe
oroituzean,
zenbat pena nere bihotzean
ditut igaro;
“maite det eta ez da milagro.” (2)

Lehengo gau batean egin det amets,
bainan pentsamentuak beti aldrebes
irtetzen dira;
Uztez nengoen zuri begira, maite polita,
kofrearen gainean jarrita
kontu kontari.
“Nahi nuen bainan ez nintzan ari.” (2)

Zure gauza polit bat hor det nerekin
izkribaturik dago letra birekin;
K eta B dira,
askotan nago hoiei begira,
hain dira finak !
Maitetxo polita, zuk eginak
sedaz ederki,
“kolkoan gorderik dauzkat beti.” (2)

Esperantzetan bizi, maite gozoa,
noizpait kunplituko da gure plazoa
eta orduan,
gauza txarrik ez hartu buruan
lehengoai utzi,
ez dugu pasatzen pena gutxi
preso sei urtez,
“onduko gaituzte nere ustez.” (2)

KUPELA, KUPELA

Hitzak: Angel Larrañaga /// Epelde eta Larrañaga

Gertakizun polit bat
 behin Asturiasen
 ez dakit guziekin
 gogorako naizen
 lagun bat eta biok
 andrekin hain zuzen
 sagardotegi baten
 afaria baitzen
 numero dotoreak
 ikusi ginuzen.

**Kupela, kupela
 sagardoen hotela
 kupela, kupela
 zaindu ezak horrela.**

Talde bat osatu zen
 mutil ta neskak
 festan pasa nahi zuten
 gurekin arratsa
 tragotikan tragora
 ze nolako martxa
 sagardoan daukate
 afizio latza
 gehiegi eran genduen
 hori zen akatsa.

kupela, kupela...

Herrialde denetan
 ohitura badira
 esneakin jua ziren
 sagardotegira
 handikan basoka bana
 ohituren neurrira
 gero sagardoari
 txotxetikan tira
 barrez egon nintzaizen
 albotik begira.

Kupela, kupela...

Lehenen esne tragoa
 ohitura bezala
 esan nien ez al zen
 edari makala
 sagardoa hobeto
 asentatzen zala
 nahiz geroagoan
 ez zen izan hala
 hiru ordu baino lehen
 egin zuen txahala.

Kupela, kupela...

Leku berrira zen ta
 joan ginen pozak
 festarako gera gu
 mutil aproposak
 geurea aitortzeko
 zertan egon lotsak
 sarri ireki ziren
 ziri edo zotzak
 bapo kendu ginuzen
 hanketako hotzak.

Kupela, kupela...

Umirez jarri ginen
ondorenean zer
erderaz bertsoetan
lo que hace el beber
inguruko jendeak
barrez egin zun leher
erretiratu ginen
emazteei esker
txispatu ginen baina
ez zen pasa ezer.

Kupela, kupela
sagardoan hotela
kupela, kupela
zaindu ezak horrela
kupela, kupela
sagardoan hotela
kupela, kupela
bete zaigu sabela.

L'ESTACA-AGURE ZAHARRA

Hitzak eta Doinua: Lluís Llach /// Xabier Letek
euskaratua

L'avi Siset em parlava
de bon matí al portal
mentre el sol esperàvem
i els carros vèiem passar.
Ez al dek, gazte, ikusten,
gure hesola zein dan
Desegiten ez badugu,
bertan galduko gera.

**Baina, guztiok batera,
saiatu hura botatzera!
Usteltzen hasia dago ta,
laister eroriko da.
si jo l'estiro fort per aquí
i tu l'estires fort per allà
segur que tomba, tomba, tomba
i ens podrem alliberar**

Pero, Siset, fa molt temps ja!
les mans se'm va escorxant
i quan la força m'en va
ella és més ampla i més gran
Usteltzen badago ere,
karga badu oraindik
Berriz arnasa hartzeko
esaigun alkarrekin

**Baina, guztiok batera,
saiatu hura botatzera!**

.....

L'avi Siset ja nou diu res
mal vent que se l'emportà
ell qui sap a quin indret
i jo sota el portal
Haur batzuk ikusten ditut, eta
inguraturik,
aittona zaharraren kanta nahi diet
erakutsi

**Baina, guztiok batera,
saiatu hura botatzera!**

.....

LA BELLA LOLA

“Después de un año de no ver tierra
porque la guerra me lo impidió
fui hacia el puerto donde se hallaba
la que adoraba mi corazón.” (2)

**Ay que placer
sentía yo
cuando en el muelle
sacó el pañuelo
y me saludó;
luego después
se acercó a mí
me dio un abrazo
y en aquel acto
pensé morir.**

“Cuando en la playa la bella Lola
su lindo talle luciendo va
los marineros se vuelven locos
y hasta el piloto pierde el compás.” (2)

**Ay que placer
sentía yo...**

LA CAÑA DULCE

Estando yo una mañana
triste y lloroso mirando al mar
“me encontré con una mulata
que me mostraba su delantal.” (2)

Quiéreme niña
quíereme niña
quíereme siempre.
Quiéreme tanto
quíereme tanto
como te quiero.
Y a cambio de esto
yo te daré
“la caña dulce
la dulce caña
la caña dulce
y el buen café” (2)

Sus ojos eran azules
como las olas del mar de amor
“y su cinturita curvada
como la caña del pescador.” (2)

Quiéreme niña
quíereme niña
quíereme siempre.
Quiéreme tanto
quíereme tanto
como te quiero.
como te quiero.
¡Ay! mulatita
salta del mar
“que a mi me gusta
que a mi me encanta
que a mi me gusta tu delantal” (2)
tu delantal

LA ENTERRADORA

Letra y música: Gabriel Rodríguez,

Si la ven, quémenla en leña verde
si la ven, mátenla por traición.
Busco a la enterradora de amores,
a la enterradora de mi corazón.

Es bonita de pies a cabeza
quien la ve no puede resistir
quien la abraza, la adora y la besa
sin la enterradora no puede vivir
pelo negro, pestañas rizadas
cara blanca y un negro lunar
enamoran sus dulces miradas
de la enterradora se deben cuidar.

Si la ven, quémenla en leña verde
Si la ven, mátenla por traición
Ando en busca de la enterradora
De la enterradora de mi corazón

Me entregué como pocos se entregan
le confié mis secretos de amor
la adoré como pocos la adoran
y la enterradora, me enterró en dolor.
Mala hierba que enraiza en el cerro
leña verde que no sabe arder
que se pudra pa siempre en el suelo
y tú, enterradora, no sabes querer.

Si la ven, quémenla en leña verde
si la ven, mátenla por traición
ando en busca de la enterradora
de la enterradora de mi corazón.

LAGUN ETOR GUREKIN

Hitzak: Beñat Sarasola /// Doinua: Pierre Paul
Berzaitz/// GUK

Batez,
mendi eta oihanetan,
pentze eta alorretan,
bizi nahi dugu gure etxetan!
Batez,
laborarien hauzia,
ezin da irabazia
nahi norbaitekin
ta nor ez jakin.

Biez,
langile guzien mina,
nagusientzat gaixtagina,
senda ditekea gure indarrez?
Biez,
nun ez den ari gogorka
ezin da egin borroka.
Nahi norbaitekin
ta nor ez jakin.

**Lagun etor gurekin
denek elkarrekin
badugu zer egin.
Gu ez gara lotsatzen
etsaia nun hazten,
han da gudukatzen.
Gure odolez ta ontasunez,
gure izatez dirade gosez,
elkartasunez erakuts hortzak
elkarri josiz buru-gorputzak!**

Hiruez,
Besten bizkar bizi dena,
utzirik bestalde lana,
mozten ahal dira hari hegalak!
Hiruez,
Diruaren lege latza,
ezin da nihundik kasa.
Nahi norbaitekin
ta nor ez jakin

Lauez,
Libertateko bidean,
bide luze ta hertsian,
tinka eta gogor, elkar atxiki!
Lauez,
itotzen ari den haurra,
ezin da ekar bizira.
Nahi norbaitekin
ta nor ez jakin

**Lagun etor gurekin
denek elkarrekin
badugu zer egin.
Gu ez gara lotsatzen
etsaia nun hazten,
han da gudukatzen.
Gure odolez ta ontasunez,
gure izatez dirade gosez,
elkartasunez erakuts hortzak
elkarri josiz buru-gorputzak!**

Bostez,
Ardiz bezt den otsoa
barnea ustelezkoa...
argi ikus nor den gure ondoan!
Bostez,
Barkua zuzen eraman,
haizeari gogor eman.
Nahi norbaitekin
ta nor ez jakin

**Lagun etor gurekin
denek elkarrekin
badugu zer egin.
Gu ez gara lotsatzen
etsaia nun hazten,
han da gudukatzen.
“Gure odolez ta ontasunez,
gure izatez dirade gosez,
elkartasunez erakuts hortzak
elkarri josiz buru-gorputzak” (2)**

LAGUNDURIKAN DENOI

Pedro Mari Otaño

Lagundurikan denoi
gugatik ill zanak,
seme, azi zaitugu
aitak eta amak,
beti zure gidari
izandu geranak.
Oraiñ gurutze onen
oñean esanak,
ondo goguan artu
biaituzu danak.

Zu Ameriketara
joatia emendik,
jaunak ala nai badu
zer egingo det nik!
An ez dezu izango
aitik eta amik;
baña etzera galduko
noranaira joanik,
ez bazaizu aztutzen
gaur emen esanik.

Gorde zazu buruan
eta biyotzean,
aitak zer esan zizun
onuntz laguntzean,
bitarteko arturik
Jesus gurutzean:
Jaungoikua t'ait'amak
batek aztutzean,
ez leike ondo izan
denbora luzean.

Ez nizuke utziko
joaten, egiyetan,
gure erlijiyua
ez balitz an bertan.
Iritxiko baziña,
aiñ urrutiyetan,
erri ta eleizarik
ez dan tokjyetan,
oroi zaitez Jainkoaz
leku guztiyetan.

Seme, izan goguan
zeue gurasuak
eta uzten dituzun
senide gozuak;
jayo ziñan tokiko
mendi ta basuak,
euskerazko otoitzak
edo errezuak,
erakutsiyak zure
amatxo gaxuak.

“Iritxi da orduba
juan bear dezuna,
badakizu ait'amak
emen dauzkatzuna;
ez dezazula aztu
gaur neri entzuna.
Itz baterako au da
eskatzen zaizuna:
izan zaitez non nai ta
beti *euskalduna*.

LAU TEILATU

Hitzak eta Doinua : Juan Carlos Perez /// ITOIZ

Hemen gaude
ta poztutzen naiz
ta ziur zure aita ere bai;
ta zer ondo... zelan dihoa
zure bufanda txuria.

**Lau teilatu gainian
ilargia erdian eta zu
goruntz begira,
zure keia eskuetan
putzara batekin... putz!
Neregana etorriko da
ta berriz izango gara
zoriontsu
edozein herriko jaixetan.**

Goxo goxo
kanta eginazu
Benitoren Maria Solt.
Negarrik ez,
txuri zaude ta malkoak
zure kolorea kentzen dute.

Lau teilatu gainian...

Felix, Felix bihar
berriz egongo gara
txanpain apur batekin;
diru gabe baina
izarrak gurekin daude,
piano baten soinuaz.

“Lau teilatu gainian...” (2)

LEPOAN HARTU

Hitzak: Telesforo Monzon /// Pantxoa eta Peio

**Trailara, trailara
la-la-ra la-la-la-ra
Lepoan hartu ta segi aurrera!
Lepoan hartu ta segi aurrera!**

Gazte bat lurrean aurkitu dugu
lore gorritz beterik kolkoa...
burdinen artetik ihesi dator
euskal gazteriaren oihua!
Mutilak, eskuak elkar gurutza!
ekin ta bultza denok batera!
Bidean anaia erortzen bazaik,
lepoan hartu ta segi aurrera!

Trailara, trailara

Ez dugu beldurrik, ez dugu lotsarik
nor geran, zer geran aitortzeko!
Ez gaituk lapurrak, ez eta zakurrak
kataiaz loturik ibiltzeko!
Gizonak bagera, jo zagon aurrera,
gure herriaren jabe egin arte!
Askatasunaren hegala azpian
kabia egiten ohituak gare!
Ibiltzen aspaldi ikasia dugu,
otsoak eskutik hartu gabe!

Trailara, trailara

Arrotzek ezpataz hil nahi ba naute
izutuko gaituztelakoan,
zutitu ta euskeraz mintzatuko naiz
nere hiltzailearen aurrean!
Mutilak, ez gero nigarrik egin
erortzen banaiz gau ilunean,
izar berri bat piztutzero noa
Euskal Herriko zeru gainean...
Euskal Herriko zeru gainean...
Euskal Herriko zeru gainean...

LILI BAT IKUSI DUT

La,la,la,la..... (2)

Lili bat ikusi dut baratze batean,
Desiratzen bainuke nere saihetsean;
“Loreia ez du galtzen udan ez neguan
Haren parerik ez da bertze bat munduan”
(2).

La,la,la,la..... (2)

Deliberatu nuen gau batez joaitera
Lili arraro hura eskura hartzera;
“Ez bainuien pensatzen beiratzen zutela
Gau hartan uste nuen han galtzen nintzala” (2)

La,la,la,la..... (2)

Etsenplu bat nahi dut eman guzieri
Eta partikulazki jende gazteari
“Gauaz ibiltzen dena ez da zuhur ari
Ni begiraturen naiz eskerrak jaunari” (2)

La,la,la,la..... (3)

LORE POLIT BAT BADUT NIK

“Lili eder bat baduk nik
aspaldi begiztaturik.” (2)
Bainan ez nainte mentura
haren eskura hartzera.
Baitakit zer den lanjerra
hari behatzea sobera.

“Lili ederra, so’idazu,:
maite nauzunez errazu.” (2)
Zure begiek bihotza
barnarik deraut kolpatu.
Kolpe hortarik badizu
Granganetzeko arrisku.

“Ez nuke nahi malurrik
baldin bazindu nigatik.” (2)
Ez dut uste ene begiek
eman dautzuten kolperik
ez duzu beraz lanjerrik
ez zira hilen hortarik.

“Mintzo zirade poliki
poliki eta tendreki.” (2)
Bisitaño nahi dut egin
nik zure ganat laburzki
desirra nuke segurki
bazinezadat permeti.

LIMAKO ARRATSAK

Hitzak: JM Iriondo /// Interp: EGAN

Limako arratsak bai eder
eguzkiaren sarreran
enaratxoak hega eta hegaka
lino gorriak ametsetan.

Limako arratsak bai eder
zeru, eguzki eta itsaso
denak abesti bihurtzen bait dira
eta bihotzak gorantz jaso.

**Neska-mutilen iskanbilaz
alaitzen dira kaleak
zuhaitzetan txio eta txio
haruntz honuntz txoriak
kalez kale maite minez
amesti neskatil gazteak
kalez kale maite minez
amesti neskatil gazteak.**

. Limako arratsak bai eder
politagorikan ez da ezer
sorginkeriz alaitutzen dute
ta maite nahia sortu laister.

Limako arratsak bai eder
urrunean izkututuz
dena eguzkia eta itsaso urdin
inoiz ezin nitzake ahaztu.

Neska-mutilen iskanbilaz...

LOLITA

“Horra Lolita
Azpeitiko neska polita
Horra Lolita
inauteri pitxiz jantzita” (2)

“Dantzan dabil
dantzan beti Lolita bere balsa
Dantzan beti
Loolita beree balsa” (2)

LORE GORRIEN BALADA

Hitzak: Xabier Lete /// Xabier Lete–Lurdes Iriondo

“Zelai ertzeko lore gorriak
neguak zapuztu ditu. “(2)
Neskatzaren ezpain eriak
zeiñek laztanduko ditu?
Gure herriko baratzak dira
lorerik gabe gelditu.
La.la.la.la.....

“Udaberriko lili garbia,
gure lurrean eldua,” (2)
gaueko amets bat bezela
egunsentian galdua,
gizon dirudun baten etxean
ain gazterik usteldua.
La.la.la.la.....

“Loreak zeiñek jarri zituen
elizako aldaretan,” (2)
nagusiak ekarritako
zillarrezko ontzietan?
Orain larrosik ez dut ikusten
Euskalerriko kaletan.
La.la.la.la.....

LORE POLIT BATEN BILA

Hitzak eta Doinua: Jatorri Mexikarra

Lore polit baten bila herritik herrira noa,
zurekin elkartu arte bihotzeko andereñoa.

“Kuttun kuttun estaltzen du
mendi gainea lainoak,
bilatzen zaitudanean
berdinak nere asmoak.” (2)

Mendi tartean haizea zirrika doan antzera,
zure gorputza maitea nahi nuke zirrikatzea.

“Mendi gainea lainoak
estaltzen duen antzera,
egin nahi nuke berdina
zurekin ene maitea.” (2)

Atsedean gabe lasterka egiten nago bidea,
gidaria dut zure usaina berak dakarren haizea.

“Mendi, errota ta zelai
bazter guztiaren jabe,
haizeak bezela nik
izan nahi nuke zurea.” (2)

LORETXOA

Hitzak eta Doinua: Benito Lertxundi

Mendian larrartean
aurkitzen da loretxo bat
aurrean umetxo bat
loretxoari begira.

Loreak esan nahi dio
umetxo aska nazazu
jaio naiz libre izateko
ta ez loturik egoteko.

Umetxoak ikusirik
lorea ezin bizirik
arantzak kendu nahi dizkio
bizi berri bat eman.

Orduan izango baitu
indarra eta kemena
orduan emango baitu
ugari bere fruitua.

LORIAK UDAN

Indalezio Bizkarrondo "Bilintx"

Loriak udan ihintza bezela
maite det dama gazte bat,
hari hainbeste nahi diotanik
ez da munduan beste bat;
inoiz edo behin pasatzen badet
ikusi gabe aste bat,
bihotz guztira banatutzen zait
halako gauza triste bat.

Neskatxa gazte, paregabea,
apirileko larrosa,
izarra bezin dizdizaria,
txoria bezin airoa;
oraintxen baino gusto gehiago
nik ezin nezake goza;
zorionian ikusten zaitut,
nere bihotzak, hau poza!

Ez al dirazu antzik ematen
nik zaitudala nahiago,
ai! marinela gau ilunian
izarra baino gehiago,
nere onduan zauzkatalako
pozez zoraturik nago,
zu ikustiak alegratu nau
triste negoen lehenago.

Nere betiko pentsamentua,
nere konsolagarria,
zu gabetanik ezin bizi naiz
esaten dizut egia;
zu bazinake arbola eta
ni banintzake txoria,
nik zu zinaden arbola hartantxen
egingo nuke kabia.

Falta duenak logratutzeko
hitz egitea txit on du,
eta nik ere saiatu biha't
ote gintezken konpondu;
gaur nagon bezin atrebitua
sekulan ez naiz egondu,
hargatik kolpez galdetzen dizut
nerekin nahi'zun ezkondu

Zerorrek ere ongi dakizu,
aspaldi hontan nagola,
zuregatikan penak sufritzen,
baina ordea, hau nola!
Halaxen ere nigana ezin
bigundu zaitut iñola;
ni zuretzako argizaia naiz,
zu neretzako marmola

Zu zeralako medio baldin
joaten banaiz lur azpira,
gero damua eta malkoak
alperrik izango dira;
"behin joan ezker, hoi birtutez
berriz ez ninteke jira;
hori gertatu baino lehenago
izazu nitaz kupira!" (2)

MADALENARA

Neska zaharrak joaten dira
Madalenara,
Madalenara, Madalenara,
santuari eskatzera nobio bana,
nobio bana, komeni bada.

Santuak esaten die buruakin ez,
buruakin ez, buruakin ez,
zergatik lehenago akordatu ez,
akordatu ez, orain baterez.

Bat eta bi hiru, lau eta boost,
Hamar gehiagokin dira hamabost.

MADARIXATIK ITSASORA

Hitzak: "Beloki" /// Doinua: Pierre Bordazarre
"Etxahun-Iruri" /// Imuntzo eta Beloki

Madarixatik itsas aldera
jarri zentzu denak adi
isiltasunez edertu zara
auskalo zenbat gizaldi
otsoentzako larre malkarrak
azkonar eta saikabi
basapiztien maltzurkeriak
ta gautxorien hegaldi
ez nau harritzen dohain bitxiko
artista izana Sakabi.

Gau oskarbiko ihintzak bustirik
egunsentiko lorea
Izarraitzetik iristen zaio
paregabeko aidea
Attolan behera sartu ezker
horra infernu bidea
zulo barrengo magia horrek
badu indarra ordea
somatzen dugu zerua ere
badela bertan gordea.

Naturak berak sorgindutako
ingurumari salbaia
akelarretan murgil litekeen
paregabeko paisaia
"berdetasunik galtzen ez duen
pago lizarren usaia
oraindik inork ez dizu ostu
bihotz taupada lasaia
zure altzoan ikutzen dugu
zorionaren sabaia"(2).

MADDALEN

Doinua: Flaco Jimenez /// Tapia eta Leturia

Zutaz oroitzen naiz
ene Maddalen
etxetik urrun nabil
maite zaitudan arren.

Festa bakar hartan
azaldu zinen
dena esango dizut
maite zaitudan arren.

Salto ta algara
egin dugu aurten
ia puskatu zaitut
maite zaitudan arren.

Baina bukatu da
seguru naiz zeren
etxetik urrun nabil
maite zaitudan arren.

MAITASUN HITZAK

Joan Manuel Serrat ("Palabras de amor")

Euskaraz: Argoitia anai-arrebak /// EGAN

Berak maite ninduen
nik bera ere bai.
Oraindik oroitzen naiz
bere begietaz,
oraindik oroitzen naiz
zuhatz lore artean
berak esaten zizkidan
maitasun hitz politak.

**Maitasun hitzak,
umil ta xamurrak
besterik etzekin,
hain gaztea zan.
Etzuen mundua,
gaiztoa ikusten
oraindik ametsak,
bizi zituan.**

**Hiru gauz bakarrik
zekizkin esaten,
aintzinako ipuin
xarmangarriak;
Maitasun istori,
poeten abesti,
besterik etzekin,
hain gaztea zan.**

Egunak joan ta gero
Nabaritzen dudanian
bakardade haundi bat
neure bihotzean.
Oraindik oroitzen naiz
zuhaitz lore artean
berak esaten zizkidan
maitasun hitz politak.

Maitasun hitzak,.....

MAITATZEN ZAITUDALAKO

Hitzak: Joxan Ormazabal /// Doinua: Joseba Tapia
/// Tapia eta Leturia

Maitatzen zaitudalako
kantatzen dizut zuri
zu zaitut negu beltzean
eguzki epel zuri
sargori denean berriz
maitasunezko euri.
Maitatzen zaitudalako
kantatzen dizut zuri.

Guz elkarri zenbait kontu
eta zenbait irrino !
Iruditzen zait gerala
ilargitan bi laino,
Iruditzen zait gerala
ilargitan bi laino,
egunez bihurtzen gera
zu ta ni bi txorino.

Elkarri begiratuta
hasten gera kantari
orduak deitzen diogu
maitasun – haizeari
orduak deitzen diogu
maitasun – haizeari
eta harek jartzen gaitu
firi firi dantzari.

Dantza dezagun, ba, dantza
maiteño bihotzeko,
mundura ez ginen jaio
gu triste bizitzeko
baizik tristura guztiak
kantuz poz bihurtzeko,
dantza dezagun, ba, dantza
maiteño bihotzeko.

MAITE ZAITUT

Hitzak: Pirritx, Porrotx eta Marimots /// Doinua:
Xabier Zabala

Koloretako ametsak
esna nagoenean
eta ezin loak hartu
gaua iristen denean.

Saltoka hasita hegan
egiteko gogoa,
nire bihotza taupaka
aire ertzera doa.

Elkarrekin hankaz gora
buruz behera jartzean,
tunelean sartu eta
irrintzika hastean,
bitxiloreekin pultsera
egin dizudanean,
begietara begira
hauxe nahi dizut esan:

**Maite zaitut,
maite- maite zaitut;
pila, pila, pila patata tortilla!
Maite zaitut maite-maite zaitut,
ilargiraino eta buelta maite zaitut**

Begietako dirdira,
irribarrea ahoan,
ezin ditut ezkutatu
zu ikusterakoan;
hanka eta eskuetan,
gorputzean, dardara;
nire bihotza taupaka
aire ertzera doa.

Elkarrekin ortzadarra
margotu dugunean,
ispiluan nire izena
idatzi duzunean,
irratia piztu eta
doinu hau entzutean,
begietara begira
hauxe nahi dizut esan:

**“Maite zaitut,...” (2)
ilargiraino eta buelta maite zaitut.**

MAITEAZ GALDEZKA

Hitzak eta Doinua: Xabier Lete

Egunsenti batetan
maitea zen hila
kalera irten nintzen
Jainkoaren bila.
Nerekin aurrez aurre
esprika zedila:
Behingoz utzi zezala
zeru goi ixila.

**Zutaz, maite, egina dut galde.
Zutaz, maite, egina dut galde**

Bakardade handi bat
neukan bihotzean,
negar egiten nuen
zutaz oroitzean.
Galdera egin nion
Jaunari hotzean.
Gizonok nora goaz
mundutik hiltzean?.

Zutaz, maite,

Orduak pasa ziren
ezer ez un(e)n entzun
nik ez dakit, maitea,
konprenditzen duzun.

Arratsaren ilunak
eguna bildu zu(e)n
Jainkoak inondikan
ez zidan erantzun.

Zutaz, maite,

Etixeruntz nindoala
ohiukatzen nuan:
Jainkoa ez da bizi
gizonen onduan.
Urruti zegok hura
han bere zeruan,
gu bakarrik utzirik
umezurtz munduan.

**Zutaz, maite, egina dut galde.
Zutaz, maite, egina dut galde
zutaz maite galdera egin dut,
baina Jainkoak ez zidan erantzun.**

MAITETXU ITSASOAN DAGO

“MAITE, MAITE”

Hitzak: Argoitia anai-arrebak /// Doinua:
Eskoziako herri kanta

Maite, Maite

Ez ni utzi hemen kaiean

Maite, Maite, zu nere bihotzean

Maitetxo itsasoan dago
itsasontzi batean
Maitetxo itsasoan dago
urrutirako bidean.

Maite, Maite...

Maitetxo noiz etorriko da
nere bihotza zain dago
Maitetxo noiz etorriko da
gu biok elkar bizitzeko.

“Maite, Maite...” (3)

...

MAITIA NAHI BADEZU

Hitzak: Manuel Lekuona Rezola "Urtxalle" ///
Auspoa 116

"Maitia, nahi badezu
nerekin ezkondu
goizian lehendabizi
jeiki biharko dezu" (2)
ohetik, ohetik,
ohetik, ohetik;
gero gosaritara
ni zure ondolik

Goizian jeiki eta
lehenbiziko lana;
eman biharko dirazu
neri pelangana" (2)
urakin, urakin,
urakin, urakin;
ta gainera kafia
bere koparekin

Gosaldu eta gero
lagun arterako
eman biharko dirazu
patrikarako" (2)
harako, honerako,
jokurako, lagun arterako.
nerekin bizimodurik
ez dezu aterako.

Gaztia zera eta
juiziorikan ez
aspertuko zerade
maitia senarrez;" (2)
maitia, tristia,
zu zera neria;
orain zuria naiz eta
konsola zaitia

Zer zala uste zenduen
enamoratzia;
sillan exeri eta
gitarra jotzia?" (2)
Maitia, tristia,
zu zera neria;
orain zuria naiz eta
konsola zaitia!

Preso sartu ninduten
txori bat bezela,
esatiagatikan
zuria naizela;" (2)
"maitia, maitia,
maitia, maitia;
orain zuria naiz eta
konsola zaitia." (2)

MAITIA NUN ZIRA

Maitia, nun zira?
Nik ez zaitut ikuten
ez berririk jakiten
nurat galdu zira?
nurat galdu zira?

Hala kanbiatu da
zure deseina?
Hitz eman zenereitan
ez behin, bai birritan
enia zinela!
enia zinela!

Aita jeloskorra!
zük alaba igorri
arauz ene ihesi
komentü hartara
komentü hartara

Har'eta ez ahal da
Sartüren serora.
Fede bedera dügü
alkarri eman ditügü,
gaiza segürra da.
gaiza segürra da

MAITIAK GALDE EGIN ZAUTAN

Hitzak eta Doinua: Erramun Martikorena

“Maitiak galdegin zautan,
polita nintzanez” (2)
polit, polit nintzela baina,
larrua beltz, larrua beltz.

“Maitiak galdegin zautan,
premu nintzanez ” (2)
premu, premu nintzela baina,
etxerik ez, etxerik ez.

“Maitiak galdegin zautan,
boltsa banuenez ” (2)
boltsa, boltsa banuela baina,
dirurik ez, dirurik ez.

“Maitiak galdegin zautan,
lana banuenez ” (2)
lana, lana banuela baina,
gogorik ez, gogorik ez.

“Gaixoa, hil behar dugu,
guk biok gosez ” (2)
gosez, gosez hil behar baina,
elkar maitez, elkar maitez.

MARIA SOLT ETA KASTERO

Hitzak: P.Topet "Etxahun"

"Maria Solt eta Kastero
bi amoros zahar bero."(2)
Hirurogei hamarna urtetan,
 hartü die amodio
 Kastero jelostü gero,
Maria Solt ezarri kanpo.

"Maria Solt, dua nigarrez
izorra dela beldürrez."(2)
Barnets-Bordako anderiak,
 kontsolatü du elez,
 emazte zaharrik oküpü,
 agitzen eztela ez.

"Maria Soltek arrapostü
Santa Elisabet badüzü."(2)
Saintu zahar bateganik,
 oküpü agitü düzü
Kastero ere bada saintü,
hala nizan beldür nüzü.

"Kastero eztüzü saintü
sobera bürhaüti düzü."(2)
Elizalat juan eta,
 tabarnan egoiten düzü
Kastero denagatik saintü,
Maria Solt antzü zira zü.

MARITXU NORA ZOAZ

Jatorria: Errusiarra: Stenka Razine

Maritxu nora zoaz eder galant hori?
Iturrira Bartolo nahi badezu etorri
 Iturrian zer dago?
 Ardotxo txuria
Biak edango degu nahi degun guztia.

Maritxu, zuregana biltzen naizenian,
poza nabaritzen det nire barrenian
Bartolo, nik ere det atsegin hartutzen
ur bila nuanian banauzu laguntzen

Maritxu, lagunduko dizut gaur mendira,
ur fresko eder bila hango iturrira.
Iturri eder hortan dagon ur garbiak,
Bartolo, alaituko dizkizu begiak.

Maritxu, nere aurrez ez jarri serio
zuri dizudalako zenbait amorio.
par irri gozozkoa egiten badezu
bihotza atseginez betetzen didazu.

Maritxu, baldin asmo badezu ezkontzia,
lendabiziko nintzaz oroitu zatia.
Zure mende jartzen naiz denbora guziko,
Bartolorekin gaizki ez zera biziko.

MARKESAREN ALABA

Sebero Iturrino

Zeruak eta lurrak egin zituen
memoria argitzera zatoz neregana;
esperantza badaukatzerorrek emana
kunplituko dudala desio dudana.

Markes baten alaba interesatua
marineruarekin enamoratua
deskubritu gaberik bere sekretua
amodioa zeukan barrena sartua.

Hala disponiturik jarri ziren biak
kartaz entenditzeko elkarren berriak.
Formalidadea(re)kin jartzeko egiak
baina ez ziren lo egon amaren begiak.

Amak esaten dio: Juanitanerea
galdu da, diotenez Antonio Maria.
nik bilatuko dizut beste bat hobe
maiorazko, interes askoren jabea.

Hau da lehendabiziko hark esan zuena.
-Zer da musikarekin onratzen dutena?
Markesaren alaba kalean barrena
esposario zela hark behar zuena.

Penarekin leherturik Antonio hil zen
akonpainatu zuen Juanitak elizan.
Maitasuna bazion esan dudak gisan
geroztikan ez zuen osasunik izan.

Elkarren konpainian guk ere nahi dugu
Birjina egiozu Jaunari erregu
kristau guztiogatik baldin ahal bazenu
Iturrinok horrela desiatutzen du.

MARKOXEN TXERRIXE

Hitzak: Xabier Arriaga "Txiplas"

Markoxek egin eban
lastozko zubixe
bertatik pasatzeko
bera ta txarrix
pasatzen hasi ziren
jausi zen zubixe
Markoxek hartu eban
sentimendu haundixe.

Errekatik urten zan
goraino bustirik
gainera zikatzeko
ez zan eguzkirik
egindakoarekin
guztiz damuturik
berriz ez dau egingo
lastozko zubirik

Tralarara..

Horrelaxe hil jako
makina bat pizti
baina aurrera doa
euri zein eguzki
Markoxi berdin jako
busti zein ez busti
errekan zehar doa
txarri eta guzti.

Erreka bazterrean
guardarekin kezka,
lizentzi barik egin
ete dauen peska.
Eskuak gora jasoz
Markoxen protesta:
Hau neure txarrix da,
arrainkaixa ez da

Tralarara..

Markoxen txarrix zan
artoz hasikoa
San Martinetarako
berebizikoa.
Berari alde eginda
Hor igesi doa:
Agur solomo eta
urdaiazpikoa.

Bere txarrixen bila
behera eta gora,
ihesi egin deutso
ta ez daki nora.
Horren pentsamendua
datorko gogora:
Gatzunaskaren baten
gordeta egongo da

Tralarara..

MARTXA BATEN LEHEN

NOTAK

Hitzak: J.Artze /// Doinua: Mikel Laboa

Eguzkiak urtzen du goian
gailurretako elurra
uharka da jausten ibarrera
geldigaitza den oldarra.

Gure baitan datza eguzkia
illuna eta izotza
urratu dezakeen argia
urtuko duen bihotza.

Bihotza bezain bero zabalik
besoak eta eskuak
gorririk ikus dezagun egia
argiz beterik burua.

Batek gose diraueno
ez gara gu asetuko
bat iño loturik deino
ez gara libre izango.

Bakoitzak urraturik berea
denon artean geurea
Eten gabe gabiltza zabaltzen
gilzatasunari bidea.

Iñor ez iñor menpekorikan
nor bere buruan jabe
herri guztiok bat eginikan
ez gabiltz gerorik gabe.

Batek gose diraueno
ez gara gu asetuko
bat iño loturik deino
ez gara libre izango.

Eguzkiak urtzen du goian
gailurretako elurra
uharka da jausten ibarrera
geldigaitza den oldarra.


MATALAZ

Hitzak: B.Goihenetxe /// Benito Lertxundi

Dolü gabe, dolü gabe hiltzen niz.
bizia Xiberuarentako emaiten baitüt.

Agian, agian, egün batez
jeikiko dira egiazko Xiberutarrak,
“egiazko eskualdünak,
tirano arrotzen hiltzeko.”(2)

Agian, agian,...



MENDIAN GORA HARITZA

Hitzak. Xabier Amuriza ///

Doinua Bertsia 1: Imanol Lartzabal

Doinua Bertsia 2: Mikel Urdangarin

Mendian gora haritza
auntzak haitzean dabilta
itsasoaren arimak dakar
ur gainean bitsa.

“Kantatu nahi dut bizitza
usteltzen ez bazait hitza
mundua dantzan jarriko nuke
Jainkoa banintza.” (2)

Euskal Herriko tristura
soineko beltzen joscura
txori negartiz bete da eta
umorez hustu da.

“Emaidazue freskura
ura eskutik eskura
izarren salda urdina edanda
bizi naiz gustora.” (2)

Bizitzaren alarguna
heriotzaren laguna
bekoki beltza jarri ta ezta
harritzen hil duna.

“Etorriko da eguna
gogorra edo biguna
kanpai tristeak entzun da
barre egingo duguna.” (2)

Euskal Herriko poeta
kanposantuko tronpeta
hil kanpaiari tiraka eta
hutsari topeka.

“Argitu ezak kopeta
penak eurentzat gordeta
goizero sortuz bizitza ere
hortze zegok eta.” (2)

Mundua ez da beti jai
iñoiz tristea ere bai
bainan badira mila motibo
kantatzeko alai.

“Bestela datozen penai
ez diet zuri bota nahi
ni hiltzen naizen gauean behintzat
egizue lo lasai.” (2)

MENDIRIK MENDI

LA... RA... LA...

“Mendizaleak, aurrera,
goazen mendi gailurrera,
euskaldunak esnatzera,
tralalaralai, tralalaralai.” (2)

Aupa goazen mendi txindorrez
beti gora, maldetatik,
ederra da gure herria;
maite degu bihotzetik
ez da ludian hoberik,
larala, larala,
ez da lurrian hoberik.

“Goazen mendirik mendi
baserritik baserrira,
esanaz alaitasuna.

Laster datoz
bai anaia gurekin.” (2)

LA... RA... LA...

MONJETAKO ONTZARI

AZPEITIKO BI ERREMENTARIK
(1840-1850)

[Noeren untzia (1840-1926). Auspoa
136 Zbkia, 1979]

Bide berritik bera giñazen
astelen illuntze baten,
boz mudatuba aditurikan
jarririk erreparatzen,
monjen pareta-zulo batean
ontza zegoan kantatzen.

Nun zegon ondo begiratura
eman giñokan arrika,
iñora ere etzan mogitzen
geuri begira jarrita,
nekerik asko artu genduan
eskallerak ekarrita.

Eliz-kalian eman ziguten
eskallera bat galanta,
entero labur zan ura ere
aren alturan parata,
luzegarri eske juan giñaden
ura zutikan largata

Erreparatzen laister asi zan
eskalleraren otsari,
estimazio ematen giñon
zuluan zegoan ontzari,
lumak kenduta pisau ezker
etzan izango ontza bi.

Egazti oiek arrapatzia
jentiai ongi zeritzan,
geuri eskapau tellatura ta
ujuka pozik zebiltzan,
komentu orrek anparu ona:
daduzka oiek elizan.

Egunez beti isillik dira,
gabian berriz kantari;
engañaturik larga ginduzten
oiek bi errementari,
oraindik atxi bear ditugu
or baldiñ badaude sarri.

Arrapatzera saia dedilla
oliyuaren jabia,
bestela laister itzaliko da
gau guztirako pazia,
egazti ori guztiz omen da
argitan eranzalia.

Agur ontzari esan giñon ta
«gabon Jainkoak dizula»,
aragi asko ezpadu ere
badu kanpotik itxura,
egazti ori artuta ere
saldu eziñ leike pisura.

Errementari batek

MUGA GAINETIK

Hitzak eta Doinua: Niko Etxart

Müga gainetik Euskal Herria!!
Müga bestaldetik Euskal Herria!!
Nun da ordean Frantzia?
Nun da España???
“Müगतik bi aldetan beıt’ Euskal
Herria”(2).

Barda izan nizala bestala Iruñean,
ezpenakin española
ordian eüskaraz mintzatü nintzala.
“Bai ta euskaldünen artian,
eder da algar kunprenitzia” (2)

Müga gainetik...

.....

Barda izan nizala bestela Baionan
Mikelek etzakean Frantsesa
Ordean eüskaraz mintzatu da
“Bai ta euskaldünen artian,
eder da algar kunprenitzia” (2)

Müga gainetik...

MUNDURAT EMAN NINDUZUN

Hitzak-Xalbador /// Doinua: Benito Lertxundi

Ama, nola zure belaunetan
nindadukazun artean
utz nezazu zure bularrean
burua pausa dezadan;
ene bihotzak zer sendi duen
nahi baiterautzut eman,
zure ezpain sakratuetarik
ikasi nuen mintzairan.

Ene deia amodioaren
bidez zinuen entzun,
eta gero oinazen erdian
mundurat eman ninduzun;
biziaren grazia lehenik,
gero hoinbertze maitasun,
berant jakin dut, ama maitea,
zendako eman dautasun.

Adierazi zerautanean
odolak bere mintzoa,
berriz gogoratu zitzerautan,
o ama, zure altzoa;
bai ta zure bularretik hartu
esne on haren gozoa,
orduz geroztik zurea naukan
ene izaite osoa.

MUÑAGORRIREN BERTSOAK

Hitzak: Muñagorri /// Doinua: Benito Lertxundi

Muñagorrik diona
bere proklamian,
gerrak ondatzen gaitu
bostgarren urtian;
igaz jarrikan Carlos
Madrilko bidian,
bultza zuten atzera,
gerra bere-gerra bere oñian.

Agintari onenak
preso daduzkate;
euskalduna izatia
du bakoitzak kalte.
Tejeiro ta Maroto
guztien alkate:
Zer gizon oyetatik
espera-espera gentzake.

Carlos agertu ezkeru
probintzi auetan,
beti bizi gerade
neke ta penetan.
Naiz kendu guk deguna
beinere ezer eman;
Bost negar egiteko,
nunbaio jaio-nunbait jaio giñan.

Semiak soldadu ta
preso gurasuak,
ezin pagaturikan
kontribuziyuak.
Trintxera lanetara
gainiera auzuak.
Dolorezkoak dira
gaur gure-gaur gure pausuak.

Kordoiz inguraturik
kostatik Ebrora,
trabaz gaude josirik
bera eta gora.
Atzenikan frantsesak
itxi du frontera.
Gerrak ez dakar onik
iñundik-iñundik iñora.

Atiak itxi eta
ogia garesti;
artua ere ari da
igotzen poliki;
“dirua ezkutatzen da
egunero emendik.
Nola bizi garen bada,
arritutzen-arritutzen naiz ni”. (2)

MUTIL KOXKOR BAT

“limosnatxo bat”

Hitzak: Pedro Mari Otaño

Mutil koxkor bat itsu aurreko
zuela aldamenian,
gizon buru-soil, bizar-zuri bat
bi makuluren gaiñian,
kale izkinan ikusi nuen
iñora ezin joanian;
ta bera nor zan jakin nahiean
inguratu nintzanian,
limosnatxo bat eskatu zidan
Jainkuaren izenian.

Zerbait emanaz galdetu nion
ahal zan modu onenian
jaiotzetikan al zeukan hala
gaitzak hartuba mendian.
erantzun zidan: -“Ez semia, ez,
nik indarra nuenian,
ez nuen uste iritxitzerik
honetara azkenian...
Gaur limosna bat eskatutzen det
Jainkuaren izenian.

Eta jarraitu zuan esanaz:
-“Lehengo gerrate denian
ni aurre xamar ibiltzen nintzan
beti edo gehienian;
nekatu gabe aisa igoaz
aldapik luzienian;
etzan burura asko etortzen
gu hala gabiltzanian...
gero limosna eskatutzerik
Jainkuaren izenian.

Odolak bero eta burua
harrua daguanian,
edozein eran sartutzen da bat
halako itsumenian;
atsekabe ta negar samiñak
badatoz ondorenian;
nola era bait batek bizia
utziten ez duenian...
limosnatxo bat eskatu bihar
Jainkuaren izenian.

MUTIL ZAHARRAREN DESPEIRA

Juan Frantzizko Petirena “Xenpelar

Dotzena bat bertso berri gaztien kontsolagarri
nere mingaña sano dan arte, nahi nituzke jarri.
Begiratuaz alkarri, andrerik ezin ekarri,
mutil zarraren despeida zer dan,esango det sarri.

Egon zaitezte aditzen,zartuta nola gabiltzen,
gazte dan arte,ezkondu gabe, errez da gelditzen.
Ajiak zaizkit berritzen,eta indarrak urritzen,
orain jarri naiz soldata gabe,anaia zerbitzen.

Iñork nahi badu ikusi.nere bertsuak ikasi,
nekia frango,esker gaiztua,alimentu gutxi.
Anaia daukat nagusi,indarrak juanak igesi,
hontaz aurrera, hoien mendian, beharko det bizi.

Hezurak zaizkit gogortu,belarriak oso gortu,
modu horretan mutil zarraren.inbiriai nork du
Andrerik ez nuen hartu,oraiñ anparo behartu,
fraile nahitare ezin ninteko, komentuan sartu.

Koñatak nauka arrotza, hua hemendik urruntza,
lana eginda esker gaixtua.alimentu hotza.
Soldata gabe morrontza,begiratua zorrotza,
animosua ez dago rnutil zarraren bihotza.

Lenago erromerian dama gaztien erdian,
jira ta buelta.ibiltzen nintzan,fanfarroikerian.
Orain trixtura begian nago estadu larrian,
pipa bat hartu hortzian eta.suaren guardian.

Mutilla bere zarrian,neskatxekin indarrian,
egun guztiak,hoien pardelak,nere bizkarrian.
Gero ilunabarrian istimazio txarrian,
ibiltzen naute,soiñeko galtzak,kendu beharrean.

Mutil zarraren pobreza iñork ikusi nahi eza,
Eskarnentua duenik bada,kontsidera beza.
“Hauxen da nere bajeza,nork izango ez du pereza,
illobentzako,utzi beharra bere interesa” (2).

NAFARROA ARRAGOA

Hitzak eta Doinua: Xabier Lete

Nafarroa, arragoa argiaren pausaleku
Haizearen ibiltoki zabal, hesirik gabea
Nafarroa, arragoa, sua eta ura,
Kondaira urratu baten ohiartzun oihukatua.
Amets bat baino gehiago, ez oparotasun osoa
“Nahiaren eta ezinaren burruka toki ekaitzez betea.” (2)

Nafarroa, arragoa mahats eta gari,
Maitasun eta gorroto, gezur eta egia gurea,
Nafarroa, arragoa, lur beroen sabel emankorra,
“Eta goiko mendi hotzen mendetako loa.” (2)

Nafarroa Nafarroa, zuhur eta eroa,
Lurrik maitatuena hormarik gabe utzitako etxea:
Erreka gardenen negarrez ibai lodietara,
Ixurtzen ari den odol bustikorraren iturri bizia.

Nafarroa, arragoa, izen bat eta oinarri,
Eta oinaze eta bidean zure bila ibiltzea,
Pinudiek usaintzen dituzten
Harri xigorrezko bidetan gora.
“O! Nafarroa, Nafarroa betikoa “ (2)
Uhhh.... Uhhh.... Uhhh....
Amets bat baino gehiago ez oparotasun osoa
“Nahiaren eta ezinaren burruka toki ekaitzez betea.” (2)

NAFARROAKO ERESERKIA

Nafarroa, euskal estatu europarra
zure ospea da
euskaldunon lege zaharra.

Nafarroa, jende askatuaren estatua
zuri nahi dizugu kanta.

“Euskal Herri bat denok gogo bat.

Askatasun bidea eginez

Burujabetza.” (2)

NAFARROA (jota)

Jean Mixel Bedaxagar

Arbasoen harkaitza
Nafarroa, Nafarroa, Nafarroa,
arbasoen harkaitza,
lur emankor hezkaitza
bedatseko ekaitza
ekiaren emaitza
Nafarroa, Nafarroa,
arbasoen harkaitza.

Zazpitan lehena
Nafarroa, Nafarroa, Nafarroa,
zazpitan lehena
gaztelien auhena
Santxoren hasperena
gazteen itxaropena
Nafarroa, Nafarroa
zazpitan lehena.

NAFARROAK KATEAK DITU

Fermin Balentzia

**Nafarr(o)ak kateak ditu
kanpoan eta barnean:
armarrikoak geureak,
bortxaz jarriak besteak,
bortxaz jarriak besteak
armarrikoak geureak;
kanpoan eta barnean
Nafarr(o)ak ditu kateak.**

Santxo Azkarrak, Santxo Azkarrak
biziko balitz gurean
kate horiek hautsita
batuko gintuzke denak.
Jada ez dira mairuak
mugen aurka datozenak;
orain kristau txisteradun
dira hortan dihardutenak.

Nafarr(o)ak kateak ...

Mila bostehun (e)ta hamabian
Albako Duke arrotzak
sartu armada Iruñean,
Nafarroan gerra-hotsak.
Harrezkero gaztelarra
Nafarroan erregetzat,
barre egin zuten monarkek
ta negar nafar bihotzak.

Nafarr(o)ak kateak ...

Historia Herriak egin,
kontrabandistek idatzi;
nahieran kontaktzen dute,
gezur biribilez jantzi.
Obanosko infantzoiek
lelo hau ziguten utzi:
“Izan libre aberri askean,
Nafarroak ez du ahortzi!”

Nafarr(o)ak kateak ...

NAFARROARI

Hitzak: Fernando Aire “Xalbador”

Goizean jeiki ohetik eta non nagon eginik galde diot: “aurrean-Baztan daukazu gibelean Erro alde, ezkerretarat Eugi herria eskuinalderat Luzaide zure guziak Nafarroaren hegalen azpian daude”.

Ene amatxi zendu maitea Auritzberriko izanik nafartarraren odol kartsua zainetan senditzen dut nik, eta artzaintzan Sorogain mendi zoragarriat iganik, norbaitek: “atzar adi! diola” entzuten dut urrundarik.

Ene sortzeko agerietan ni naiz baxenabartarra titulu horrek lehen hitzean galtzen du bere indarra ni beheretar zendako deitu, neurez banaiz orotarra? Goi ta beherik ez da enetzat Nafarro bat da bakarra.

Bere zainetan sendi duena hastapeneko odola; eman dioten izen mendreaz nekez daiteke kontsola; ezin onartuz bizi naiz beti murrizturikan dagola; bere itzala Baionaraino hedatzen zuen arbola.

Bainan enetzat, o Nafarroa, ez da ezin igarria izena nola gorde duzun zuk eta guk hartu berria; enbor sendoan sartu baitzuten aizkora beldurgarria, zure laurki bat bertzerik ez da ni bizi naizen herria.

Bi aldetarik nagusi bana jarritz gero Nafarroan; ez dakit gure etorkizuna zoin ateri buruz doan; ez eta ere gaur zer hainetan zauden zu euskaldungoan bat gineneko egun ederrak ditut bakarrik gogoan.

Betititako arrain handien lege okaztagarriak gaitu nafartar anai arrebak bi taldetan ezarriak; bainan ele huts dira tratuak, itxura huts zedarriak; hitzez ta harriz ezin hautsiak dira gure lokarriak

Oi Nafarroa banatorkizu otoizka fagore galdez: urrikal zaite ukatu nahi zaituzten seme alabez; “bertze koroka batek estaltzen bagaitu ere hegalez; Baxenafarrak Ama zu zaitu, guk nahi izan ala ez” (2).

NAVARRA TIENE CADENAS

Fermin Balentzia

**Navarra tiene cadenas,
Por a dentro y por afuera,
las del escudo son nuestras,
las de fuera son impuestas.**

**Las de fuera son impuestas
las del escudo son nuestras
Navarra tiene cadenas,
por a dentro y por afuera.**

Sancho el Fuerte, Sancho el Fuerte
Sancho el Fuerte si viviera
uniría a los navarros
pa romper estas cadenas.
Y ahora ya no son los moros
que atacan nuestras fronteras,
ahora se llaman cristianos,
van vestidos de chisteras.

Navarra tiene ...

En el 1512
el duque de Alba entró
con su ejército en Pamplona
partiendo Navarra en dos.
Desde entonces en Navarra
el rey de Castilla mandó.
Se rieron los monarcas,
pero Navarra lloró.

Navarra tiene...

La historia la hace el pueblo
y la escriben contrabandistas.
Cuentan lo que les conviene
y lo adornan de mentiras.
Pero un lema nos dejaron
los infanzones de Obanos:
ser libres en patria libre
que Navarra no ha olvidado.

Navarra tiene...

NERE HERRIKO NESKATXA MAITE

Benito Lertxundi

Nere herriko neskatxa maite
ahozko lorez zaitut gaur laztantzen
itsaso garden, lur gozoko landare
kresalaren usain, zeru kolore
“nere bihotzaren taupaden hotsez
zure grazia dut kantatzen.” (2)

Bihotz minberen egunsentia
herri sufrituaren lamia
ipuin zaharren piper eta ezitia
erreka garbien kantu bitxia
“udazken lizunez zaude jantzia
izar zerutarren irria.” (2)

Lanbro artetik itsas geldira
leunki zoazen txori airoa
amodiozko sentipenaren hatsa
zure ezpainetan loratuz doa
“goizeko ihintzetan belardi zera
eguzkitan zilar dizdira.” (2)

NERE MAITEA JAIKI TA JAIKI

Oiartzungo kantutegitik /// Juan Mari Lekuonak jasoa

“Nere maitia, jeiki ta jeiki
ez al-zerade loz ase” (2)
Zure ondotik gabiltzan hauek
ez baigerade loale,
iriki zazu bortaine hori;
adiskideak gerade.

«Ez dizut bada nik irikiko
gau ilunian aterik” (2)
Barrenen dagonak ez baidaki
kanpokoaren berririk.
Zatoz eguna argitzen danian
egongo gera elkarrekin.

«Bihar goizian etorritzeko
urrun bizi naiz, maitia!” (2)
Txakurra sangaz hasitzen bada
nork egingo du pakia
Harrekikoa nik egingo det
arren, etorri zaitia.

“Hona etorri, dama gaztia,
esan zenidan bezela” (2)
Ongi etorri, galai gaztia,
neronek nahi nuen horla,
Hitz bi gustora egin ditzagun
pasa zaitia salara.

“Salara joan da kutxan eseri,
begiratuaz elkarri” (2)
“Inposible da ez zaituela
Ama Birjinak ekarri.
Beti-betiko hartu nazau
penaren kontsolagarri”.(2)

NERE SENTIMENTUA

Hitzak: Antonio Urbieta Yarzabal /// Auspoa 114”

/// Bertsioa: Oiartzungo kantak

“Nere sentimentua
nahi det deklaratu,
Ameriketan nago
hau ezin ukatu;” (2)
“hemen egiñagatik
ondo gobernatu,
horkoaz egiten naiz
asko akordatu” (2)

“Honuntz etorri nintzan
utzirikan ama,
anai-arrebak eta
familia dana, ” (2)
“egitiagatikan
desio nuena,
geroztik triste dabil
ai, nere barrena!” (2)

“Hamazazpi urtetan
banuen segira,
neska gazte guziak
neroni begira;
“lurrik ikuitu gabe
gorputzari jira,
orduko arintasunak
asentatu dira. ” (2)

NIGARRA BEGIAN

Hitzak: Fernando Aire "Xalbador" /// Doinua:
Benito Lertxundi

"Gorputz ederra nuen,
dantzari ariña,
baiñan ez da izaten
betiko egiña; " (2)
"hemen egiñagatik
orain ahalegiña,
ez gera libertitzen
orduan haiña. " (2)

"Horko bizimoduaz
oso aspertuak,
honerako ziraden
gure desiuak; " (2)
"orain atzera berriz
emanik pausuak,
hemen bizi gerade
erdi mudatuak" (2)

"Despedida dijoa
sei bertso hoiekin;
anaia, konformatu
horrenbesterekin; " (2)
"nere gustua zer dan
nahi badezu jakin,
beste horrenbeste jarri ...
Aio, Joxe Joakin" (2)

Sumatuz euskaldunak,
ospetsu nahian,
guretik deus ez duen
hizkuntza mihian,
"sofritzen egoiten naiz
horien erdian,
gutaz ahalgetuta,
nigarrara begian." (2)

Nehoiz etzeraukula,
nik ez dut etsiko,
gure kontzientzia
atzartzen hasiko;
"egungo balentriak
ez baitu betiko
odolaren mintzoa
isilaraziko." (2)

Oi entzule maitea,
otoi barkamendu,
ez badut bozkarioz
kantaldi hau ondu!
"jostetako gogoa
dautate kendu,
aunitz maite duenak
aunitz sofritzen du." (2)

NIGARREZ SORTU

Nigarrez sortu nintzan, nigarrez hiltzeko;
Ez ordean munduan luzaz bizitzeko:
Jendek izanen dute erraiteko frango,
Aita ama maiteak zuen biendako.

Aita-ama maiteak, mundura zertako
Eman izan nauzue zorigaitz huntako?
Nik ez nuen hobetik hola tratatzeko:
Federik eman gabe abandonatzeko.

Sortu nintzen ordutik hiru oren gabe,
Berho-xoko batean gaixoa eman naute
Nihaur bakharrik bizi, xoriak haurhide
Ene kontsolatzerat kantuz heldu dire.

Ni goizeko aroan hementxe paratu;
Geroztik iguzkia gainetik pasatu:
Aita gorde da eta amak nau ukatu:
Ez othe naute behar norbaitek altxatu?

Sortze trixte huntan naiz..mundura ethorri,
Oi hemen niagozu, bildotx bat iduri:
Lurra sehaska eta zerua estalgi,
Norena othe naizen Jainkoak badaki.

Zeruan iguzkia zelarik aphaldu,
Andre gazte bat zaitan aldetik pasatu;
“Aingeru bat nintzela zenean ohartu
Amultsuki ninduen besoetan hartu.” (2)

NIREKIN

Hitzak: Jon Maia /// Doinua: Gozategi

**Emoixtaxux muxutxuek
maitie
hartuixu guruxun
guztixe
eroaixu bixotz
tristie
zure bixotzarekin.
Emostazu porrutxue
sorgine
ahetexu baten
berdine
begitxu gorrixen
samine
sendatuixu nirekin.**

Oinak hotz gabien,
berbak irratixen
bero pixka bat
gure neuke
berbaixu bajutxu,
eskue helduixu
ez utzi laztanik eiteke.

**Gero esnatzien
lagaixu etxien
zure marrubi usaintxue
ta ez eixu pentsa
ez dela erreza
gauza politxek pentsatzie.**

**Emoixtaxux muxutxuek...
Gero esnatzien...
Emoixtaxux muxutxuek...**

NO SEÑOR YO NO ME CASARE

No señor, yo no me casaré
así le digo al cura, y así le digo al juez.
No no no no señor yo no me casaré
Estoy enamorado
Pero me aguantaré

Yo no me caso compadre querido
porque la vida es puro vacilón.
No puedo hallar el amor consentido
que sea la dicha de mi corazón
Tan solo quiero pensar un poquito
pa' no meter las cuatro patas
de un jalón

Y al encontrarme un amor
le digo véngase usted
Y al rato digo pos' no
No, no se puede
Y si me quiero amarrar
le digo yo no podré
mejor se busca por ahí
otro querer

NOLA BIZI HALA KANTA

Hitzak: Paskale /// Doinua: J.L.Aranburu

Üdako egünaldi bero argietan
Aideak ekarri indar güzietan
Kantü berri zaikü sortü gogoetan
Eskentzeko neguko gau lüzetan

Ainerak bezala biltzen da gizona
Baten ahaidea dener egarria
Algarretatzea zuin miragarria
Etxe ondoan piztuko giro hona

**“Nola bizi hala kanta,dio eüskaldünak
Maitarzün emanez hola adio lagünak”
(2)**

Aiten aitek ützi guri oparia
Idatzian ere zer dote ederra
Egün hedatü nain zier sü garra
Agor ez dadin hitzen ütürria

“Nola bizi hala kanta...”(4)

NOR NORI NORK

Gozategi

Eusko Jaurларitzak dio
dirurik ez dagoela
baina zer kasualitate
gurea falta zaiela.

Baina, laister ikusiko dute, joder
potrotaraino gaudela, joder
potrotaraino gaude.

**“Nor-nori-nork
baldintza ta subjuntibo, joder
baldintza ta subjuntibo, joder
baldintza badakigu.” (2)**

Ertzainek erosi dute
Kriston helikopterua
baina zerta(ra)ko nahi dute
holako aparatua.

Baina, laister ikusiko dute, joder
potrotaraino gaudela, joder
potrotaraino gaude.

“Nor-nori-nork...” (2)

NUARBEGO TRINI

Hitzak: Jasone Gereño /// Doinua: Josu
Arrizabalaga "Izer"

Zelai zabal berdeak ugari
baserri lana oparo.
Zesteroak eta sokatira
zein baino zein abilago.
Urre gorrizko pertsonak dira
auzo honetan gehiago.
Pitxilorak bezela Nuarben
itsusi inor ez dago.

**"Trini ta triniak
Trini ta triniak
Sorginduko zaitu
Triniren irriak." (2)**

**"Trini ta triniak
Trini ta triniak
Sorginduko zaitu
Erliak" (2)**

Urtero bezela berpiztu da
jende artetik airera.
Beti bezain pinpiriña dator
aurtengoan bai potxola!
Antenak astinduz mugitzen da
axkarrenaren ondora.
Ta badu ahalmen nabarmena;
ez du ziztatzen inola.

"Trini ta triniak..." (2)

Ondo pasatzea da asmoa
egin erreparu honi:
txuleta, ardo ta baratxuri
ez zaizu faltako zuri.
Broma ta musika orduero
denak dantzan dira jarri.
Auzo txikiko festa haundien
erregina degu TRINI!!!

"Trini ta triniak..." (2)

NUARBEGO XESTOGILEA

Hltzak: Luis Gurrutxaga (Nuarbe) /// Doinua:
"Topa dagibun"

(Xestogileen patroiairen egunean, San Julian,
Urtarrillaren 28an.)

Nuarbeko xestogilea
abilezi handikoa
"merezi du bai bene-benetan
Gaur gogora ekartzea" (2)

Oñatitik ekarria
lanbide hau alegia
"ta baserritar zein kaletarrek
laster asko ikasia" (2)

Nuarbeko xestogilea...

Plastikozkoak ordea
ordezkatu otarra
"horregatikan ikusten degu
auzoan hutsik kalea" (2)

Nuarbeko xestogilea...

Otargileen santua
San Julian obispua
"herriko apaizak halaxe zion
geroztik adoratua" (2)

Nuarbeko xestogilea...

NUN DA NEKAZARIA

Hitzak eta Doinua: M. Azpiazu / L.Iriondo ///
Interpret.: Xabier Madina

Nun da nekazaria,
nun dira nekazariak
Nun izkutatu ote dira,
baserrietako langileak.

Txakurra zaunka ate ondoan,
uluka ganaua ikuluan
Atxurra lotan erdoi artean,
gurdia iraulita atarian.
Arria ugari zulo gorrian,
kimua ximelduta baratzan
Lurrean hautsa hazian ordez,
hantzatu zaizkigu baserriak
hantzatu zaizkigu baserriak

Nun da nekazaria,
nun dira nekazariak
hiltzera zeak baserri etxea,
odol uztuta gugatikan.

Nun da nekazaria,
nun dira nekazariak.
Nun da nekazaria,
nun dira nekazariak.

OI AMA EUSKALERRIA

Hitzak//Doinua: Pierre Bordazarre "Etxahun-
Iruri"/// Interp.: Benito Lertxundi

Anaia etxen da ezküntü
bortxatü niz oian joaitera
ene ophilaren egitera
Paris-erat banüazü

**"Oi ama Eskual Herri goxua
zutarik hürrun trixterik banüa
adios ene etx'ondua
adios Xiberua." (2)**

Paris-eko bizitzia
lan khostüz irus baguatzü
hargatik berantzen zütadazüt
zure berriz ikhustia.

"Oi ama Eskual Herri..." (2)

Bena denbora da llabürxko
othoi ama entzün nezazü
xokho bat haita izadazüt
azken egun horientako

"Oi ama Eskual Herri..." (2)

OI GU HEMEN

Interp: Ameslariak

**"Oi gu hemen, bidean galduak
Oi gu hemen bidean galduak
Oi gu hemen bidean galduak,
heriotz minez". (3)**

Pobreak kalean bilutsik
Barnea esperantzik gabe
Doinua basoko tristuran
Ilunabarrez

"Oi gu hemen... "(2)

Gizonen itzala luzea
Negarrez haizea gauean
Arbolak erroak aidean
Heriotza da.

"Oi gu hemen... "(2)

Nundikan ezinaren mina
Zergatik errekan iluna
Egurra kolpeka landua
Bide hustuak.

"Oi gu hemen... "(2)

OI KANTA BERRI

Hitzak eta Doinua: Michel Labegerie

Oi kanta berri, ixilik nago orai duela aspaldi
zuretzat nuen, kar bero hura, suntsitu ez da dirudi.
Beste lanetan, iragan ditut hainitz egun ta, gaualdi
Bainan oraino, ez dut ukatu euskara, ez da Euskadi

Oi kanta berri, bihotzetikan ezpainetarat jalia
euskal airean, bidaltzen zaitut zu nire mezularia.
Jendeen artean, izatu banaiz, beresle samurlaria
Izan zaite zu, ene partetik bakezale den,xoria.

Oi kanta berri, izan zaite zu anai arteko zubia
batasunetik libertatera, gidatzen duen bidia.
Kartzelan den,abertzaleari emozu doi bat,argia
etsiturikan den bihotzari, esperantza ur bizia.

Oi kanta berri, gure herriak behar du bide,ta zubi
etxeetan ere baitezpadako, argiarekin ur garbi.

“Horiek denak ez dire aski, bizi dadien Euskadi
Hainbat oraino,beharko ditu kanta bat eta, kanta bi”. (2)

OI PELLO PELLO

Interp.: M.Laboa /// OSKORRI

Oi Pello Pello logale nauk eta
jinen niza oherat?
Irun ezan eta gero, gero, gero...
irun ezan eta gero, gero, bai.

Oi Pello Pello irun diat eta
jinen niza oherat?
Astalka zan eta gero, gero, gero...
astalka zan eta gero, gero, bai.

Oi Pello Pello astalkatu diat eta
jinen niza oherat?
Harilka zan eta gero, gero, gero...
harilka zan eta gero, gero, bai.

Oi Pello Pello harilkatu diat eta
jinen niza oherat?
Josi ezan eta gero, gero, gero...
Josi ezan eta gero, gero, bai.

Oi Pello Pello josi diat eta
jinen niza oherat?
Argia dun eta bihar, bihar, bihar...
argia dun eta jinen hiz bihar.

OIHANIAN ZÜİÑEN EIJER

Hitzak eta Doinua: Pierre Bordazarre

“Etxahun-Iruri”

“Oihanian zuiñ en eijer
Txoritto bat khantari
Eskualdün arbolari
Zazpi probintzier!” (2)

Amodioz diot gazter
Eskuarari bethi esker
Jarraiki aiten ürhatser
Ez sekulan bazter
Ezteia xarmagarri
Nuri eztü plazer
Txori bat khantan ari
Eskualdün aurrider?..
Eskualdün aurrider.

“Oi txoria! hanitxetan
Zurekila batian
Bozkarioz kantatzia
Nian desiretan”. (2)

Sarthü gira plazeretan
Egün plaza eder huntan
Nahiz bozkario ezari
Eskual bihotzetan.
Hots, anaie maitiak,
Bander(a) eskietan
Eskualdünak beikira
Nausi güzietan.
Nausi güzietan.

OJOS VERDES

Ojos verdes son traidores,
Ojos verdes son traidores,
Azules son mentireiros,
Los negros y acastañados
Son firmes y verdadeiros.
Los negros y acastañados
Son firmes y verdadeiros.

**N'a veira, n'a veira, n'a veira do mar
Hay una barquinha pra ir a navegar,
Para ir a navegar, para ir a navegar,
N'a veira, n'a veira, n'a veira do mar.**

Cinco sentidos tenemos,
Cinco sentidos tenemos,
Los cinco necesitamos
Pero los cinco perdemos
Cuando nos enamoramos.
Pero los cinco perdemos
Cuando nos enamoramos.

N'a veira
No sé qué verán los mares,
No sé qué verán los mares,
Miro sin ver lo que veo
Pero a pesar de no verte
Sé muy bien cómo te quiero.
Pero a pesar de no verte
Sé muy bien cómo te quiero.

N'a veira
Hoy te vi pasar el río,
Hoy te vi pasar el río,
Con zoquinhos de madeira.

Ibas tan remangadinha
Al pasar por la ribeira.
Ibas tan remangadinha
Al pasar por la ribeira.
N'a veira

ORIKO TXORIA

Hitzak eta doinua: R. Idart

Jende gaztia dabila
etxetik urrun lanila...
Ez erran galdürik dela,
itzül ditaike berekala.

**"Jin bedi gure artila
Orhi-ko xoria Orhi-la!" (2)**

Xorittuaren hegala
arin aidia bezala...
Gaztek begira dezala
azkar eüskaldün odola!

"Jin bedi gure..." (2)

Xoriak jiten zauzküla,
hüts egin gabe seküla...
Lehenik bat, gero mila,
txortak egiten ixtila.

"Jin bedi gure..." (2)

Txoria izan dadila
eüskaldün gazteen mudela!
Mutiko eta neskatile,
tziauste denak sorlekula!

Jin bedi gure... (4)

OSTATUTO

NESKATXAREN KOPLAK

Hitzak: Jose Austin Arrieta /// Rupert Ordorika ///
OSKORRI

Isildu zaigu eguna
larre ondoan asuna
zure gomuta saminagoa
bihotz nereko kutuna

Eperra garitzan kanta
ehizeko zakurra zaunka
teilatu gorriari dario
nigar eta odol tanta

Belar gainean bildotsa
haizeak leun du hotsa
etsai-urratsen zarata hitza
gorrotoaren ostotsa.

Oilarrak harro kalparra
zezena ez da koldarra
Espaina aldean preso daukate
nire senargai zangarra

Eder basoan haritza
pagoa lerden bortitza
bazter hauetan zenbait jaunskilok
errez jan ohi du bere hitza

Ibaia dator uholde
haizea uraren golde
euskal andra gizonen odola
ez da ixuriko debalde.

Sagarra daude ustelak
mikaztu dira upelak
lehengo aldean orain gara gu
abertzale txit epelak

Udako sasoiak uzta
larrean eder irusta
nire bularra zuk laztan ezik
ximelduriko masusta.

Artoa zaigu zoritu
sagarrondoak gorritu
zu noiz itzuli itxaropena
ez zait gogotik akitu

Euriak mardul dario
elurak dirudi liho
nire bihotzak ez dezaizuke
sekulan esan adio

Usoak dira igaro
basoak dirau oparo
nire magal gozoa dukezu
zatozkenean abaro.

Zelaiak badu hesia
ereina dugu hazia
nire errailetan ernatuko da
askazi ezin-hezia....

PELLO JOXEPE

“Pello Joxepe tabernan dala
haurra jaio da Larraulen” (2)
etxera joan da esan omen du:

-Ez da neria izanen,
beraren amak topa dezala
haur horrek aita zein duen.

“Hau pena eta pesadunbria!
Senarrak haurra ukatu” (2)
Pello Joxepe bihotz neria
haur horrek aita zu zaitu
haur horrentzako beste jaberik
ezin nezake topatu.

“Fortunosoa nintzela baina
ni naiz fortuna gabia,” (2)
abade batek eraman dizkit
umea eta andria:
haurra berea bazuen ere
andrea nuen neria.

PILOTA EUSKAL JOKOA

Hitzak: Fernando Aire “Xalbador” ///
Doinua: Ozafrain

Pilota, zure bidez orok euskaldunak
bagarelako famak dituzte entzunak;
zuk eginak gaituzu denen ezagunak,
asko zor dautzu zuri gure nortasunak.

Zabaldu bazaituzte hemendik mundura,
muga gabea bada zure hedadura,
eskerrak ez daizkela erraiten mentura
zu etzarella gure iturriko ura.

Beha pilota bati jo ta jo bi talde,
denak beren nortasun osoaren jabe,
gorputzaren nekeaz arduratu gabe,
pilota daukatela otoitzaren pare.

Nork daki zonbat gogo han ote dabiltzan
gure pilotarien so baten peskizan?
Gazte dohatu hoiek hartzen diren gisan,
nork ez luke nahiko pilotari izan?

Bainan zer da boza hau? Zer entzuten dut nik
deiadar bat bezela heldu urrundani
gure gazteriar pilotak erranik
“ez nezazula berex euskararen ganik” (2)

PILOTARIEN BILTZARRA

Hitzak eta doinua: Pierre Bordazarre *"Etxahun Iruri"*

Agur, agur, jente güzik!
 agur bihotzetik !
 Zaharrak eta gaztiak
 bildürik hürrüntik !
 Eskualdün joko jaunari
 bere lür harrotik
 Lili eder bat da egün
 zabaltzen itzaletik.

**"Gizon gaztentako beharra,
 ta zaharren indarra,
 gora kanta obra ederra,
 Pilotarien Biltzarra !" (2)**

Gure Jinko Jaunak deizkü
 ezarri mündian
 Txoriak kantüz oihanian
 et'ardik mendian,
 Untzietan marinelak
 itxaso-erdian
 Eta pelota maitia
 Eskual-Herri aldian.

"Gizon gaztentako ..." (2)

Arbolarik ederrena
 oihanian haitxa,
 Aize handirenak dio
 eztela ez tatxa :
 Eskualdün pilota horri
 ez besuak kütxa ;
 Beti nausi izan dadin,
 denek dezagün altxa!

"Gizon gaztentako ..." (2)

POTTOKA

Hitzak: B.Irazabal /// Doinua: B.Eyherabide

Pottoka mendian jauzika ibilki
 buztana airean salbaia iduri.
 "Ezin harrapatuz Txomin da erori
 pottoka nausi da gure gizonari". (2)

**"DI BI DI BI DAN DAN
 DI BI DI BI DAN DAN
 DI BI DI BI DI BI DI BI
 DAN DAN DAAAAN" (2)**
 Gure gizonari..

**"LALA...LALA
 LALA...LALA...LALA" (4)**

Denboran pottokak ez emaiten sosa
 ez zuen ez egiten Parisen afera
 "Neuilly-n ibiltzeko ez zuen usain ona
 adixkirendako ez aski ederra". (2)

"DI BI DI BI

.....

Ez aski ederra

**"LALA...LALA
 LALA...LALA...LALA" (4)**

Txominek menditik jautsi du pottoka
 ileak mozturik pentzetan emana
 "egun guziez hartzen bere azukrea
 iduri du orain Vincennes-en sortua". (2)

"DI BI DI BI

.....

Vincennes-en sortea

**"LALA...LALA
 LALA...LALA...LALA" (4)**

PRIMA EIJERRA

Prima eijerra, zütan fidatürik,
hanitx bagira, oro tronpaturik!
enia zirenez erradazüt bai al'ez;
bestela banua
desertiala nigarrez urtzera.

Desertiala juan nahi bazira,
arren zuaza oi, bena berala!
etzitjala jin harzara nigana,
bestela gogua
dolütüren zaizü, amoros gaixua!

Nitan etsenplü nahi dianak hartü,
ene malürak parerik ezpeitü...
xarmagarri bat nik beinian maitatü
fidatü, trunpatü!...
seküla jagoiti ikusi ezpanü!

Mintzo zirade arrazu gabetarik,
eztüdala nik zur'amodiorik;
"zü beno lehenik banian besterik
maiterik, fidelik;
harrez eztereizüt egiten ogenik" (2).

PRIMADERAKO LILIAK

Hitzak eta Doinua: Mixel Labegeri

Primaderako liliak
Goizik ziren loratuak,
Urthe hartan gertatu zen
Pazko erramu baino lehen.

Gaituzte ezkontarazi
Maite ninduzun hain gutti
Eskontarazi gaituzte
Ez zintudalarik maite.

Ginuelarik elgarri
Eman biziko uztarri.
Ezkilak zeuden ixilik
Nik ez baitakit zergatik.

Gaituzte ezkontarazi...

Ez zuten egin bolera
menturaz ziren Erroman;
Ez ziren gure lekuko
Ez izanen bataioko.

Gaituzte ezkontarazi...

Nonbait balinbada zero
Gure haurra da aingeru
Aingeru zeruan bainan
umerik ez ohantzean.

Gaituzte ezkontarazi...

Bihotza hotzez kaskaran
nago beroaren menturan.
Etor bedi primabera
kanpoak ditene berriz lora.

"Gaituzte eskontarazi
elgarregina behar bizi;
Ezkontarazi gaituzten
Behar dugu elgar maite." (2)

PRIMADERAREN EDERTASUNA

Primaderaren edertasunaz xoraturikan kukua
gure arterat etorria da utzirik bere lekua
luma ederrez apaindua da pasaiente arraroa
“ostopetik eskaitzen dauku urteoroko kantua”. (2)

Txantxangorria hil edo bizi jarraikiz bere lurrari
negua nekez pasaturikan so dago primaderari
zuhaitz aldaxka baten gainetik guztieri xixtulari
“ohantze baten zazpi umetxo eman ditu munduari.” (2)

Kukua hire jokabidea denek diagu gogoan
nunbaitik xinta nagusi nahi hirea ez den lekuan
nekea bertzei emanik eta ostoenpetik kantuan
“txantxangorria bere lekuan biziaren irrixkuan.” (2)

Ezta egungo gertakaria doa zonbait mendetara
ama euskarak zazpi aurride eman zituen mundura
ohial berdinez apaindu eta zazpirei berdin mintzaira
“nolaz ez gara bada zazpiak bizi beharraak batera.” (2)

Zuhaitz gainetik nolaz zegoen kantari txantxangorria
batasun baten ondotik dabil gaurko gazteri berria
gainditu nahiz badasoa ta kendu naiz egarria
“muga gabeak izan dadila gutarteko lokarriak.” (2)

RAN ROBER RAN

Hitzak eta doinua: Imanol Urbietta

**“Ran rober ran
Po po po po po po po po
Ran rober ran
Po po po po po po“(2)**

Uztaia gora gora
lurretik zerura,
jira alde batera
ta gero bestera,
ta behera behera behera
ta behera behera bai!
Uztai barruan preso
gelditu naiz orain!

**“Ran rober ran
Po po po po po po po po
Ran rober ran
Po po po po po po“(2)**

SAGARDOTEGIAN

Maria Jesus

Ipurzulua itxita hamar egunian
zezenak izan ziran iriki zanian.

Saltoka ta brinkoka ohiaren gainian
ikusi zutelako kaka oriñalian.

**“Goizean goizik tabernara eta
ateratzen naiz azkena
egun guztian zurrutian-da
ez zait betetzen barrena.**

**Hau da erari zoragarria
neri gustatzen zaidana
Maria Jesus bihotzekua
bete hamaseigarrena”.**

Bost baso atera ta Bost tragan
hustu
beste bost erateko inon berrik ez du.

Eran korriente baina pagatzia ahaztu
hola tabernaria ezin aberastu.

“Goizean goizik...”

SAN SIMON ETA SAN JUDA

Xabier Lete

**“San Simon eta San Juda
joan zen uda
eta negua heldu da.”(2)**

Ez baletor hobe,
bizi gera pobre,
eremu latz honetan,
ez gera hain onak benetan.

Ez dugu zaldirik,
ez gera zaldunak;
ez dugu abererik,
ez gera aberatsak.
Euskara guk dugu,
gu gera euskaldunak,
euskara guk dugu,
gu gera euskaldunak.

**“San Simon eta San Juda
joan zen uda
eta negua heldu da.”(2)**

SARAN DANTZARIAK

Hitzak: Jose Manuel Lujanbio “Txirrita” /// Doinua:
Andre Madalen” /// Interp.: Joxemari eta Mikel

Lengo batian Saran izan naiz
Santa Gurutzak pasatzen,
lau kaskaneta etorri ziran,
etziran asko lotsatzen;
arpegi beltzak zituzten, baño
ondo zekiten dantzatzan,
mundu onetan onen pizkorrik
zanik ez nuan pentsatzen.-

Titi gabeko mutur igar bat
presentatu zan lenbizi,
bi eskuaidi txistu emanda
plazan saltoka zan asi;
nere begiyan aurrian ez det
pizkorragorik ikusi,
on-ustekuak baziran baño
ura zan ango nagusi.-

Beste bi beltz-beltz ensaiatutzen
ibillitubak jai ta aste,
beren ordua eldu danian
aik ere deitu dituzte;
duro erdi bana eman ziyoten;
gelditu ziraden triste;
batek esan du: “Ez dizkiñagu
pattarretako ainbeste!”.-

Laugarren orrek ere bazuben
dantzatzeko jeniya,
esanaz: “Biba erari ona,
pakia ta uniyua!”.
“Erakutsi du zertarako zan
ark bere oponiyua;
titi gabeko mutur igarrak
eraman du premiya” (2)

SARRALLE

(Poliki)

Sarralle buru haundi toka la bibolin,
arraska tximenea kurrin kurrin kurrin;
Sarralle buru haundi toka la bibolin,
“arraska tximenea...(PUM)
kurrin kurrin kurrin” (2)

Antonio Juaristi ezizena beltza,
garbantzu traturako holakorik ez da.
Neskakin hitzeiteko korajerik ez da,
“bestek bilatu dio...(PUM)
ezkontzeko neska” (2)

(Bizi)

Sarralle buru haundi...
 Antonio Juaristi ezizena...

SI CANTA TAFALLA

Hitzak eta Doinua: Fermin Balentzia

Abrid las ventanas que es la amanecida
 Makotxa, Balgorra, Larrain, Valdetina
 La Peña, el Cidacos abrazan al día.
 La roja, la blanca ,la mora, la vasca,
 Tafalla respira.
 La obrera, la agraria, reivindicativa,
 si vive Tafalla, vive Euskalherria.
 A, a, a, a,

Por el sur Olite, La Baldorba encima,
 Uxue, Artaxona, hermosas vecinas.

La lengua vasca sus campos habita,
 ezpuendas, gardatxos, bitxarras, iraskos,
 qué airosa camina.

La ilustre, la llana, la flor, la semilla,
 si luce Tafalla, luce Euskalherria.

A, a, a, a,

Por los comunales, por las corralizas,
 llaman a batzarre, campanas repican.

Con sus compañeros cabalga Radica,
 para darle fuego, a ese Lagunero,
 de las noches frías.

La humilde, la digna, a veces herida,
 si llora Tafalla, llora Euskalherria.

A, a, a, a,

Que cante el Colaino para su Pepita,
 que suenen las jotas de abajo las quintas,
 que toquen los pajes por las cuatro
 esquinas,
 que salgan auroras, que txistus y rondas
 vengan en cuadrilla.

La antigua, la joven, la tuya y la mía,
 si canta Tafalla, canta Euskalherria.

La humilde, la digna, a veces herida,
 si llora Tafalla, llora Euskalherria..

La obrera, la agraria, reivindicativa,
 si vive Tafalla, vive Euskalherria.

A, a, a, a,

SOLFERINOKO ITSUA

Harmen hartzera, deitu ninduen gazterik sorte etsaiak.
Urrundu nintzen, herri alderat itzuliz usu begiak,
itzuliz usu begiak.

Zorigaitzean baitut ikusi Solferino-ko hegia,
Alferrikan dut geroztik deitzen iguzkiaren argia,
iguzkiaren argia

Nihoiz enetzat ez ta jeikiren goizeko argi ederra
Zeru gainetik nihoiz enetzat distiraturen izarra,
distiraturen izarra.

Betiko gaua, gau lazgarria! begietara zait jautsi
Ene herria, ene lagunak nihoiz ez behar ikusi,
nihoiz ez behar ikusi.

Ene amaren begi xamurrak betiko zaizkit estali
Maiteñoaren begitarte behin betiko itzali,
behin betiko itzali.

Larrainetako haritz gaztaina, mendietako iturri
horiek oro enetzat dire amets iztu bat iduri,
amets iztu bat iduri.

Ene herrian gazte lagunak kantuz plazara doazi
Eta ni beltzik etxe zokoan irri egiten ahortzi,
irri egiten ahortzi.!

Oraino gazte gogoz ez hoztu eta biziak lotsatzen
Dohakabea! Zer egingen dut Jaunak ez banu laguntzen,
Jaunak ez banu laguntzen.?

Ai, aski hola! Jainkoa barka! Begira zure haurrari
Kontsolamendu zerbaite emozu: noizbait duzun urrikari,
noizbait duzun urrikari.

TEOLOGIA, IDEOLOGIA

Xabier Lete

Zeru altuan zegoen jaunak
 egiña zuen mundua,
 sei egunetan izerdi patsez
 moldatu eta ondua.
 Zazpigarrenez deskantsatzia
 atera zuen kontua,
 izadiaren igeltserua
 etzen batere tontua.

Perfekziozko obra haretan
 laister sortu zen nahaspilla,
 Adan maltzurra abiatzen da
 sagar errearen billa.
 Lehendabiziko askatu zuen
 gerrikoaren hebilla,
 Eba ikaraz zegoen baiña
 pekaturako abilla.

Sagarra koskaz irentsi orduko
 hor entzuten da kondena:
 hartu nahi hukek baratza hontako
 fruta gozo ta onena:
 hoa kanpora, lotsagabea,
 eta paga zak ogena,
 eskulanaren beharra zegok,
 ematen diat ordena.

Adan badoa triste ta mutu
 paradisua galduta,
 Bilbo aldera aillegatzen da
 gaueko trena hartuta.
 Haurrak negarrez ikusten ditu,
 andrea aserretuta,
 Altos Hornos-en pioi sartzen da
 kontratua firmatuta.

Gertatutako deskalabruak
 mingosten diozka gozuak,
 eta gaiñera pagatu behar
 piso txar baten plazuak.
 Komodidade haundirik ez du
 proletario auzuak,
 eta bizkiak erditzen ditu
 bere emazte gaisuak.

“Hori bakarra behar genian”
 dio amorru bizitan,
 baina aguro agertzen zaio
 adiskide bat bisitan...
 hiru bat ordur mintzatzen dira
 leihoak erdi itsitan,
 karneta ere eskeintzen dio
 biharamuneko zitan.

Handik aurrera Adan jartzen da
 su ta gar kausaren alde,
 folleto batzuk eman diozkate
 hutsaren truke, debalde,
 Marx eta Lenin irakur ditzan
 gehiegi nekatu gabe,
 hiru astean egiten zaigu
 fede berri baten jabe.

Eta horrela bihurtzen dira
 teologiak programa,
 nolabaitean arindu nahirik
 gizonak daraman zama.
 “Ez baldin badu guztiz galdu nahi
 nahiko eskas duen fama
 Moscou aldera itzul liteke
 Erromako elizama.” (2)

TOPA DAGIGUN

Hitzak: Jon Sarasua /// Interp. :OSKORRI

Doinua: Georgiako "Souluko" doinuan oinarritua

**Errioxar Baigorriko
Bakio nahiz Getariko
"topa dagigun eta bakean
bizi gaitezen betiko" (2)**

Umeak arretaz horni
gazteei hitza eskaini
"gaztetxoago eta haurrago
izan gaitezen geroni" (2).

Errioxak Baigorriko...

Ez uka amonei hitzik
entzun agureei pozik
"zaharra ez da izandakoa
luzaroan dena baizik" (2).

Errioxak Baigorriko...

Hierarkia da lehorra
harremana emankorra
"errespetuan dago gordeta
emakumeen altxorra! (2).

Errioxak Baigorriko...

TRAPU ZAHARRAK

Hitzak eta doinua : Jose Maria Iparragirre

Egunez trapu biltzen
gabea dantzan lehertzen
beti umore onean
degu pasatzen,
eta goizean goiz
kalera irten da
lo goxuan daudenak
esnatzen ditu.

Trapero! trapero zaharrak! Trapua!

**A-te-ra, atera trapuak saltzera
nik erosten ditut modu onean.
Arditean prakak kuartuan albarkak
ta burni zaharrak txanponean.**

Erosten ditut trapuak
praka zahar urratuak
gona gorri zaharrak eta
atorratxuak.
Jo zak zurrumuzki
atabal soinu
dantzan egiteko
beti erana.

Tra-pu, tra-pu zaharrak!

A-te-ra, atera..

Eltze elbarrituak
pertzak zulorik badu,
arran-parrilik edo
trebera zaharrik.
Inork saltzeko badauzka
librako txanponean
Ramon Batistak
erosten ditu

Tra-pu, tra-pu zaharrak!

A-te-ra, atera..

TXAKURRAREN PARTIA

“TXURIKO”

Hitzak: Fernando Artola “BORDARI”/// Doinua:
Txomin Artola

Gu gazte giñadela txalupa guztiak
zakurtxo bat ohi zuten ontzi barrenean
begi erne, abilla, etzan zaunkaria
ihes zihoan arraina harrapatzailea

Seme, esango dizut nola gertatzen zan
puñittutako arraia, suelto batzuetan
legatza ospa, ihes, txakurra jauzten zan
‘ta bet-betan arraia hartzen zuen hortzetan.

Lana horren saria ‘txakurraren partia’
deitzen genion guziok, ongi merezia
maitea-maitea zan txakur ehiztaria
txalupa betetzen zun anima gabiak.

Unea etorri da zuri kontatzeko
zer nolako txakurra zan gure Txuriko
uhin izugarriak ez zuen izutuko
arraia utzi baino, lehenago itoko.

Goiz itsusi batean ez naiz ez ahaztuko
bere lana beteaz jauzi zan Txuriko
baga haundi artean, ehiza ez utziko
legatz haundi batekin ito zan betiko.

TXALAPARTA

Gorka Knorr

“Tiriki-trauki
hiru ta lau dira zazpi
xurruxumurru
bat batean dira urrun,
tiriki-trauki
ezker eskuin
bien artean dago zubi,
hots bare-bare
hor leiho sare
hiru ta lau dira bi” (3)

Tiriki-trauki
hiru ta lau dira zazpi,
xurruxumurru
bat batean dira urrun,
tiriki-trauki
ezker eskuin
bien artean dago zubi,
hots bare-bare
hor leiho sare
hiru ta lau dira
bat, bat, bat, bat,
la, la, la, la

XARMEGARRIA ZIRA

Xarmegarria zira, eder eta gazte,
ene bihotzak ez du zu baizikan maite.
Bertze zenbait bezala, othe zira libre?
Zurekin ezkontzeaz dudarik ez nuke.

Xuri-gorria zira, arrosa bezala,
profetak ere dira mintzo hola-hola.
Araberan bazinu gorphutza horrela
iduriko zinuen... zeruko izarra.

Oi, maitea, zatozkit plazer duzunean,
nehork ikusi gabe, ilhun-nabarrean.
Lagun bat badukezu joaiteko bidean,
hark ezarriren zaitu trankil bihotzean.

Plazer eginen duzu, ixiltzen bazira,
haur inorantak nola tronpatzen baitira.
Ez da enetzat ina holako segida...
Bertzalde zure baithan ez naiteke fida!

Adio, beraz, orai, ene arraroa,
hori dela medio, herritik banoa,
“bihotza trixte eta kexuan gogoa,
beti jarraikiren zait zur’ amodioa” (2)

TXANTXIBIRI

Interp.: Taberna Ibiltaria

Txantxibiri, Txantxibiri gabiltzanian
Elorrioko kalia,
hamalau atso tronpeta jotzen
zazpi astoren gainian.

Astoak ziren txiki-txikiak,
atsoak, berriz, kristonak!
Nola demontre konpontzen ziran
zazpi astoren gainian (2).

Saltzen, saltzen,
txakur txiki baten karameluak,
Está muy bien!
esaten du konfiteroak (2).

Cuando vamos a Otxandiano
Andre Mari egunian,
me cagüen la mar,
tomaremos chocolate
Vulcanoren aurrian. (2)

Bat, bat, bat bart errondan ibili,
bart errondan ibili.

Bi, bi, bi, ez naiz ondo ibili,
ez naiz ondo ibili.

Hiru, hiru, hiru kolkoa bete diru,
kolkoa bete diru.

Lau, lau, lau, sardina bakalau.

Antero txamarrotea Artzaren bibotla,
haretzek ez dauko, ez dauko

preso Euskal Herria.

“Antero txamarrotea Artzaren bibotla,
haretzek ez dauko
preso Euskal Herria” (2)

Hau dok, hau dok, hau dok umoria,
kontsolatzeko, kontsolatzeko
euskaldun jentla.

“Kalean gora, kalean behera,
kalean gora,
zezena ai ai ai ai” (2)

“Kalean gora, kalean behera,
kalean gora, kalean behera,
Kalean gora, kalean behera
Kalean gora zezena” (2)

Amak atako tsuela
Amak atako tsu
Amak atako tsu
Amak atako tsuela
parrandan zabiltzelako.

“Corre corre maquinista a toda velocidad
que la máquina con retraso va a llegar
y nos vamos hasta Boise San Inazio
egunean” (2)

TXATXAMATXALINATXU

Hitzak eta Doinua: Mikel Urdangarin

Txatxamatxalinatxu jaio zan urtian
herria ta kofradia hasarratu ziran (2)

**Tirikitrauna beltza morena
ontza bat txokolate goizian onena (2)**

Txikia izan arren izan leike abila
Biba Elantxobeko tanbolintxerua (2)

Tirikitrauna ... (2)

TXIKIA

Hitzak: Telesforo Monzon /// Pantxoa eta Peio

Txikia zuen guda-izena
bera gizon osoa izan arren
Mendizabal, Sasetaren urrena
biak txiki, bizkor eta lerdin
Saseta hil zen gudarien aurrean
Mendizabal hil zaigu bakarrik
bainan biek daukate Herri osoa
atzo ta gaur heien atzetik
Euskadi'rentzat hil dire-ta
gorputzak arantzaz beterik.

Arro hadi Kantauri Itxasoa
ta heien betiko loa
betiko kanta zak.

Geroari esaiok olatuetan
Herri-izarrak ez direla itzaltzen,
gure hurrek biharko ikastoletan
heien izenak abestu ditzaten,
arantzetan biak hil bait ziren.

Arro hadi Kantauri Itxasoa
ta heien betiko loa
betiko kanta zak.

Geroari esaiok olatuetan
Herri-izarrak ez direla itzaltzen,
gure hurrek biharko ikastoletan
heien izenak abestu ditzaten,
herriarentzat biak hil bait ziren.

TXORIAK TXORI

Hitzak: Josean Artze /// Doinua: Mikel Laboa

“Hegoak ebaki banizkio
nerea izango zen,
ez zuen aldegingo.” (2)

“Bainan, honela
ez zen gehiago txoria izango” (2)
“eta nik...
txoria nuen maite.” (2)

Hegoak ebaki banizkio
nerea izango zen,
ez zuen aldegingo

“Bainan, honela
ez zen gehiago txoria izango” (2)
“eta nik...
txoria nuen maite.” (2)

La,la,la.....

UDABERRIAN

Udaberrian abiatu nintzan
dama gazte bat bilatzen,
“atea kox-kox jo nion baina
ez ziran ez erantzuten”.(2)
la, la, la,...

Dama gaztea leihor’aterata:
maitia zer nahi zenduke,
“bion borondatea balitza
zurekin egon nahi nuke”.(2)
la, la, la,...

Aita gurea ez dago etxean
okasioa litzake
“ama nerea lo dagon arte
at’ondoan egon zaite”.(2)
la, la, la,...

Atea dabil kirri eta karra
zakurra berriz zaunkaka,
“atearena errez egin leike
zakurra zeinek ixildu”.(2)
la, la, la, ... (3)

UDAKO EGUNAK

Hitzak: Gozategi /// Doinua: Jatorri Mexikarra....
/// Interp.: Gozategi

Udako egun haietan
gertatutako guztia
kanpoan naizen lehorra
dudan maitasun guztia
opari batekin nator
eta ea ba maitia
gustatzen zaizun zuretzat
egindako abestia

**Ametsen erdian
jolas eginez gau erdian
orren gustora egoteko
alkarri dena ematean**

**Ametsen erdian
jolas eginez gau erdian
sentiarazten didazun hura
zuri esatean**

Begirada bat nahikoa
izaten zen gehienetan
kilimak eta zirrarak
dantzan hasten zirenetan
unerik ederrenetan
ezin hobeto benetan
pozaz txoratzen orduan
orduz geroztik benetan

**Ametsen erdian
jolas eginez gau erdian
orren gustora egoteko
alkarri dena ematean**

**Ametsen erdian
jolas eginez gau erdian
sentiarazten didazun hura
zuri esatean**

¡Ay, amor! Donde estés
ni en mis sueños sin ti viviré;
¿Cuántas noches por ti lloraré?
Y tus besos perder sentiré.

“¡Ay, amor! Donde estés
ni en mis sueños sin ti viviré;
Donde quiera que vayas mi amor,
Allá contigo iré.” (2)

UME EDER BAT

Hitzak eta doina: Jose Maria Ipagargirre

“Ume eder bat ikusi nuen
Donostiako kalean,
hitz erditxo bat hari esan gabe,
nola pasatu parean?” (2)
Gorputza zuen liraina eta
oinak zebiltzan aidean
politagorik ez det ikusi
nere begien aurrean.

“Aingeru zuri, paregabea,
Euskal Herriko alaba,
usterik gabe zugana beti
nere bihotzak narama.” (2)
Ikusi nahian beti hor nabil
nere maitea, hau lana!
Zoraturikan hemen naukazu
beti pentsatzen zugana.

“Galai gazteak galdetzen dute:
Aingeru hori nun dago?
Nere maitia nola deitzen dan
lñortxok ez du jakingo.” (2)
Ez berak ere, ez luke nahiko;
konfiantza horretan nago.
Amoriodun bihotz hoberik
Euskal Herrian ez dago (2)

UMETXO BATEN AMETSAK

Hitzak: Julen Lekuona /// Doinua: Sholom
Secunda /// Interp.: ARGOITIA Anai-arrebak

Mutiltxo batek, behin galdetu zun
aita noiz etorriko da?,
amak negarrez erantzun zion:
Zeruan dago gure zain.
Ta geroztik gauean izarrak ikustean
mutiltxoak pentsatzen du
amaren magalean.

“Laster, laster, laster, laster,
haunditzen naizenean
aitatxoren bila joango naiz
izar baten gainean.” (2)

Gero urteak, pasa ziraden
mutil koxkorra gizondur,
eta jakin zun nola aspaldiz
aitatxo gerran hil zuten.
Ta negarrez oroitzen da
gora begiratzean
txikitako amets haiek
amaren magalean.

“Nola, nola, nola, nola,
ilunabarrean
aitatxoren bila joango zen
izar baten gainean.” (2)

URRUTI NERE MENDITIK

Hitzak: Karmelo Etxegaray (Azpeitia 1865-1925)
/// Intep.: Sakabi eta Egañazpi

“Urruti nere menditik
joan nintzan dirutu nahirik.” (2)
Urrutietan nere bihotza
nahigabez erdibiturik,
gelditu nintzan tristerik,
pake santua galdurik.

“Nere bihotza zegoen
Euskal Herrian pentsatzen.” (2)
Egun guztian, gauaz orobat,
beti zitzaidan oroitzen,
zein gozo nintzan bizitzen
haurtxo nintzanean hantxen.

“Gogoan nuen etxea,
gaztain artean gordea.” (2)
Mendizka gainean agiri zan
herriko eliz maitea,
ta hango kanpandorrea,
hainbat oroitzez betea.”

“Hemen igande goizean,
 mezara ezkillak deitzean,” (2)
 zenbat oroitzza gozagarrizko
 senti ditut bihotzean!
 A zer poza barrenean
 eleizarako bidean!

“Dena zegoen ederrik,
 guztia pozez beterik,” (2)
 (ih)intza, loreak, txoriak, dena
 zorionez kantaturik,
 baina guztien gainetik,
 Ni negoen atsegiñik.

“Ez naiz, ni Jauna gehiago
 nere menditikan joango,” (2)
 Aitzurra nere lagun dedala
 baserrian naiz biziko,
 Zuri eskerrak emango,
 pakez bete nauzulako.

URTE BATEZ

Hitzak/Doinua: Jatorri Mexikarra ///
 Interp.: ELGARREKIN

Urte batez maite bat izan dut nik
 Urte bat betetzen du egun hunetan
 “Oroitzen naiz nola zure besoetan
 Lokartzen nintzan
 Fidatu ta bihotza eskainirik”. (2)

Oroimen hau hasi nahi nuke garaiz
 Nahi nuke bai samintasunez mozkortu,
 “Nahi zinduzket adimendutikan kendu
 Eta alferrik
 Mozkortzean gehiago oroitzen naiz”. (2)

Denbora hau ez litaike bihurtu
 Maitasuna zuk urrez ordaindu nauzu
 “Ta bihotza nahi gabez bete didazu
 Esker gabea
 Norbaitek berdin ordainduko zaitu”. (2)

Zure epaile denbora da izango
 Nahiz eduki daukazun edertasuna
 “Gaur izanik, maite asko dituzuna
 Begira gero,
 Ez ote zaitu(en) nihork maitatuko”. (2)

URTE OROZ BEZELA

Hitzak eta Doinua: Pierre Rousseu "Latxikana" ///

Interp.: XIBEROTARRAK

Urt'oroz bezala xiberotarrak
Bildürik beikira oro plazarat,
Gogotik hartürik imur zaharrak,
Kantan eta dantzan ari beharrak.

Zeren ohartürik
herrian sortürik,
Etxen bizitürik,
edo partitürik,
Gure sor-lekutik,
aurhiden artetik,
Amaren altzotik,
herriko axolbütik.

Urt'oroz bezala gure plazetan,
Zaharrak gaztiak boztariotan,
Maxkadetan nula pastualetan.
Kantaldietan herriko bestetan.

Zer alegrantzietan
ari giren kanta,
Bai eta dantzetan,
gure üjantxetan,
Izanik lanian
edo gabezian,
Herruak mendian
Xiberoko aldean.

Urt'oroz bezala biltzen bagira,
Jei eder horien süstengatzera,
Aitek guri eman indar azkarra,
Eztükegü üzten ahal galtzera.
Aitzina badua
mente hau osua,

Hor da ondokoa,
zer düke gozoa ?
Zelüko jinkoa,
gük zuri galtoa :
Zer duke geroa
gure Xiberoak ?

Urt'oroz bezala xiberotarrak
Bildürik beikira oro plazarat,
Gogotik hartürik imur zaharrak,
Kantan eta dantzan ari beharrak

UXO TXURIA

Interp.: Txomin Artola-Amaia Zubiria

"Uso xuria, errazu,
nora joaiten ziren zu." (2)
Nafarroako bortiak oro
elurrez betiak dituzu,
gaurko zure ostatu
"ene etxean baduzu" (2)

"Ez nau izützen elurrak
are gutxiago gau ilunak." (2)
Maitia gatik pasa nezazke
gauak eta egunak;
gauak eta egunak,
"desertu eta oihanak." (2)

"Usoa eder aidian,
ederrago oihanean." (2)
Maitia, zure parerik
ez da Espaina guzian
ezta ere Frantzian,
"iguzkiaren azpian" (2)
Maitia, zure parerik...
Maitia, zure parerik
ez da Espaina guzian
ezta ere Frantzian,
"iguzkiaren azpian." (2)

VOLVER VOLVER

Fernando Z. Maldonado

Este amor apasionado, anda todo alborotado, por volver,
Voy camino a la locura, y aunque todo me tortura, se querer
Nos dejamos hace tiempo, pero me llego el momento, de perder
Tú tenías mucha razón, y hago caso al corazón,
y me muero, por volver

**Y volver, volver, volver, a tus brazos otra vez,
Llegaré hasta donde estés, yo sé perder,
yo sé perder, quiero volver, volver, volver**

Nos dejamos hace tiempo, pero me llego el momento, de perder
Tú tenías mucha razón, le hago caso al corazón,
y me muero, por volver

**Y volver, volver, volver, a tus brazos otra vez,
Llegaré hasta donde estés, yo sé perder,
yo sé perder, quiero volver, volver, volver**

XALBADORREN HERIOTZEAN

Hitzak eta Doinua: Xabier Lete

Adiskide bat ba zen orotan bihotz-bera,
poesiaren hegoek
sentimentuzko bertsoek antzaldatzen zutena.

Plazetako kantari bakardadez josia,
hitzen lihoa iruten
bere barnean irauten oiñazez ikasia, ikasia.

**“Nun hago, zer larretan
Urepeleko artzaina,
mendi hegaletan gora
oroitapen den gerora
ihesetan joan hintzana”. (2)**

Hesia urraturik libratu huen kanta,
lotura guztietatik
gorputzaren mugetatik aske sentitu nahirik.

Azken hatsa huela bertsorik sakonena,
iñoiz esan ezin diren
estalitako egien oihurik bortitzena, bortitzena.

**“Nun hago, zer larretan
Urepeleko artzaina,
mendi hegaletan gora
oroitapen den gerora
ihesetan joan hintzana”. (2)**

XORIERI MINTZO ZEN

Hitzak eta Doinua – Mixel Labegerie

**Xorieri mintzo zen, mintzo zen errekar
Oihaneko zuhaitzeri ta zeruko izarrer
mintzo zen haizeari, xoro batentzat zaukaten
Xorieri mintzo zen, xoro batentzat zaukaten.**

Ez zakien irakurtzen gizonen liburutan
bainan ongi bazakien zeruko seinaletan
zeruko seinaletanta jenden bihotzetan

Xorieri mintzo zen...

Haurrek zuten harrikatzen zahar gaztek trufatzen
etxeok berek ongi laneko baliatzen
laneko baliatzen eta gosez pagatzen.

Xorieri mintzo zen...

Hil da xoroa bakarrik bakarrik da ehortzi
Ez zen han kristau bat ere salbu lau hilketari
salbu lau hilketari ta apeza kantari.

Xorieri mintzo zen...

Hil hobian ezartzean haizea zen gelditu
xoriak ziren ixildu zerua zen goibeldu
zerua zen goibeldu ta jendea oroitu

Xorieri mintzo zen...

XOXUAK

OSKARBI

Xoxoak galdu du burua,
burua, xoxua, gaixoa!
**Nola kanta, nola xirula,
nola kanta xoxuak?**

Xoxoak galdu du begia,
burua, begia, xoxua, gaixoa!
Nola kanta...

Xoxoak galdu du lepoa,
burua, begia, lepoa, xoxua, gaixoa!
Nola kanta...

Xoxoak galdu du mokoa,
burua, begia, lepoa, mokoa, xoxua,
gaixoa!
Nola kanta...

Xoxoak galdu du hegala,
burua, begia, lepoa, mokoa,
hegala, xoxua, gaixoa!
Nola kanta...

Xoxoak galdu du buztana,
burua, begia, lepoa, mokoa,
hegala, buztana, xoxua, gaixoa!
Nola kanta...

Xoxoak galdu du bihotza,
burua, begia, lepoa, mokoa, hegala,
buztana, bihotza, xoxua, gaixoa!
"Nola kanta..."(2)

YO NO SÉ, NO SÉ

"El amor es como el vino"

Letra: F.Erdozain /// Música: J.Calafat ///

Interp.: Grup Barcarola

**El amor es como el vino.
Quien lo bebe ríe y llora.**

**Cuando un hombre se enamora
ríe llora y algo más.**

**Y si la mujer que adora
por el hombre pierde el sino.**

**"Yo no sé , yo no sé,
yo no sé , yo no sé,
yo no sé lo que puede pasar" (2)**

**"Era bonita como una flor
era divina grande su amor
yo la quería y ella a mi no.
Era una pena, pena de amor."(2)**

El amor es como el vino...

YO VENDO UNOS OJOS NEGROS

“Yo vendo unos ojos negros
¿Quién me los quiere comprar?
Los vendo por hechiceros
porque me han pagado mal” (2)

**“Más te quisiera
más te amo yo
y toda la noche la paso
suspirando por tu amor” (2)**

Los ojos de mi morena
tan negros como el carbón
me tienen como en cadena
a todo mi corazón.

A veces dan esperanza
a veces me hacen dudar
a veces me dan confianza
y no sé cómo acertar.

**“Más te quisiera
más te amo yo
y toda la noche la paso
suspirando por tu amor”(2)**

ZAZPIAK OHIAL BATETIK

Hitzak: Joxemari Ostolaza “Xalbardin” /// Doinua:

Fernando Unsain

Mundu guztiak aditutzen du
euskaldunaren negarra
alde batera nahiago nuke
ez banintz hemengotarra.

**Enpeñatzea ez bada libre
alferrik dugu indarra
hau da txoriak gari tartean
goseak egon beharra.**

Antzerki hontan lau pertsonaia
ta jokalaria bakarra
arbolak berak erakusten du
hostoa eta adarra.

Enpeñatzea ez bada libre...
Sutan pizturik darrai oraindik
sugaiz berriz lehengo gerra
oharkabea ez zen mintzatu
Txirrita poeta zaharra.

Enpeñatzea ez bada libre

Zazpi ahizparen gai den oihala
ebakirikan erditik
alde batera hiru soineko
utzirikan lau bestetik.

**Guraiziakin bereizi arren
bakoitza bere aldetik
ezagutzen da jantzi direla
zazpiak oihal batetik.**

Oihal bera da gure jantzia
sortu gintuzten unetik
ez du munduak kemenik sortu
kentzeko gure soinetik.

**“Guraiziakin bereizi arren
bakoitza bere aldetik
ezagutzen da jantzi direla
zazpiak oihal batetik” (2)**

ZE POLITAK DIRAN

Ay que bonitas son
 las flores en el campo.
 Ay que bonitas son
 los cerdos en el jaula.
 Ay que bonitas son
 las chicas de mi pueblo.
 A la vejez suelen decir

Mutilak nahi
Ta mutilik ez
 La ra la la
 La ra la la

....

Ze politak diran
 loreak zelaian.
 Ze politak diran
 txerriak kaiolan.
 Ze politak diran
 hemengo neskatalak.
Zahartzen diranean

esaten dute
Mutilak nahi
Ta mutilik ez
 La ra la la
 La ra la la

....

Oh!! Que sont tres jolies
 Les fleurs dans la campagne
 Oh!! Que sont tres jolies
 Le cochons Dans le cage
 Oh!! Que sont tres jolies
 Les filles da ma ville

Zahartzen diranean
esaten dute
Mutilak nahi
Ta mutilik ez
 La ra la la
 La ra la la

....

ZERGATIK UTZI

KANTATZEARI

Hitzak: Anne Waner /// Doinua Pete Seeger ///
 Moldaketa : Benito Lertxundi

Nere bizitza, munduko arranguren
 gainetik, amaiezinezko
 kantu batean, airos doa
 nere bizitza kantu batean.
Zergaitik utzi behar diot,
zergaitik utzi kantatzeari?

Urrun bada ere, sorkuntza berri bat
 irigartzen duen doinu hori
 entzuten dut, harrabots eta
 borroka ororen artean.
Zergaitik utzi behar diot,
zergaitik utzi kantatzeari?

Ekaitzak ondoan ziztuka
 ari bada, zer axola!
 Egia bizirik dela badakit
 bizirik dela badakit
Zergaitik utzi behar diot,
zergaitik utzi kantatzeari?

Zer axola nere inguruan
 iluna hertsitzen bada?
 Gauean kankak sortzen ditu,
 Gauena kankak sortzen ditu.
Zergaitik utzi behar diot,
zergaitik utzi kantatzeari?

Nere pake kuttunena
izutuko duen trumoirik
ez da harkaitz horri lotzen
natzaion
Lotzen natzaion bitartean.
Zergaitik utzi behar ote diot ?
Zergaitik utzi kantatzeari?

Amodioa zeru-lurren
jauna bada, jauna bada
Zergaitik utzi behar ote diot?
Zergaitik utzi kantatzeari?
Zergaitik utzi behar ote diot?
Zergaitik utzi kantatzeari?(2)

ZERGATIK

Interp.: Imanol Lartzabal /// Georges Moustaki

Zergatik ikasi,
ahanztekotz gero,
ikasiak oro.
Zergatik ikhusi,
hainbertze lurralde,
hainbat, hainbat jende?
Zergatik ikasi,
ahanztekotz gero,
ikasiak oro.

Ezer ezin eutsi.
zergatik laztandu
zergatik higuindu
bihar edo etzi,
ni non naiz izango?
Ai, ez naiz ordongo, ? (2)
Ezer ezin eutsi.
zergatik laztandu
zergatik higuindu

Nigar dagit asko
Soin'ta bihotz-minez
irazeki minez
Zergatik, zertako
¿nork erranen eni?
¿ hemen... hor... han... ni....?
Nigar dagit asko
Soin'ta bihotz-minez
irazeki minez

Zergatik ikasi,
Ahanztekotz...

ZORIONAK-Kaxiano

Hitzak eta doinua: Kaxiano Ibaguren

**“Zorionak zure urtebetetzean
Zorionak, ta urte askotarako
Zorionak belarritik tiratzean
Zorionak ta musu bat zuretzako.” (2)**

Berriro ere iritsi zera urtebetetzera
aita-ama ta senideekin zoriontsu zara
pozaz zoratzen gatoz gu ere, gaur zure etxera
“maitasun loreak zuretzako ekartzera” (2).

“Zorionak zure urtebetetzean...” (2)

Gaur bexalaxe opa dizugu urtetik urtera
osasun onarekin beteaz, jarraitzeko aurrera.
Berriro ere pozak zoratzen etorriko gara
“maitasun loreak zuretzako ekartzera” (2).

“Zorionak zure urtebetetzean...” (2)

ZUGANA MANUELA

Jose Maria Iparragirre

Zugana Manuela
nuanian pensatu,
uste det ninduela
deabruak tentatu,
ikusi beziñegin
naiz enamoratu,
ojala ez bazinan
sekulan agertu

Amodioz beterik
esperantza gabe,
zergatik egin zinan
bihotz honen jabe:
zuk esan behar zenduen
hemendikan alde,
egiaz ez naiz ni
bizardunen zale.

Ahaztu nahi zaitut baina
ezin, ezin ahaztu,
zure amorioak
burua dit galdu...

Orain bigundu ez luke
ta maitagarri horrek
bihotz hori bigundu
pixka bat legundu.

Barkatu behar dituzu
nere erkeriak,
zure begira daude
nere bi begiak:
garbi garbi esan dizut
uzteko egiak,
zoraturikan nauka
zure aurpegiak.

Gabean ibili naiz
guzizko ametsetan,
Donostian nengoela
Andre Marietan,
eta ikusi nuela
herri hortako plazan,
erdian zebilela
Manuelatxo dantzan

ZURE BEGIEK

Hitzak: Daniel Landart /// Doinua: Mikel Laboa

Zure begiek, ene maitia
badute biek, dirdir eztia.

Zeruko lore , miresgarriak
izarren pare, zoragarria.

Gazte gaztia, zira oraino
egun guztia, nago zuri so.

Zure begiek, erotzen naute
eta guztiek, nahi luzkete.

Gaua delarik, mundura jausten
Jauna zerutik, da urrikaltzen

Zure begien, goxoño hori
egon dadien, eder ta garbi.

Ene nahia, zinez handia
zu izaitia, neure andria.

Zure begiek, ene maitia
badute biek, dirdir eztia.

Zeruko lore , miresgarriak
izarren pare, zoragarriak.

Gazte gaztia, zira oraino
egun guztia, nago zuri so..

Ene nahia, zinez handia
zu izaitia, nere andria.



GABON KANTAK



BIRJINA MAITE

Birjina maite lotan dago
zure seme laztana,
seaskatxoan ipini zazu
gure bihotzen kuttuna.

Ongi, bai, ongi igaro ditzan
gaua eta eguna.
Poliki, poliki eragiozu
egin dezan lo ona.

Hotzaren hotzez lasto artean
gorde du gorputz gurena,
amak musuka bero nahi luke
arkume txuri otzana.

Maitasun eztiz eskeintzen dizut
maiteñoa nik dedana.
Bihotz bero bat txirpil goxoaz
egiteko lo ona.

Gizon bihotzak hotza daukate
bihotzeko hoztasuna.
Mendi zelaia edurtean lez
Zu izaki maitasuna.

Nere bihotzak hain zaitu maite
bildotso zuri gurena.
Giza hotzari jaramon gabe
Egin zazu lo ona

CAMPANA SOBRE CAMPANA

Campana sobre campana
Y sobre campana una
Asómate a la ventana
Verás al niño en la cuna

Belén, campanas de Belén
Que los ángeles tocan
Qué nuevas me traéis?

Recogido tu rebaño
A dónde vas pastorcillo?
Voy a llevar al portal
Requesón, manteca y vino

Belén, campanas de Belén
.....

Campana sobre campana
Y sobre campana dos
Asómate a la ventana
Porque está naciendo Dios

Belén, campanas de Belén
.....

Caminando a medianoche
¿Dónde caminas pastor?
Le llevo al Niño que nace
Como Dios, mi corazón

Belén, campanas de Belén
.....
Campana sobre campana

Y sobre campana una
Asómate a la ventana
Veras al niño en la cuna

Belén, campanas de Belén

.....

Recogido tu rebaño
A dónde vas pastorcillo?
Voy a llevar al portal
Requesón, manteca y vino

ELURRA MARA MARA

S: Jaroff

**Elurra mara mara ari da,
Zuritu du mendia,
Arditxoak sartu dira hotz-hotzez
Txabol, txabol zaharrear**

Nik badaukat bildots txiki bat
Hemen seaskatxoan
Baina haun jango duan otsorik
Ez da sortu lurrian

Elurra mara-mara...

Haurtxoak loak hartu digu
Jango nuke musuka;
Aingerurik baldin bada,
Hemen gure Haurtxoa

Elurra mara-mara...

ELURRA MARA-MARA- TXOF-TXOF

Hitzak eta Doinua – Urko Oskoz

**Elurra mara - mara
elurra mara - mara
Txof, txof, txof, txof,
txof, txof, txof.**

Leihotik begiratu
dena zuri- zuria

Elurra mara – mara...

Leihotik begiratu
elur panpin handi bat
dena zuri - zuria

Elurra mara – mara...

Leihotik begiratu
amona dabil dantzan
elur panpin handi bat,
dena zuri-zuria

Elurra mara – mara...

Leihotik begiratu
Olentzero badator,
amona dabil dantzan,
elur panpin handi bat,
dena zuri - zuria

Elurra mara – mara...(2)

ETXE HONETAN

Josu Bergara

Barriro be lotuko gara,
sutondoan danok batera,
– Olentzero noiz dator, ama? –
txikixen betiko galdera.

**“Gabon gabian alkartuta,
senide, herritar, lagunak,
etxe honetan sartzen dana,
etxekotzat hartuko da.”(2)**

Aintzina eitxen zan antzera,
hauxe da geure herriko ohitura,
badator urte amaiera,
min danak botaizuz sutara!

“Gabon gabian alkartuta...” (2)

Geuretzat hauxe da handixena,
munduko altxorrik ederrena,
amumak jagon eban euskara,
gaur lobak eingo dau berbera.

“Gabon gabian alkartuta...” (4)

GABEKO IZAR

Gabeko izar argitsuena
piztutzeakin batera,
haurtxo eder bat etorri zaigu
gaur arratsean etxera.
“Ordu ezkeror etxeko danak
poztu ta zoratzen gera,
haurra dalako zerutik honuntz
datorren Jainko Berbera.” (2)

Alai ta pozik kanta dezagun
haurtxo honen etorrera,
gure iluna alaitutzeko
jaio den argi ederra.
“Gaurtik aurrera atzerri hontan
zorionekoak gera,
haurra delako zerutik honuntz
datorren Jainko Berbera.” (2).

GAU ERDIAN SOÑUA

MM Azpaizu/Luis Iriondo/ Intep:UNAI HIRUKOA

Dena ilunpean dago,
gabean, gabean
elurtian maltzo, maltzo
zerutik lurrera,
Gabon, Gabon.

Zazpi aingerutxo datoz,
etxera, etxera
esnatu zaitezte danok
gau erdian gera,
Gabon, Gabon.

**Hiru errege artzaitxo pilo bat
Belengo gau zurian
aita San Jose, ama Maria
eta haur jaio berria.**

**Gora Jainkoa zeru zabalean
ta pakea lurrean
zuek eta gu gaurtik aurrera
ondo maitatzen ba gera.**

Gaur kanta kantari jator
umeak umeak
danbolinarekin datoz
Belengo bidean
Gabon Gabon.

Zintzerri guztiak din don
aidean aidean
argia piztu zain dago
lurbide galdua
Gabon Gabon.

“Hiru errege artzaitxo pilo bat.. “(2)

HATOR HATOR

Hator, hator mutil etxera
gaztaina ximelak jatera
gabon gaua ospatutzeko
aitaren ta amaren onduan.
Ikusiko dek aita parrezka
ama (e)re poz ta atseginez.

**Eragiok mutil
aurreko danbolin horri,
gaztainak erre artean,
gaztainak erre artean,
txipli, txapla, pum.
Gabon gaua pozik
igaro dezagun.**

Hator, hator neska etxera
gaztaina ximelak jatera
gabon gaba ospatutzeko
aitaren t’amaren onduan.
Ikusiko den aita barrezka
Ama (e)re poz atseginez.

Eragion neska ...

HAUR EDER BATEN BILA

Haur eder baten bila
gabiltza zoratzon
ta izarrak esan digu
galdetzeko hemen.
Jaungoikoaren herri
maite, Jerusalem,
esan zaiguzu laister
Jesus non jaio den
Jaungoikoaren herri
maite, Jerusalem,
esan zaiguzu laister
Jesus non jaio den

**Ai, hau gauaren
zoragarria,
Jesus jaio da
Belenen!
Herririk herri
bila gabiltza,
bila gabiltza
beraren.”**

Artzai buru txuri bi,
Anton eta Peru,
Belengo estalpera
etorri zaizkigu.
Sartu dira barrena,
Manueltxongana,
eskeintza egin diote
arkumetxo bana,
batek arkumea ta
besteak ardia,
ondo konpontzen dira
Jose ta Maria.

Ai, hau gauaren...

HAURTXO MAITE

Haurtxo maite
nola zaude?
seaskan negarrez.
Atoz, bai, nire bihotzera
atoz, bai, lo egitera
Abesti maitalez
abesti maitalez

Eguberri
egun argi
zeruan kantari
aintza zero goian Aitari
pake lurrean gizonari
eskerrak Amari
eskerrak Amari

HAURTXOARI KANTATZEN

Amaia Garmendia

Gau baten jarri nintzen kanta bat ateratzen
gaia gabonak zirela eta hasi nintzen pentsatzen
kitarra jotzen, akordea zuzentzen, letra ipintzen,
doinuak aldatzen, “eta honela atera zen “. (2)

Elurra mara mara kalia, dardara bihotzian
Gaur maitasuna gure artian , da Belengo estalpia.
“Jesus dago bai erdi erdian, asto ta idia bai aldian,
Jose eta Mariaren artian, epel epelian.”

Mundu guziari gaur, pakea nahi opatu,
ta soinu eta kantuz, denak nahi alaitu,
katak kantatu eta ezin aspertu, behar dugu batu,
haurtxoa goratu, “kristau giroan jaiak ospatu”. “. (2)

Elurra mara mara kalia.....

Gabon giro hauetan presoak nahi aipatu,
ta batasunan bidez behar dugu gogoratu,
bai kaleratu, bai herriratu, bai etxeratu,
herria askatu,”beraiekin nahi guk elkartu” “. (2)

Elurra mara mara kalia.....

HORRA MARI DOMINGI

Horra Mari Domingi begira horri
gurekin nahi duela Belena etorri
gurekin nahi badezu Belena etorri
atera beharko dezu gona zahar hori.

**Hatoz, hatoz, zure bila nenbilen ni
hatoz, hatoz, zure bila nenbilen ni
hatoz, goazen, adora dezagun
Belenen jaio den haur eder hori.**

Horra Mari Domingi begira horri
gurekin nahi duela Belena etorri
gurekin nahi badezu Belena etorri
atera beharko dezu gona zahar hori.

Hatoz, hatoz, zure bila ...

KANTA DEZAGUN

DANOK

Julen Lekuona

**Kanta dezagun denok
hau da egun alaia
Jesus jaio da eta
kanta aleluia**

Poztu famili, poztu gurasoak
poztu biziak, poztu hildakoak

**Kanta dezagun denok
hau da egun alaia
Jesus jaio da eta
kanta aleluia**

Poztu gaixoak ta osasuntsuak
poztu aberats ta ez behartuak

**Kanta dezagun denok
hau da egun alaia
Jesus jaio da eta
kanta aleluia**

Poztu abere arrai ta hegaztiak
Poztu landare ta izaki guztiak

**Kanta dezagun denok
hau da egun alaia
Jesus jaio da eta
kanta aleluia**

Poztu herriak, poztu herritarrak
Poztu eliza, poztu eliztarrak

**Kanta dezagun denok
hau da egun alaia
Jesus jaio da eta
kanta aleluia**

MENDI ALDETIK DATOZ

Mendi aldetik datoz

Artzaiak, artzaiak

Bildots bana harturik

Bizkar gainean (2)

Gabon gauean kanta

Kanta aleluia

Kanta aleluia

Aleluia Gabon gauean kanta

Kanta aleluia gauean

Haur txiki bat jaio da

Belenen, Belenen

Guztion Jainkoa da

Poztu gaitezen (2)

Gabon gauean kanta

Kanta aleluia

Kanta aleluia

Aleluia Gabon gauean kanta

Kanta aleluia gauean

OLENTZERO

Olentzero joan zaigu

mendira lanera

intentzioarekin

ikatz egitera

Aditu duenenan

Jesus jaio dela

lasterka etorriko da

Berri ona ematera.

Horra, horra

gure Olentzero

pipa hortzetan duela

eserita dago.

Kapoiak ere baitu

arrautzatxoekin

bihar meriendatzeko

botila ardoekin.

Olentzero, buruhandia
entendimentuz jantzia,

bart arratsean

edan omen du

bost arroako zahagia

Bai urde tripa handia!

Tralara la la

Tralara la la

kantujira



AZPEITIA



Laguntzailea:



azpeitikoudala
denon artean